


Euskadi
Informazioaren
Gizartearen Plan
Berria


AD@15

AGENDADIGITAL@2015
EUSKADI



Euskadi Informazioaren Gizartean Plan berria **Euskadiko**
Agenda Digitala 2015 deitzen da

AD @15



SARRERA

- I. Testuingurua eta planaren arrazoiak eta egokitasuna
- II. Euskadin informazioaren gizartearen esparruan egindako plangintza-ahaleginaren bilakaera historikoa
- III. Planaren elementuak eta diseinu-prozesua
- IV. Dokumentuaren egitura

I. ZATIA: INFORMAZIOAREN GIZARTEAK EUSKADIN EGUN DUEN EGOERA ETA LERRO ESTRATEGIKO NAGUSIAK

1. Informazioaren gizarteak Euskadin egun duen egoera
2. EIGP 2010: ikasitako ikasgaiak, ainguratze komenigarriak eta beharrezko berrikuspenak
3. Euskadiko Agenda Digitala 2015en erronka nagusiak
4. Erreferentziako esparru estrategikoa
5. Euskadiko Agenda Digitala 2015en planteamendu estrategikoa
 - a. 2015erako ikuspegia
 - b. Ardatz estrategikoak eta jarduera-lerroak AD15en esparruan

II. ZATIA: PLANA EKINTZA BIHURTUTA

1. Erkidego digitala
2. e-Enpresa
3. Zerbitzu digital aurreratu eta erabilerrazak
4. Azpiegiturak
5. Euskadiko Agenda Digitala 2015en kudeaketa eta sustapena

III. ZATIA: PLANAREN INPLEMENTAZIOA ETA FINANTZIAZIOA

1. Kudeaketa-eredua: ezarpena, jarraipena eta ebaluazioa
2. Euskadiko Agenda Digitala 2015en finantziazioa



Sarrera

SARRERA

I. TESTUINGURUA ETA PLANAREN ARRAZOIAK ETA EGOKITASUNA

Testuingurua

Ekonomia globalaren egungo gakoak informazioaren prozesaketan eta erabileran oinarritzen dira: pertsona bakoitzak eta erakunde bakoitzak gaitasun ia mugagabea dute besteek sortutako informazioa eskuratzeko, eta pertsonak eta erakundeak ere beste batzuentzako informazioa sortzeko ahalmena dute.

Ildo horretan, informazio- eta komunikazio-teknologiaren (IKT) sektorea funtsezkoa da EBko ekonomian hazkundera eta enplegua sortzeko, eta % 50ekin laguntzen du produktibitatearen hazkundera; gainera, funtsezko iturria da berrikuntzarako eta negozio-aukera berrietarako.

Arrazoi horregatik, Euskadik ongi aprobetxatu behar ditu gizarte berri horretan agertzen diren aukerak, jauzi kualitatibo eta kuantitatibo bat egiteko; IKTen trenean jarraitu behar da; haiek motor ekonomiko eta tresna gisa dituzten gaitasunak aprobetxatu behar dira, gizarte oparoago eta kohesionatuago batean justizia sozial handiago bat iristeko, eta, horrela, informazioaren egiazko gizarte bat eraiki behar da, azpiegiturretan, herritarren trebakuntzan eta beste alor batzuetan iritsitako maila sendotzen jarraitzen dela.

Informazio- eta komunikazio-teknologiaren ikuspegiak bilakaera nabari bat izan du azken hamarkadetan. Hasieran, nagusiki enpresa-prozesuen mekanizazioan erabilitako tresnak ziren IKTak. Eraginkortasun bilatzea zuten helburu, eta, ondorioz, kostuak murriztera zuzentzen zen haien erabilera. Gaur egun, enpresa batzuek gaitasun espezifiko batzuekin (adibidez, zuzendaritzaren konpromisoa, erakunde-ikaskuntza eta bezeroekiko eta hornitzaileekiko integrazioa) osatzen dituzte teknologiek, eta, horri esker, hobetu egiten dituzte enpresa-emaitzak, eta lehiaketa-abantaila jasangarriak indartzen.

Eusko Jaurlaritzan, pentsatzen dugu informazio- eta komunikazio-teknologiak beste maila batera eraman behar direla, hots, baliabide baliotsu izatetik gizarteari balioa ekartzeko funtsezko tresna izatera.

Haien hedapen orokor bat iritsi behar da maila guztietan, eta eten digitalari eraso behar zaio. Eta, bi horiez gainera, honako hau dugu erronka nagusia orain: bilakaera teknologikora egokitzeke etengabeko prozesuak eskaintzen dituen aukeretatik probetxu ekonomikoa ateratzea.

Informazioaren gizarteranzko bidean, orain arte egindako ahaleginak atxiki eta hobetu behar ditu Euskadik, aurrerantzean ere onenen artean egoteko.

Arrazoi horregatik eta esparru horretan, Agenda Digitala 2015 eratu da, zeinak ez baititu behar gisa ikusten IKTak, baizik eta aukera gisa. Modu eraginkorrean erabili behar da orain aukera hori enpresa-bizitzan eta herritarren eguneroko jardueran.

Egungo krisiak, hitz hori itzultzen duen txinatar ideograman islatzen den bezala, bi atal ditu: arriskua eta aukera. Munduko ekonomiaren egoera abagune egoki bat bezala ikusi behar da, teknologia horien laguntzaz Euskadi indarturik atera dadin.

EIGP berriak IKTek dakarten aukera maximizatzen zuzendu nahi ditu bere lerro estrategikoak, eta bi jarduera-ardatz nagusi ezartzen ditu:

- IKTak lehiakortasuna hobetzeko
- IKTak ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko.

Euskadiko Agenda Digital berriaren esparruan, honako hauek identifikatu dira iritsi beharreko asmo nagusitzat, laburbilduta:

- Herritar autonomo eta parte-hartzaile batzuk edukitzea esparru digitalean
- Sareko enpresa berritzailez osatutako enpresa-ehuna edukitzea
- Zerbitzu digital aurreratu eta erabilerrazen eskaintza zabal bat garatzea
- Azken belaunaldiko eta gizarte osoarentzako azpiegitura batzuen hedapena ziurtatzea.

Jokaleku horretan, eta Orkestrak egindako **Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiakortasunari buruzko 2011ko Txostenaren** emaitzen arabera, EAEko enpresen lehiakortasuna ongi doa aurrera; halere, euskal ekonomiak irekitze handiago bat behar du, eta haren produktuek eta zerbitzuek ere sofistikazio handiago bat behar dute, onenekin lehiatzeko.

Honetan oinarritu behar du lehiaketa-abantailak: teknologiaren mugan modu eraginkor eta jasangarrian ondasun eta zerbitzu berritzaileak ekoizteko gaitasunean.

Euskadik gero eta ingurune konplexuago batean heldu behar die lehiakortasunaren erronkei. Hiru faktore nagusi dira konplexutasun horren eragile:

- **Globalizazioa**, zeinak konplexutasuna handitzen baitu harremanetan, dela geografia-arrazoiengatik, dela eragile mailagatik, dela jarduera motagatik.
- Baliabide naturaletan eta demografikoetan diren **mugak**
- BPGa edo per capita errenta maximizatzea baino harago, gizartearen **ongizate-helburuak bateragarri bihurtzeko** dagoen beharra.

Txosten horren arabera, lehiakortasunaren erronkak hiru ardatz zehatzen inguruan egituratu behar dira, eta gogoz bultzatu behar dira ardatzok:

1. *Ekonomiaren eta haren eragileen aniztasuna*

Ekonomiaren eta haren eragileen aniztasuna garatzea eta kudeatzea da funtsezko erronketako bat, eta honetan datza aniztasun hori:

- ✓ Produkzio-egituraren heterogeneotasuna
- ✓ Berrikuntza bidezko dibertsifikazio estrategikoa
- ✓ Beste jarduera, produktu, merkatu eta sektore ekonomiko batzuk erakartzea, ekintzaileen jardueraren bidez.

Erronkoi aurre egiteko, honako behar hauek bete behar dira:

- ✓ Analisi-unitaterik ohikoenen artean diren tarteko espazioak aprobetxatzea: enpresatik enpresa taldera igarotzea; industriatik, industria berrira; klusterretatik, klusterren arteko elkarlanera eta balio-kate globaletara.
- ✓ Estrategia ugari konbinatzea, bai enpresarialak –berrikuntza-estrategia mistoak bilatzen direla enpresetan (estrategiok berrikuntza teknologikoak eta ez-teknologikoak konbinatzen dituztela, prozesu-berrikuntzak eta produktu- nahiz antolamendu-berrikuntzak, etab.)–, bai lurralde mailakoak, gogoz bultzatzen direla «ugaritasun loturaduna» eta «espezializazio adimenduna» (espezializazio-estrategia alternatiboen edota dibertsifikazioaren aurrean), eta klusterrak balio-kate globaletan sartzea.
- ✓ Ekintzaileen jarduera eta, bereziki, oinarri teknologikoko ekintzailletza oztopatzen duten era guztietako itoguneak gainditzea.

Testuinguru horretan, deskribatutako erronkei heltzen zaienean arrakasta bermatzeko, eragile ugariaren inplikazioa behar da, eta aldatu egiten dira eragileok aurrean ditugun erronken arabera: kluster desberdinetako industria- eta zerbitzu-enpresen erronkak, lurralde desberdinetako klusterrenak, administrazio publikoarenak, unibertsitatearenak, oinarritzko ikerketako zentroenak eta zentro teknologikoenak.

Era berean, talde gisa onartu behar da jakintzaren mugarantz hurbiltzeko beharra. Prozesu bat behar da, bada, eta, hor, eragileek bi hauek zehaztu behar dituzte: aipatu erronkari erantzuteko estrategia, eta eragile bakoitzak prozesuan izan behar duen rola.

2. *Pertsonen eta erakundeek ezaugarri dituzten gaitasunak eta ikaskuntza*

Aintzat hartu behar dira eta balioa eman behar zaie EAEk dauzkan giza baliabideei; baita erakar edo sor ditzakeenei ere. Horretarako, nahitaezkoa da gaitasunak eta ikaskuntza aztertzea, eta honako gai hauei heldu behar zaie bidenabar: biztanleriaren zahartze mailakatuak lan-merkatuan sortzen dituen erronkei, giza kapitalaren trebakuntzari, eta enpresetako ikaskuntzari.

Pertsonen ikaskuntza-prozesua hezkuntza-sisteman hasten da, eta prozesu horretan zehar sortzen diren aukerak funtsezkoak izaten dira. Atal honetan, antolamendu-berrikuntza bultzatzeko erronkari heltzen zaio, enpresa barruan eta bezeroekiko nahiz hornitzaileekiko elkarlanean berrikuntza sortzeko.

3. *Lurraldearen eta horko eragileen irekitzea eta konektibitatea, barnekoa zein kanpoko*

Ardatz horren barruan, eta IKTei dagokienez, oso zehatza da aurrean den erronka: teknologian erabilera handiago baterantz joatea, bai enpresa-ehuna, bai gizartea oro har.

Txostenaren emaitzen arabera, teknologien sartze-tasak nahiko onak dira Euskadin orain arte, baina ez da gauza bera gertatzen enpresek eta familiek teknologia horiez egiten duten erabileran. Erabilera mugatu hori azaltzen duten faktoreen artean, banda zabalak Espainian dituen prezio handiak aipa daitezke, eta heziketa- eta adin-izaerako beste faktore batzuk.

Halaber, atzerri-inbestimendua erakartzeko politikak bultzatu beharra ikusten da, eta, hor, berrikuntza, teknologia eta talentua dakarten inbestimenduak hobesten dira.

Bestalde, teknologiaren nazioartekotzearen bultzada bermatzeko, nahitaezkoa da pertsonengan funtsezko gaitasun batzuk sortzea, pertsonok nazioarteko aukera teknologikoak identifikatzeko, jasotzeko eta ustiatzeko gai izan daitezen, gero atzerriko aukerak aprobetxatzeko, eta aukera berriak eskuratzeko.

Berrikuntzaren goranzko jokaleku berrian aitzindari izatea da erronka, eta horrek aldaketa sakonak eskatzen ditu aurreko egoerako funtzionamendu-eskemak eta inertziak hausteko.

Planaren arrazoiak eta egokitasuna

Eusko Jaurlaritzak informazioaren gizartearekin lotutako zenbait plan estrategiko eratu eta bete ditu, lehenago, Euskadi Informazioaren Gizartean Plana erabiltza.

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2010eko apirilaren 13an egindako bileran, «2009-2013 IX. LEGEGINTZALDIKO GOBERNUAREN EGITASMO ETA JARDUERA ESANGURATSUEN EGUTEGIA» onartzeko erabakia hartu zuen, besteak beste.

IX. legegintzaldiko egitasmo-plan horrek Euskadi Informazioaren Gizartean Plana 2015 berri bat aurreikusten zuen, eta hauxe zen helburua: «Informazioaren gizartea sustatzea, Euskadi jakintzaren gizarte eta gizarte kohesionatu bilaka dadin, eta informazioaren gizarte horrek hazkunde jasangarria sustatuko du, eta herritarrek ere pertsonaren eta taldeen bizi-kalitatea hobetzeko erabakietan hartuko dute parte».

Euskadi Informazioaren Gizartean Plan berria jarduera-plan bat da, eta bost urteko aldi bat (2011tik 2015era) hartzen du.

Plan berri horrek Euskadiko Agenda Digitala 2015 hartzen du izentzat. Izen horrek aurreko planarekin lotzen du, 2010ean amaitu baitzen hura, eta gai horretan Europan den estrategiarekin, zeinak «Europako Agenda Digitala» baitu izena.

Gobernuaren plan estrategiko gisa, Euskadiko Agenda Digitalak honako hau dauka elementu nagusitza: informazioaren eta jakintzaren gizartearen esparruan programa mailan egungo legegintzaldirako ezarritako helburuak iristea. Hala, indartu beharreko jarduera-lerroek eta ekimenek bat egin behar dute Gobernuaren programarekin; bat egin behar dute, halaber, euskal gizartearen alor horretako konpromisoak islatzen dituzten beste erakunde-adierazpen batzuekin:

- Euskadiko Alderdi Sozialistak (EAS) 2009ko martxoan IX. legegintzaldirako hauteskunde autonomikoetara (haieztatik sortu zen egungo Eusko Jaurlaritza) eraman zuen **gobernu-programak** «Jakintzaren gizartea: guztientzako gizarte bat» aipatzen zuen bere 5. atalean. Han, aitortzen zen oso rol garrantzitsua dutela informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek gizarte berriaren eta ekonomia berriaren antolamenduan.

Aitorturik IKTetako inbestimenduak zuzenean laguntzen duela merkatuko faktore guztien produktibitatearen hazkundera, gobernu-programa horretan gomendatzen da, halaber, teknologiek sistema osora hedatzea, sektore eta fase guztietara zabaltzea; proposatzen da euskal lurralde osoan eta gizarte-sektore guztietan ezartzea haiek, berdintasuna sustatzen dela, eta eten eta bazterketa digitala saihesten direla.

Gainera, Jaurlaritzari iruditzen zaio IKTak hezkuntza-sisteman jarraituki erabiltzea eta biztanle helduak teknologia horietan trebatzea funtsezko gakoak direla etorkizuna bermatzeko.

- Bestalde, 2009ko maiatzaren 5eko **Lehendakariaren inbestidura-hitzaldian** nabarmentzen da IKTek sekulako garrantzia dutela herritarren bizi-kalitatea hobetzeko, eta gizartean pisu espezifikorik handienetako bat duen arlo bat aipatzen da bereziki: osasungintza; teknologia berrietan inbestitzearen alde egiten da, informazioaren eta jakintzaren gizartearekin batago datorren osasungintza bat iristeko.

Hitzaldian, informazio-zerbitzuak eta zerbitzu telematikoak garatzea proposatzen da, herritarrek errazago irits dezaten beren osasuna zaintzeko informazioa, eta harreman errazagoak izan ditzaten osasun-zerbitzuekin.

- Era berean, Lehendakariak, 2011ko irailaren 29an egindako **politika orokorreko osoko bilkuran**, nabarmentzen du, bere hitzaldian, nahiz eta ingurune ekonomiko txar batean egon, Euskadi erreferentzia bat dela berrikuntzan, kalitatean, jasagarritasunean eta balioetan, eta Euskadik oinarri sendo batzuk dituela egungo krisi orokorreko testuinguru nahasitik lehenbailehen irteteko. Ildo horretan, Euskadi aurrera doa, zailtasunak zailtasun, eta gizarte dinamiko, moderno eta solidario bat delako irtengo da aurrera.

Hala, eta zehazki informazioaren gizarteaz ari dela, egun jadanik martxan diren elementu esanguratsu batzuk aipatzen ditu Lehendakariak, eta dio elementuok aukera handi bat direla, eta konfiantza ematen diotela Euskadiri.

Honako hauek nabarmentzen ditu: hezkuntzan egiten ari diren aldaketa garrantzitsuak, teknologia berriak sartuta; Administrazioa bera modernizatzea, gardenago, parte-hartzaileago, berritzaileago eta gizarteari irekiago izan dadin; osasun-sistemaren erreforma, osasun-arretako beste formula eta egitura batzuk ezartzeko, eta herri-proiektu batzuk abiatzea industriaren esparruan, hala nola Interneterako sarbide bizkorra, merkataritza elektronikoa edo zientziaren industria.

Gainera, Lehendakariak konpromiso batzuk adierazten ditu Euskadiren eta euskal gizartearen alde. Haien artean, eta zehazki informazioaren gizarteari dagokiola, honako hauek aipatzen ditu: enpresak teknologikoki hobetzea, oinarri zientifiko-teknologikoko I+G+Bko proiektuak laguntzea eta ekintzaitetza bultzatzea; bestalde, azpiegitura-sare trinko bat moldatzea proposatzen du; ez azpiegitura fisikoak bakarrik, baizik eta baita birtualak ere, euskal herritarrak elkarrengana hurbiltzeko, eta haiek gainerako munduarekin lotzeko. Eta, azkenik, apustu sendo bat egiten du teknologia Administrazioaren modernizazioan eraginkorkiago integratzeko eta, bide batez, sistema demokratikoaren kalitatea hobetzeko, eta, horretarako, informazio-, gardentasun-, kontrol- eta partaidetza-formula berriak ezartzea proposatzen du.

Azken finean, 2015erako plan berria guztiz bat dator Jaurlaritzak daukan ikuspegiarekin. Informazioaren eta jakintzaren gizarte Euskadi osora hedatzea dute helburu biek.

Jokaleku horretan, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek euskal gizartearen lehiakortasuna hobetzeko tresnak izan behar dute; euskal enpresak eta euskal herritarrak trebatzen lagundu behar dute, haiek nazioartean ere lehiatzeko gai izan daitezen.

Gainera, teknologia horiek laguntza-zerbitzuetan, hezkuntzan, aisian eta Administrazioerikiko harremanetan modu naturalean erabiltzea oso lagungarri gerta daiteke euskal herritarren bizikaltatea nabarmenki handitzeko.

Halaber, Euskadiko Agenda Digital berria beste estrategia paralelo eta aldi berean osagarri batzuekin koordinatzen da; helburu komunak partekatzen ditu haiekin, euskal gizartearen lehiakortasuna eta ongizatea hobetzeko.

II. EUSKADIN INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN ESPARRUAN EGINDAKO ANTOLAMENDU AHALEGINAREN BILAKAERA HISTORIKOA

Informazioaren gizartearen bultzadak hainbat fase izan ditu Euskadin historian zehar, eta haietako bakoitza alderdi zehatz batzuetan ahalegindu da. Alderdi horietantxe oinarrituta eraiki da, urrats sendoz, egun daukagun egoera.


EIGP 2010 amaitu ondoren, nahiz eta bilakaera biziki positiboa izan den orain arte, Eusko Jaurlaritzari iruditzen zaio Euskadiko Agenda Digital berriak honako hauek egin behar dituela:

- Izaera **handinahia** izan bere asmoetan
- **Jauzi kualitatibo garrantzitsu bat** egin, informazioaren gizartearen alorrean lehenago egindako edozein ekimenekiko.

Informazioaren gizartearen alorrean Euskadi erreferentzia bihurtzeko eta esparru horretan haren geroa eraikitzeko konpromisoarekin, plan horri eman zaion ikuspegi berriak jauzi esponontzial bat iristea bilatzen du, IKTen aldeko apustua atxikita, eta bi dira helburuak: Euskadi Europaren mailara hurbiltzea, eta **euskal gizartea erreferentziako eredu bihurtzea esparru horretan.**

Berrikus dezagun azken urteetako historia. 2002an lehen EIGPa onartu zenetik, nabari da euskal gizartea ohitu egin dela baliabide eta zerbitzu teknologiko berrietara; hark baliabideok erabiltzeko kultura bat garatu du, eta Euskadi aitzindari da Estatuan.

Euskadi Informazioaren Gizartean Planaren ikuspegi estrategikoaren bilakaera historikoa



Halere, prozesua abian da oraindik, eta orain erronka da Euskadik ezaugarri hauek iristea:

- Etengabe haztea, askotarikoa eta oso kohesionatua izatea, berezko presentzia edukitzea eta informazioaren gizartearen alorrean Europan erreferentzia bilakatzea.
- Pertsona biziki parte-hartzailez, arduratsuz, trebatuz eta teknologikoki prestatuz osaturik izatea, zerbitzu aurreratuak erabiltzen ohituta egotea, eta zerbitzuon euskarritzat azken belaunaldiko azpiegitura sendo, seguru, erabilerraz eta ultrabizkorrak edukitzea.
- Erakunde lehiakorrez osaturik izatea, halaber, zeinen negozio-ereduak aise aldatzen diren zerbitzu berritzaile eta jasangarriak eskaintzeko.
- Pertsona guztien inklusioa eta erabilerraztasuna sustatzea, eta turismoko eta euskal kulturako baliabideen kokapena eta hedapena hobetzeko konpromiso sendo bat edukitzea.
- Aipatu teknologiak funtsezko euskarri bat izatea, euskal gizartearen lehiakortasuna, ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko.

III. PLANAREN ELEMENTUAK ETA DISEINU PROZESUA

Hausnarketa-prozesuaren elementu gidatzaileak

Plan berri honen diseinuan, oso kontuan eduki da arestian aipatu den jauzi kualitatiboak bietan gelditu behar duela agerian, bai ikuspegi estrategikoan, bai planaren beraren moldaketan eta ondoko ezarpenean.


Hala, plan berria garatzeko esparruan, prozesua lagundu behar duten funtsezko lau elementu zehaztu ziren:

- **Jaurlaritzaren konpromisoa:** Euskadiko Agenda Digitala 2015 Eusko Jaurlaritzaren apustu sendo bat da, eta informazioaren gizartearen gaian Euskadi jomugan ipintzea eta Euskadi erreferentziako polo teknologiko bihurtzea ditu helburu.
- **Aldaketaranzko orientazioa:** Agenda Digital berriak bilakaera garrantzitsu bat ekarri behar du orain arte egindako guztian.
- **Geroa eraikitzea:** Agenda Digital honekin, Euskadik informazioaren gizartean izango duen geroa eraikitzen jarraitzen da.
- **2015 zerumuga:** plan berrian ezarri diren ekimen, helmuga eta ekintza guztiek 2015 dute epemuga.

Diseinu-prozesua

Alderdi orokorrak

Euskadiko Agenda Digitala 2015 lantzeko prozesuaren testuingurua



Plan berria diseinatzeko eta egiteko irekitako hausnarketa-prozesuan, funtsezko hiru alderdiok nabarmendu nahi izan dira:

- **Partaidetza- eta elkarlan-prozesu bat**

Garbi zegoen Euskadiko Agenda Digitala 2015 Planaren moldaketa Eusko Jaurlaritzak gidatu behar zuela, baina garbi zegoen, halaber, eta hala izan da, beste erakunde publiko eta pribatu batzuek eta informazioaren gizarteko enpresa garrantzitsu eta jakintzadun batzuek ere lagundu behar zutela, balio erantsi handiko ideiak eta ekimenak eskain zitzaten.

- **Proiektuetara orientatutako ikuspegi bat**

Bestalde, Agenda Digital berriak, lehenagoko beste plan batzuek ez bezala, proiektuz osatutako plan bat izan behar zuen: ez zeukan goi mailako estrategiak biltzera mugatzerik.

Praktikotasunaren eta euskal gizartearentzako balio erantsia sortzearen alde egin behar zuen apustu, eta proiektu batzuk ekarri behar zituen berekin: proiektu zehatzak, berritzaileak, sinergikoak, eragin handikoak, gauzatzeko konpromisoarekin, trakzio-efektu bat sor dezaketenak, herritarren bizi-kalitatea hobetuko dutenak eta/edo euskal enpresen lehiakortasuna hobetzen lagun dezaketenak. Horregatik deitu zaio Agenda Digital 2015 planari.

- **Europako eta Estatuko joerekin eta ekimenekin bat eginda:**

Euskadiko Agenda Digital berria ez da bakarkako bide bat; aitzitik, informazioaren gizartearen alorrean mundu mailan, Europan eta Estatuan diren estrategia nagusiekin dago bat eginda.

Plan berri honekin, Eusko Jaurlaritzak rol aktibo bat eduki nahi du Euskadin informazioaren gizartea eraikitzeke.

Eusko Jaurlaritzaren eginkizuna plana egiteko prozesuan



Jadanik esan denez, partaidetza eta elkarlan sendo batzuekin eratu nahi izan da Euskadiko Agenda Digitala 2015, eta egokiro koordinatuta, bai barne mailan, bai kanpokoekin.

Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzako sailen inplikazioa funtsezkoa izan da plan honen garapenean, eta garrantzitsua izango da aurrerantzean ere planaren helburuak iristeko. Sailok aitzindaritzza garbi bat izan behar dute prozesuan, eta trakzio-efektu bat sortu behar dute beste eragile batzuegan.

EAEko beste administrazio publiko batzuen, eragile ekonomiko eta sozialen, eta informazioaren gizaritari buruzko jakintza handiko erakundeen partaidetza ere nahitaezkoa izan da, balio erantsi handiko ideiak eta ekimenak eskaini baitituzte plana osatzeko.

Jaurlaritzaren esparruan, Planak sail guztiak inplikatzeko ditu, nahiz eta Industria, Merkataritza eta Turismo Saila (hari baitagozkio organikoki informazioaren gizaritea garatzeko eta sustatzeko jarduerak) aritu aitzindari gisa prozesuan, sail guztien lana koordinatzeko. Aipatu Sailak, gainera, egindako urratsen kontu zehatza ematen die beti, bai Batzorde Zuzendariari, bai bere mendearen duen Batzorde Teknikoari.

Eusko Jaurlaritzako sailez gainera, beste eragile edo interes-talde batzuk ere aritu dira hausnarketa-prozesuan, zeinek beren ikuspegi, ideia eta ekimen interesgarriak eskaini baitituzte, kasu askotan, beren borondatez, prozesua arrakastatsua gerta dadin. Hona eragile eta interes-talde horietako batzuk:

- Erakundeak eta beste administrazio publiko batzuk
- Eragile ekonomikoak eta sozialak
- Eragile trakzio-sortzaileak edo «stakeholder»-ak: erakunde interesgarri eta garrantzitsu batzuk, Agenda Digital 2015 taxutzeko orduan.

Jokaleku horretan, izaera tematikoko hausnarketa-mahai eta lantalde batzuk garatu dira, eta 150 ideia eta proposamen interesgarri baino gehiago bildu dira haietan. Horiek guztiek ekarpen baliotsu bat egin dute Agenda Digital berriak landu behar dituen jarduera-ardatzak, -lerroak eta -programak definitzeko.

Zorionez, informazio-teknologiaren egungo garapenak berak erraztu egiten du erabiltzaileen partaidetza aktiboa; Internet bera eraldatzeko ahalmen handia frogatu duten elkarlaneko tresnen, sare sozialen eta/edo zerbitzuen bidez gertatzen da partaidetza hori. Agenda Digitala 2015ek indartu egin du bere formulazioan partaidetza-dimentsio hori, eta berdin egingo du bere hedapen- eta inplementazio-prozesuan, berari dagozkion jarduerak garatzeko orduan.

Horretarako, gero eta administrazio irekiago eta parte-hartzaileago baterako bide estrategikoan Eusko Jaurlaritza bere buruari ematen ari den tresna eta plataforma guztiak erabili ahal izango dira.


Hala, aspalditik eskura diren gobernu-tresna batzuek (IREKIA edo Open Ideiak), partaidetza eta gardentasuna sustatzeko beren bokazioan, aldatzen jarraituko dute, zerbitzu aurreratuago eta berritzaileago batzuk eskaintzeko.

Ildo horretan, orain arte egindako ahalegina nabarmendu behar da, eta Berrikuntza Publikoaren Planaren bitartez gai horri aurrerantzean ere eman nahi zaion bultzada, eta, horretarako, honako hauek sustatu nahi dira: zeharkako gardentasun-politika bat kudeaketa administratiboan; herritarrek gai publikoetan parte hartzeko beste politika bat, eta administrazioen arteko elkarlana bultzatzea.

Plana egiteko erabilitako metodologia

Plana egiteko, prozesuaren garapen egokia berrmatuko zuen metodologia bat erabiltzea erabaki zen.

Metodologia horrek honako grafiko honetan jasotzen diren etapak eta faseak lantzea proposatzen zuen:



Jarraian, erdiko faseetan garatutako zereginak zehazten dira, sintesi moduan, eta haiek izan dira, hain zuzen ere, estrategia formulatzeko oinarri:

I. fasea: Planaren oinarrien hausnarketa

Egungo egoeraren diagnostika

- Informazio-gizartearen sustapenerako abian diren proiektuen azterketa
- Ondorioak ateratzea eta ikasitako ikasgaiak
- Euskadin informazioaren gizarteak dituen adierazle nagusien azterketa

Planaren esparru estrategikoa

- Plana eta haren proiektuak garatzeko **jarraibideen identifikazioa eta azterketa:**
 - ✓ Europa 2020 Estrategia: Europako Agenda Digitala
 - ✓ Avanza 2 Planaren 2011-2015 Estrategia
 - ✓ Gobernu-plan batzuk: Lehiakortasun Plana 2010-2013, ZTBP 2015, BPP 2011-2013, EkoEuskadi 2020 estrategia
 - ✓ Informazio gizarteko eskualdeko eta nazioarteko beste ekimen batzuk
- Euskadiko Agenda Digitala 2015en **esparru estrategikoa ezartzea:**
 - ✓ Helburu estrategiko berriak definitzea
 - ✓ 2010ean abiarazitako edo 2011n aurreikusitako proiektu estrategikoak

Euskal Administrazioaren proposamenak eta eskakizunak jasotzea

- Eusko Jurlaritzako sailekiko harremanak / bilerak
- Hausnarketa-mahaiak eta barneko lantaldeak antolatzea eta garatzea

Arrakasta-esperientzien azterketa

- Ekimen arrakastatsu esanguratsu, berritzaile eta gauzatu berriak bilatzea eta aztertzea
- Intereseko proiektuen eta jardunbide egokien zerrenda bat egitea
- Informazioaren gizarteaz gobernu batzuek izan dituzten orientazioen ikuspegi orokorra.

Partaidetza beste eragile batzuegana hedatzea

- Aurkezpen bat antolatzea eragile ekonomikoentzat eta sozialentzat
- Open Ideiak partaidetza-tresna
- Kanpoko hausnarketa-mahaiak antolatzea

II. fasea: Estrategia ekintza bihurtuta

Lan-lerroak eta programak identifikatzea

- Informazioaren gizartearen esparruan 2015eko iritsi beharreko jokalekua definitzea
- Definitutako helburuak iristeko jarduera-lerroak diseinatzea
- Markatutako ikuskeraren eta erreferentzia-esparru estrategikoaren inguruko programa eta ekimen estrategikoak identifikatzea

Deskribapen xehatua

- Lerroak, programak eta ekimenak balioestea eta lehenestea
- Programak eta ekimenak aukeratzea eta taldekatzea
- Agenda Digital berriaren ardatz-, lerro-, programa- eta ekimen-egitura zehaztea

IV. DOKUMENTUAREN EGITURA

Orain ezagutarazten den dokumentu honetan, **Euskadiko Agenda Digitala 2015** aurkezten da. Hausnarketa-prozesu parte-hartzaile eta elkarlaneko baten emaitza izan da, zeinetan diziplina anitzeko partaidetza bat izan den, bai Eusko Jaurlaritzako sailena berena, bai beste erakunde publiko eta erakunde esanguratsu batzuen, haiek ere zer esan ugari baitute informazioaren gizartean datozen urteetan Euskadik jarraitu beharreko bideaz.

Plan hau hiru zatitan egituratzen da:

- Lehen zatian, azaltzen da zer egoera duen egun informazioaren gizarteak Euskadin, EIGP 2010en indarraldia amaitu ondoren; horretarako, adierazlerik garrantzitsuenak aztertzen dira, zeinetan azken urteetan izandako aurrerakadak nabarmentzen diren; hemendik aurrera bidean agertuko diren erronkak eta aukerak ahaztu gabe, haatik, haiei ere heldu beharko baitzaie.

Gainera, plan berriaren ikuskera aurkezten da; Euskadiko 2015 arteko informazio-gizartearen norabidea gidatuko duten ardatz estrategiko eta jarduera-lerro nagusiak ere aurkezten dira.

- Bigarren zatian, lehen zatian adierazitako ardatzak aztertzen dira xehe-xehe, ekimen batzuetan mamituta, ekimenok garatu nahi baitira plana hedatzeko.

Aurreko planean, helburua zen informazioaren eta jakintzaren gizarte bat iristea osoki, aurrera egiteko eta, behin Europarekin bat egin ondoren, Euskadi erreferentzia bihurtzeko; une hauetan, aurreko fasea gainditurik, gakoa da IKTak palanka moduan erabiltzea, digitalki trebatua eta parte-hartzailea den biztanleria baten bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko, eta, sareko negozio-eredu berriak garatuta, euskal enpresen lehiakortasuna indartzeko.

Honako ardatz nagusi hauen inguruan proiektatu behar da plan berriaren jardura:

➤ **Erkidego digitala**

Herritarrei dagokienez, planak proposatzen du euskal gizarte erkidego digital jantzi bihurtzea, eta hark balioak partekatzea eta aukera-berdintasuna sustatzea esparru digitalean, bazterketa-arriskua saihesten duela; gainera, gizarte hori parte-hartzailea eta elkarlanekoa izatea, eta zerbitzu digital aurreratuak erabiltzen ohitua, horrek ongizatea eta bizi-kalitatea hobetuko baitzikio.

➤ **e-Enpresa**

Enpresa-ehunaren ikuspegitik, IKTak erabiltzen hasteko prest diren enpresak eduki nahi dira; teknologia horiek erabiltzen ohitua, eta, haietan oinarrituta, sareko negozio-eredu berritzaile batzuen alde apustu egiten dutenak.

Hartarako, nahitaezkoa da erakundeak sensibilizatzeraz, trebatzeraz eta laguntzeraz orientatutako baliabideak eskaintzea.

➤ **Zerbitzu digital aurreratuak**

Euskal Administrazio Publikoak konpromiso bat hartzen du plan honen bidez: zerbitzu digital berriak eskaintzea herritarrei eta enpresei; hau da, zerbitzu aurreratu eta erabilerrazak, eragin eta balio erantsi handikoak, erabiltzaileen beren eraginkortasuna hobetzeko eta, gainera, herritarren bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko eta EAEko enpresen lehiakortasuna handitzeko.

Jokaleku horretan, ari dira jadanik esparru berri batzuen garapenari heltzen, hala nola osasun-sektorean. Han, erien bizi-kalitatea hobetzeko IKTak erabiltzera orientatutako estrategia bat bada; izaera kronikoko eriengan jartzen du arreta berezia, akutuen aurrean, akutuoi eskaintzen baitzitzaien orain arte ahaleginik handiena.

➤ **Azpiegiturak**

Azpiegituz bezainbatean, herritar guztiei eta enpresei zerbitzu digitalak baldintza berdinetan eskaini ahal izateko, behar-beharrezkoa da belaunaldi berriko banda zabal ultrabizkorren hedapen masiboa bermatzea, euskal geografiako txoko guztietara hel dadin, eta informazioaren gizartera sartzeko nonahikotasuna bultzatzea, mugikortasuneko konektibitatea errazten duten teknologien, tresnen eta zerbitzuen bitartez.

Gainera, aipatu azpiegiturak gizarte osoak erabiliko dituela bermatzeko, haiek, bizkorak ez ezik, seguruak, gaitasun handikoak, erabilerrazak, merkeak eta jasangarriak ere izan behar dute.

Labur esanda, informazioaren gizartea errealitate bat da, eta lehenbailehen bat egin behar dute harekin euskal gizarteak eta enpresek, lehiakortasuna eta eraginkortasuna irabazteko. IKTetara beldurrik gabe eta konfiantzaz hurbiltzeko egiten den guztia mesedegarri izango da. Gure erkidegoak jokaleku globalean duen kokapena hobetuko du horrek, eta Euskadi lehen mailarantz hurbilduko European, gizarte digitalaren ahalmenen erabileran.

Erronka horixe dugu aurrean une honetan.

- Hirugarren zatian, planaren kudeaketa-eredua aurkezten da, eta Agenda Digitalaren finantziario-egitura. Hor, plana gauzatzeko Euskal Administrazioak erabili asmo dituen baliabide finantzarioak jasotzen dira, zeinak EAEko aurrekontu orokorretatik datozen.

2011-2015 aldirako agindutako zenbateko osoa 72.733.000 euro da. Aipatu kopurua finantziario espezifikoko kontu-sail sorta batetik osatzen da, eta kontu-sailok zuzeneko erreferentzia batekin ageri dira berezko aurrekontu-programa batean, 5211 Euskadi Informazioaren Gizartean Plana aurrekontu-programan. Antzera egin zen lehenagoko planetan ere.

I Zatia

Informazioaren gizartearen gaur egungo egoera Euskadin eta lerro estrategiko nagusiak

1. Informazioaren gizartearen gaur egungo egoera Euskadin



I ZATIA: INFORMAZIOAREN GIZARTEAK EUSKADIN EGUN DUEN EGOERA ETA LERRO ESTRATEGIKO NAGUSIAK

1. INFORMAZIOAREN GIZARTEAK EUSKADIN EGUN DUEN EGOERA

Agenda Digitalaren lerro estrategikoak definitzeko aurreiazko urrats eta abiapuntu gisa, egoeraren azteketa bat egin behar da. Haren bidez, diagnostiko zehatz bat egin daiteke informazioaren gizarteak Euskadin duen egoeraz.

Hartarako, eskura diren datu kuantitatibo nagusiak ebaluatu behar dira, errealitatea hobekien erakusten duten eta balio egiaztatua duten adierazle batzuk aztertuta; adierazleok, izan ere, estatistika-bulego ofizialek adostuta moldatzen dira.

Hala, haien irismena eta bilakaera neurtu dira, eta haiek erreferentziako beste ingurune batzuetakoen (Estatukoak, Europakoak) aldean duten kokapena baloratu da.

Dena dela, kontuan eduki behar dira bi gauza: batetik, adierazle horiek alorrean erreferentzia diren erakunde nagusiek (Eustat, Eurostat, INE, etab.) argitaratutako estatistiken zati dira; bestetik, adierazleok IKTekin lotutako esparru eta alderdi ugarietako batzuen (ekipamendua, erabilerraztasuna, erabilera eta/edo xedeak) alderdi partzial eta zehatz batzuk aztertzen dituzte. Gainera, adierazleok berritze-prozesu etengabe batean dira beti, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek etengabe azalera zuten fenomeno berriei erantzuteko.

Edonola ere, ez denez erreferentziako adierazleen nukleo zentral bat, adierazleen hautateketa bat egin da, haiek informazioaren gizarteak Euskadin egun duen egoeraren interpretazio objektibo bat eskainiko dutelakoan.

Azterketa lau kategoria desberdin baina elkarren osagarritan egituratzen da:

- Herritarrak
- Enpresa
- Administrazioa – zerbitzu publiko digitalak
- Azpiegiturak

Aipatu lau kategorietako bakoitzerako, egindako azterketatik eskuratutako ondorio nagusiak aurkezten dira.

1.1 HERRITARRAK

IKTen sartzea


IKTek euskal gizartean azken urteetan izan duten hedapena gero eta handiagoa baina apala izan da, eta herritarren artean telefono mugikorrek izan duen zabalkunde masiboa nabarmen daiteke.

- 2010ean, euskal etxebizitzien % 62,9k zuen Internet-konexioa, Estatuko batez besteko % 59,1ekin, 27EBko batez besteko % 70ekin eta EBko 5 herri nagusietako batez besteko % 85ekin alderatuta.

Nahiz eta gora egin duen Interneten presentziak euskal etxebizitzetan aurreko urtearekin alderatuta (% 5,5, zehazki), oraindik ere badira hobekuntzarako aukerak esparru horretan, bai belaunaldi berriko azpiegituren hedapenaren eta eskuragarritasunaren bitartez, bai tarifa merkeago batzuen bitartez.


- Etxebizitzetan banda zabala erabiltzeari dagokionez, berriz, Euskadi kokapen bikain batean dago; Europako eta Estatuko batez besteko mailatik gora, inbestimenduetan egindako ahaleginari esker.

Euskadiko familien egoera IKTei dagokionez 2010ean, Europarekin eta Espainiarekin alderatuta (etxeen %)



Iturria: Eustat, EIN eta Eurostat

Internetarako sarbidea duten etxeen bilakaera Euskadin (%). 27EBrekin eta Espainiarekin alderatuta




Iturria: Eustat, EIN eta Eurostat

Biztanleria erabiltzailea

Aurrerakada etengabe bat gertatu da Internet euskal herritar guztiengana zabaltzeko bidean

- 2010ean, 16 eta 74 urte bitarteko herritarren % 58,5ek erabiltzen zuten Internet Euskadin: **Estatuko batez bestekotik (% 64,2) behera**, eta **27EBkotik (% 69) behera**. Gainera, ikusten da Internet-erabiltzaileen hazkunde-erritmoa mantsotu egin dela azken urtean, aurreko urteetako datuekin alderatuta.

Internet erabiltzen duten 16 eta 74 urte bitarteko biztanleen bilakaera Euskadin (%), 27EBrekin eta Espainiarekin alderatuta



Iturria: Eustat. EIN eta Eurostat


- Hainbat segmentaziori erreferentzia eginda, **eten digitalaren hobetze garbi bat gertatu da Interneten erabileran** Euskadin, bai **adinaren** arabera (55 urtekoen eta zaharragoen Internet-erabileraren eta biztanleria osoaren erabileraren arteko aldea neurtuta), bai **jardueraren** arabera, zeina 6 portzentaje-puntutan jaitsi baita (eta 29 portzentaje-puntutan kokatuta gelditu).

Halere, ahaleginak egiten jarraitu behar da ildo horretan, oraindik ere talde batzuek ez baitute sumatzen teknologia berrien interesa edo baliagarritasuna, eta Internet-erabilera apala ageri baitute.

2010ean, gizonek emakumeek baino gehiago erabiltzen zuten Internet: % 61,3, % 55,8ren aurrean. **Genero-etenari** doakionez, azken urteetako joerak egonkortasun handi samarra erakutsi du, eta **bost portzentaje-puntutik gorako** aldeak dira oraindik ere bi generoen artean.

- Ildo horretan, oraindik ere hobekuntza-aukerak sumatzen dira bazterturik gelditzeko arriskua duten taldeetan (pertsone zaharrak, langabeak...). Ahaleginak handitu, eta ezagunak zaizkien gailuen (mugikorra, LTD, etab.) bitartez erakar litezke haiek IKTetara.

Internet erabiltzen duten 16 eta 74 urte bitarteko biztanleak, sexuaren, adinaren eta jarduerarekin duen harremanaren arabera. 2010 (erabiltzaileen gaineko %, motaren arabera)




Iturria: Eustat, IGI-Familiak

Internet erabiltzearen helburuak

Gutxiegi erabiltzen du sarea euskal biztanleriak oraindik ere, ez baita ongi ezagutzen haren ahalmena, eta mugak baitira zerbitzuen eskaintza

- Hobekuntzarako marjina handi bat dago zerbitzu digitalen erabileran, eta, hobekuntza horretarako, ahalegin bat egin lezakete erakundeek, zerbitzuen eskaintza handitzeko, eta haien erabilerraztasuna eta abantailak ezagutarazteko, herritarren konfiantza handitzen dutela.
- **Erabilitako zerbitzu motei** begiratu gero, nagusiki posta elektronikoa kudeatzeko (erabiltzaileen % 92k) erabiltzen dute Internet erabiltzaileek; baita fitxategiak transferitzeko eta foroetan nahiz txatetan parte hartzeko (erabiltzaileen % 44k) ere.

Internet erabiltzen duten biztanleen bilakaera, erabilitako zerbitzuaren arabera



Iturria: Eustat-IGI-Familiak

- Eskura diren 2010eko datuen arabera, honako hauek dira **Internet erabiltzeko helburu** nagusiak: ondasunei eta zerbitzuei buruzko informazioa bilatzea (biztanleria erabiltzailearen % 95,1), eta komunikabideekin lotutako zerbitzuak (% 70,1). Haietatik bide dezentera, honako hauek daude: Administrazioaren informazioa bilatzea (% 53,7), aisia-zerbitzuak (% 52,6) eta banku elektronikoaren erabilera (% 51,1).


Internet erabilera azken 3 hiletan, ikusitako web-orrien arabera.
 (erabiltzaileen gaineko %)

	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Irakaskuntza arautua	7,7	5,7	5,7	5,3	2,1	10,9
Museo birtualak	11,6	8,1	7,4	9,9	8,8	15,8
Lana bilatzeko kudeaketak	12,4	11,9	12,7	14,7	16,0	18,6
Kontsumitzailearen eskubideak	8,7	12,9	14,7	20,2	16,9	56,1
Turismoko erreserbak	29,6	31,4	30,0	32,6	28,9	31,3
Osasunaren inguruko informazioa	12,3	17,9	21,9	27,0	30,6	37,7
Liburutegiak eta dokumentazioa	34,4	34,7	34,6	34,4	34,5	29,3
Banku elektronikoak	34,4	34,3	38,8	38,0	41,8	51,1
Aisialdiko zerbitzuak	39,0	38,8	44,1	44,0	48,1	52,6
Administrazioaren zerbitzuak	38,4	40,8	43,9	45,8	51,8	53,7
Hedabideak	57,8	62,1	61,4	62,7	64,3	70,1
Ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa	82,4	75,5	88,7	83,8	90,8	95,1

Iturria: Eustat-IGI-Familiak

- Bestalde, **merkataritza elektronikoak azken urtean izan duen bilakaera positiboa nabarmen daiteke, % 28ko hazkundea izan baitu, eta Internet-erabiltzaileen % 32ra hedatu baita.**

Merkataritza elektronikoaren erabilera azken 3 hiletan



Iturria: Eustat-IGI-Familiak

Ildo horretan, erabiltzaileek **on line egindako erosketen tipologiari** dagokionez, bidaiekin eta oporretako ostatuerekin lotutako erosketak dira nagusi, baina beste mota batzuetako produktuak ere ari dira erosten erabiltzaileak gero eta gehiago.

Azken 3 hiletan Internet bidez erositako produktuak edo zerbitzuak. (Zerbait erosi duen 15 urteko eta gehiagoko biztanleen gaineko %)

	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Bidaiak, oporretarako ostatua	50,3	49,7	50,8	41,0	30,0	41,1
Kirol-materiala, arropa	12,4	11,8	12,2	18,3	19,9	28,8
Ikuskizunetarako txartelak	20,1	15,7	11,5	12,8	16,9	21,3
Etxerako produktuak	11,8	9,8	8,8	11,4	14,9	17,5
Liburuak, aldizkariak	17,1	14,8	9,8	9,6	12,0	12,4
Elektronika	11,6	12,1	9,9	10,1	10,1	16,9
Informatikako materiala	9,7	8,8	7,6	5,8	6,0	8,2
Musika, musika-tresnak	12,3	6,8	5,7	4,8	5,7	6,0
Softwarea, bideo-jokoak	6,3	4,9	3,0	4,9	5,5	5,8
Beste produktu edo zerbitzu batzuk	2,6	2,7	3,5	4,5	4,0	8,2


Iturria: Eustat-IGI-Familiak

1.2 ENPRESA

IKTen sartzea

Aldeko bilakaera bat gertatu da euskal enpresek informazioaren gizartean duten sartzet mailan

- IKTen sartzet joera positibo bat izan du azken urteetan:
 - Telefono mugikorra da euskal enpresetan gehien hedatutako IKTetako gailua, eta ordenagailua hurrena.
 - Internet eta posta elektronikoa dira azken 5 urtean hazkunderik handiena izan duten teknologiak.
- Hala ere, **geldialdi bat izan da Interneten eskuragarritasunean** azken urtean, eta % **70en** egon da hura; esparru horretan, bada hobekuntzarako marjina handi bat: belaunaldi berriko sareen hedapen orokor bat eta tarifen gokitze bat dira gakoak.



Iturria: IGI-enpresak


Eten digitala nabarmenki estutu bada ere, oso garapen maila desberdinak ikusten dira informazioaren gizartean euskal enpresen artean, enpreson tamainaren eta haien jardura-sektorearen arabera

- Tamainari begiratuta, IKTen sartzet maila askoz handiagoa da 10 langileko eta hortik gorako enpresetan; enpresok ordenagailua dute, kasuen % 98an, eta Internet (% 96,2); aldiz, sartzet maila askoz apalagoa da ETEen (10 langile baino gutxiago) kasuan; hor, % 75 eta % 67,9 dira datuak, hurrenez hurren.

Hala, Internet daukaten 10 langiletik gorako euskal enpresen kopurua **Europako (27EB) batez bestekoaren gainerik** dago, eta Europako herri aurreratuenen apur bat azpitik.

Alabaina, nabarmentzekoa da azken 5 urtean eten digitala estutu egin dela: enpresen ordenagailua edukitzeari dagokionez, desbideratzea, portzentaje-puntutan, 35etik (2005) 24ra (2010) igaro da; Internet edukitzeari doakionez, berriz, 42,3tik (2005) 28,3ra (2010).

Ildo horretan, bada bistako hobekuntza-aukera bat tamaina txikieneko enpresei ahalegin espezifiko batzuk eskainita. Ahaleginon bidez, balioa eman behar zaio Interneten erabilerari, eta haren aukerak eta alde onak ikusarazi behar dira, eraginkortasuna eta kostuen aurreztea handitzeko.



Iturria: Eustat, IGI-enpresak

- Bestalde, enpresen jarduera motari begiratuta, Interneten sartzeko maila handiagoa da industria-sektorean, oro har, zerbitzuen eta eraikuntzaren esparruetan baino. Hala ere, zerbitzuen sektorearen barruan, badira azpisektore batzuk (bidaia-agentziak eta -antolatzaileak, enpresa-zerbitzuetako enpresak, finantza-erakundeak...) % 95tik gorako Internet-ezarpena dutenak.

Aurkako muturrean, IKTak gutxien erabiltzeko joera duten sektoreak daude, hala nola garraio- eta biltegi- sektoreak, ostalaritza..., % 60tik beherako indize batzuekin.

Horren haritik, kontuan eduki behar da EAEko 10 langile baino gutxiagoko enpresa gehienak (mikroenpresak) zerbitzuetako esparru batzuetan daudela, hala nola ostalaritzan.

Internet erabiltzearen helburuak


Azken bost urtean, gora egin du, nabarmen, Administrazioarekiko izapideak egiteko enpresek Internet baliatzeak

- Nahiz eta badiren aldeak tamainaren arabera, ikusten da euskal enpresa gehienek Internet erabiltzen dutela: dokumentuak bilatzeko (% 97,1), banku- edo finantza-informazioa eskuratzeko (% 76,2), bankuekin izapideak egiteko (% 65,6) eta Administrazio Publikoarekin izapideak egiteko (% 61,4).

Distantzia handiagora dira Internet-erabilera txikiagoak ageri dituzten beste aplikazio batzuk: trebakuntza (% 45), ondasunak eta zerbitzuak erostea (% 19,6), langileak kontratatzea (% 17,4) eta ondasunak eta zerbitzuak saltzea (% 4,9).

- Bilakaera positibo bat ikusten da enpresa-Administrazioa harremanetako Internet-erabileran**, zeina aukera ona baita zerbitzu publiko digital berrien garapenean inbestitzeko.
- Estrategia batzuk definitu beharko dira **konfiantza eta segurtasun digitalak handitzeko**, eta horrek goraka datozen zerbitzuen eta zerbitzu digital berrien erabilera handitzea ekarri behar du berekin.

Interneterako sarbidea duten saltokiak, erabilera motaren eta tamainaren arabera. 2010 (Interneterako sarbidea duten saltokien gaineko %)




Iturria: Eustat, IGI-enpresak

Merkataritza elektronikoa

Bilakaera positibo bat ikusten da azken urteetan merkataritza elektronikoa egiten duten euskal enpresen kopuruan

- Interneten erosketak eta salmentak egiten dituzten euskal enpresak % 15 inguru ziren 2010ean. Datu hori **Europakoaren batez bestekoaren azpitik** dago; halere, eta krisia gorabehera, azken urteko joera, nahiz eta geldialdi bat izan duen, egonkorragoa izan da Euskadin, Europan baino.

Hobe liteke adierazle horren balioa, **Internetek enpresei (bereziki tamaina txikikoei) eskain diezaiekeena ezagutarazteko** ekintza batzuk garatuta.




Iturria: Eustat, IGI-enpresak

- **Bitarteko elektronikoen bidez erosten duten enpresak salmentak horrela egiten dituztenak baino askoz gehiago dira**, nahiz eta, zifra ekonomikoei begiratuta, salmenta elektronikoak erosketak baino aise handiagoak izan.

Nahiz eta bi datuen bilakaera positiboa izan den azken urtean, bien arteko aldeak esan nahi du badela hobekuntzarako txoko bat hor ere. Salmenta elektronikoko negozio-ereduak sustatuta erantzun dakiok, segurtasunean eta konfiantzan enfasi berezi bat egiten dela.

Merkataritza elektronikoa egiten duten saltokien bilakaera, transakzio motaren eta lan mailaren arabera (saltokien gaineko %)



Iturria: Eustat, IGI-enpresak

IKT sektorea

IKT sektorearen ekarpena

Urritu egin da, hein txiki batean, IKT sektoreak euskal ekonomiak sortutako aberastasunari egiten dion ekarpena


- Eskura ditugun azken datuen arabera, IKT sektoreak murriztu egin du 2009an EAEko BPGri egiten dion ekarpena; une honetan, % 3,1ekoa da ekarpen hori: Europako herri aurreratuenetakoa baino apalagoa.

2009an jasandako beherakada gorabehera, ekarpen hori egonkorra izan da azken urteetan, nahiz eta IKT enpresak urritu egin diren 2006ko kopuruaren aldean, eta eragin negatibo bat ere nabaritu da enpleguan.

Bada **hazteko marjina bat** sektore horrentzat. Horrek sektorearen hazkundera ekarriko luke, eta BPGren hazkundera, IKT sektoreak beste batzuetan sortzen duen trakzioagatik.

Egungo krisi-egoera abagune egoki bat da hazkunderaren eta enpleguaren motortzat IKTak jartzen dituzten estrategiak sustatzeko eta garatzeko, teknologia horiek indartzea baita ekonomia onbideratzeko biderik egokiena.

IKTen sektoreak Euskal ekonomia osoari egindako ekarpena
 (enpresen %, enpleguaren % eta BPGren %)



Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

IKT sektorearen segmentazioa

Azken urteetan, hazkunde handi bat izan da IKTeako zerbitzu informatikoen eta handizkako merkataritzaren azpisektoreek enpleguari egiten dioten ekarpenean, gainerako azpisektoreena baino handiagoa izan baita

- Aipatu azpisektoreek ekarpen nagusi bat dute IKTen sektorea osatzen duten jardueren multzoan; sektorearen % 44,5 eta % 41,44 sortzen dute, hurrenez hurren. IKT ondasunen fabrikazioa eta telekomunikazioak azpisektoreek, aldiz, ozta-ozta osatzen dute euskal IKT establezimenduen % 6.


Hazkunde handieneko sektoreen traxzio-efektua indartzeko estrategiak garatzeko aukera sortzen da.

1.3 ZERBITZU PUBLIKO DIGITALAK

e-Administrazioaren erabilera

Bilakaera positibo bat ikusten da Administrazio Publikoarekin harremanak izateko herritarrek eta euskal enpresek Internet erabiltzean; baita aipatu harremanen elkarrekintza mailan ere

- Esparru horretan, **Euskadi Europako (27EB) batez bestekoa baino gorago dago argi eta garbi**, Administrazioarekin harremanak izateko Internet darabilten 10 langiletik gorako enpresen ehunekoan.
- Herritarren mailan ere, Euskadi **maila bikainean** dago Europako (27EB) batez bestekoarekiko, Administrazio Publikoarekin zenbait eragiketa egiteko Internet baliatzen duten herritarren kopuruan:
 - Administrazioaren webguneetako informazioa kontsultatu: % 53,7
 - Inprimaki ofizialak deskargatu: % 37,4
 - Betetako inprimatuak bidali: % 33,7
- Egoera hori aukera ezin hobea da **beste zerbitzu publiko digital batzuk** garatzeko.



Iturria: Eustat, IGI-Familiak eta IGI-Enpresak


Zerbitzu publikoen eskaintza on line

Azken urteetan, joera positibo bat nabaritu da Euskadin zerbitzu publikoak on line eskaintzean eta eskuratzean

- 2010ean, zerbitzu publikoak on line eskuratzeko batez besteko aukera % 84koa izan zen Euskadin, bai enpresentzat, bai herritarrentzat, nahiz eta 4. etapako edo prestazio elektronikoko osoko zerbitzuen kopurua 17koa zen, hau da, zerbitzu guztien % 65,38 (26 zerbitzu aztertu ziren).

Bada oraindik **hobekuntzarako marjina** handi bat administrazio elektronikoen garapenean, bereziki toki-erakundeen mailan; laster garatuko da hori, eta horrek adierazleen hobetze nabarmen bat ekarriko du, zeren Administrazioaren eta herritarren arteko harreman gehienak udalerri mailan izaten baitira.

4. etapako zerbitzu kopurua edo erabateko prestazio elektronikoa Euskadin (Aztertutako zerbitzuen kopurua = 26)



Iturria: Orange 2011 Txostena

1.4 AZPIEGITURAK

Banda zabala etxebizitzetan

Internetera banda zabalaren bitartez sartzeko gero eta joera handiagoa ikusten da etxebizitzetan azken urteetan, eta hazkunde garrantzitsua 2010ean

- 2010 hondarrean, Euskadik **maila bikaina** zeukan, Europako (27EB) eta Estatuko batz bestekoaren gainetik baitzegoen.


Euskal etxebizitzetan % 63k banda zabaleko konexioa dauka Internetekin. Halere, hobekuntza-marjina handi bat sumatzen da esparru horretan: sare ultrabizkorrak hedatuta irits liteke hura, eta tarifak merkatuta.

Banda zabala enpresetan


- Internetera banda zabalaren bitartez sartzeko joera nabarmenki handiago bat ikusi de euskal enpresetan 2005 eta 2008 bitartean, baina **gelditze** bat gertatu da azken urte horretan.

Euskadi **Europako (27EB) batez bestekoaren maila berean** dago, eta EBko bost herri aitzindarien batez bestekoa (% 91) baino pitin bat beherago. Finlandian du banda zabalak sartze mailarik handiena enpresetan (% 96).

Bada oraindik **zer eginik** esparru horretan. Belaunaldi berriko azpiegiturak hedatuz egin liteke.



Iturria: Eustat eta Europako Batzordea



Iturria: Eustat eta Europako Batzordea

Banda zabala eta NGA sareak

- EAEko estaldura-eskaintzaren egoeraren azterketatik ondoriozta daitekeenez, ia udalerrri guztiek daukate banda zabal finkoa. Zehazkiago esanda, biztanleriaren % 94,2 bizi da estaldura hori daukan guneeetan. Gainerakoa gune zurietan bizi da, hau da, operadorerik hedatuta ez dagoen guneeetan, eta ez da aurreikusten hurrengo hiru urtean egongo denik.
- NGA sareei doakienez, EAEko biztanleriaren % 88 sare mota horiek diren biztanle-entitateetan bizi da. NGA sareak (Next Generation Access networks) 30 Mbps-tik gorako abiadura eskaintzen duten sareak dira.

ABIAPUNTUKO EGOERAREN LABURPENA AGENDA DIGITAL 2015EN HASIERAN

Herritarrak

IKTen sartzea

- IKTek euskal gizartean azken urteetan izan duten **hedapena gero eta handiagoa izan da, baina apala.**
- **Hobekuntzarako aukerak**, bai belaunaldi berriko azpiegituren hedapenaren eta eskuragarritasunaren bitartez, bai tarifa merkeago batzuen bitartez
- Etxebizitzetan banda zabala erabiltzeari dagokionez, **Euskadi kokapen bikainean dago**

Biztanleria erabiltzailea

- **Etengabeko aurrerakada Internet** euskal herritar guztiengana **zabaltzeko bidean**
- **Eten digitalaren hobetzea** Interneten erabilera, bai adinaren arabera, bai jardueraren arabera
- **Hobekuntza-aukerak**, bazterturik gelditzeko arriskua duten taldeetan

Internet erabiltzearen helburuak

- Euskal biztanleriak **guxiegi erabiltzen du sarea.**
- **Hobekuntzarako marjina** handia **dago zerbitzu digitalen** erabilera.

Enpresa

IKTen sartzea

- **Bilakaera positiboa**, euskal enpresek informazioaren gizartean duten sartze mailan
- **Geldialdia, Interneten eskuragarritasunean** azken urtean
- **Hobekuntzarako marjina** handia: belaunaldi berriko sareen hedapen orokorraren eta tarifen egokitzearen bitartez
- Informazioaren gizartearen **garapen maila desberdina** enpresetan, tamainaren eta jarduera-sektorearen arabera
- Internet daukaten 10 langiletik gorako euskal enpresen kopurua **Europako (27EB) batez bestekoaren gainera dago**

Internet erabiltzearen helburuak

- Azken bost urteetan **gora egin du**, nabarmen, administrazioarekiko izapideak egiteko enpresek Internet baliatzeak.
- **Zerbitzu publiko digital berriak** garatzeko aukera
- **Konfiantza eta segurtasun** digitala handitzeko estrategiak zehazteko beharra

Merkataritza elektronikoa

- Merkataritza elektronikoa egiten duten enpresak **asko hazi dira** azken urteetan, baina Europako batez bestekoaren azpitik.
- **Alde handia, Interneten erosten duten eta beren salmentak on line egiten dituzten euskal enpresen artean**

Enpresa (kont.)

IKT SEKTOREA

IKT sektorearen ekarpena

- **Azken urtean, urritu egin da, hein txiki batean, IKT sektoreak** euskal ekonomiak sortutako aberastasunari egiten dion **ekarpena** (BPGren % 3,1): Europako herri aurreratuenen azpitik
- **Hazkundearen** eta enplegua sortzearen **motorizat IKTen** alde apustu egiten duten estrategiak sustatzeko eta garatzeko aukera

IKT sektorearen segmentazioa

- Hazkunde handia, azken urteetan, **IKTetako zerbitzu informatikoen eta handizkako merkataritzaren** azpisektoreek enpleguari egiten dioten ekarpenean
- Aipatu azpisektoreen partaidetza nagusia, IKT sektorea osatzen duten jardueren multzo osoan
- Hazkunde handieneko sektoreen **trakzio-efektua indartzeko** estrategiak garatzeko aukera sortzen da

Zerbitzu publiko digitalak

e-Administrazioaren erabilera

- **Bilakaera positiboa** ikusten da Euskal Administrazio Publikoarekin harremanak izateko herritarrek eta euskal enpresek Internet erabiltzeari dagokionez
- **Euskadi maila bikainean dago** Europako (27EB) batez bestekoarekiko, Administrazio Publikoarekin harremanak izateko herritarrek eta enpresek Internet erabiltzeari dagokionez
- **Zerbitzu publiko digital berriak** garatzeko aukera

Zerbitzu publikoen eskaintza on line

- **Hobekuntzarako marjina**, administrazio elektronikoaren garapenean, bereziki toki-erakundeen mailan

Azpiegiturak

Banda zabala etxebizitzetan

- Internetera banda zabalaren bitartez sartzeko gero eta **joera handiagoa** ikusten da etxebizitzetan azken urteetan, eta hazkunde garrantzitsua 2010ean
- **Maila bikaina** 2010ean, Europako (27EB) eta Estatuko batez bestekoaren gainetik
- Bada **hobekuntzarako marjinarik** esparru horretan

Banda zabala enpresetan

- Internetera banda zabalaren bitartez sartzeko **hazkundera gelditu egin da**
- **Europako (27EB) batez bestekoaren antzeko maila**, eta EBko bost herri aitzindarien batez bestekoa baino pitiin bat beherago

Banda zabala eta NGA sareak

- **la udalerrri guztiek daukate banda zabala** (biztanleen % 94,2 bizi da estaldura hori daukan gunetan)

1.5 EUSKADIKO INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN AMIA ANALISIA

Arretaz aztertuz gero informazioaren gizarteak Euskadin dituen datu eta adierazle nagusiak, ederki ikus daiteke nolako aldaketak ari diren gertatzen euskal gizartean, nola dagoen Euskadi etorkizuneko erronkei aurre egiteko, nolako estrategia taxutu behar den informazioaren gizartearen gaian.

Jarraian, AMIA (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) matrize baten bitartez egindako analisiaren emaitzak erakusten dira.

A. Indarrak

- Europa hegoaldeko berrikuntza- eta lehiakortasun-polo nagusietako bat jotzen da Euskadi; Europako lehen eskualdeen artean dago kokatuta NBERen giza garapenaren indizean, eta oso datu positiboak eskuratzen ditu adierazle esanguratsu batzuetan: langabezia tasan, per capita errentan, BPGren hazkundean, I+G+Bko inbestimenduan eta teknologia berrien aldeko apustuan.
- Informazioaren gizartea garatzeko orain hamarkada batetik Eusko Jaurlaritzak egina duen apustu estrategikoa, lehenagoko beste plan batzuen hedapenean oinarritua.
- EIGP osatzen duten gobernu-plan ugari, informazioaren gizartea bultzatzeko estrategiekin, hala nola Enpresa Lehiakortasuneko Plana; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana, eta Berrikuntza Publikoaren Plana (BPP).
- Zerga- eta finantza-autonomia, eta araugintza- eta kudeaketa-ahalmena, zeinak estrategia independenteak ezartzen uzten baitu.
- Langileen kualifikazio maila handi bat, Euskadi baita egun goi mailako tituludun gehien duen europar eskualdeetako bat.
- Informazioaren gizarteak Euskadin azken urteetan izan duen bilakaera ona.
- Lehiakortasuna hobetzeko eta IKTen euskal sektorea sendotzeko elkarlana handitzen duten kluster batzuk.
- Azpiegiturak hedatzen uzten duten lurralde-ezaugarri batzuk.
- Administrazioarekin jarduteko herritarrek eta enpresek Internet gero eta gehiago erabiltzea.

B. Ahuleziak

- ETEek eta mikroETEek osatutako enpresa-ehuna, zeinak zailtasunak sortzen baititu IKTak sartzeko.
- Euskal IKT sektorea oraindik goraka dator.
- Inbestimendu urria zuntz optikoa garatzeko eta belaunaldi berriko sareak (Next Generation Networks, NGN) hedatzeko, nahiz eta haiek erroitik hobetuko lituzketen egungo sareen prestazioak.
- Internet-zerbitzuen eta edukien gehiegizko prezioa eta haietarako sarbide-kalitate apala.
- IKTek landa-inguruneetan sartzeko duten eta haiek erabiltzeko dauden zailtasunak, bai azpiegituren mailan, bai erabiltzaileen eta landa-enpresarien trebakuntzaren eta/edo jarreraren aldetik.
- Interneten eduki propioak produzitzen laguntzeko politika publikorik eza
- Eduki digitalen urritasuna.
- Koordinaziorako zailtasunak, esparru batzuetan, administrazioen artean.
- Administrazio publikoetako esparru batzuetan dagoen IKT kultura apala.

C. Aukerak

- Bada erreferentziako esparru estrategiko bat, informazioaren gizartea bultzatzeko plan nazionaletan eta europarretan oinarritua (Avanza 2 Plana, Europa 2020-Europako Agenda Digitala).
- IKTeen aldeko apustua: ekonomiaren hazkunderako motortzat hartzen baitira, beste sektore batzuetan sortzen duten trakzio-efektuagatik.
- Belaunaldi berriko sareen hedapen orokor baterako estrategia garatzea, sareok Interneten oso bizkor eta merke sartzen utz dezaten.
- Zerbitzu publiko digital aurreratuen garapenaren sustapena, «Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari» buruzko 11/2007 Legean oinarrituta, Eusko Jaurilaritzan eta toki-administrazioan administrazio elektronikoa ezarrita herritarren, enpresen eta Administrazioaren arteko harremanak indartzeko eta hobetzeko.
- Talde zehatz batzuetan inklusio digitala sustatzeko politikak bultzatzea, eten digitalak murrizteko helburuarekin.
- IKT sektorearen lehiakortasuna bultzatzea, sektoreko enpresetan berrikuntzako eta I+G+Bko inbestimenduak sustatuta.
- Biztanleria parte-hartzailea sustatzea, e-demokraziaren eta e-partaidetzaren garapenaren bitartez.
- IKT sektorea garatzeko belaunaldi berriko telebista elkarreragileak eskaintzen dituen aukerak ustiatzea.
- Trebakuntza-politikak sortzea, zenbait titulutan den urritasuna osatzeko, bai unibertsitatean, bai IKTekin lotutako lanbide-heziketan.

D. Mehatxuak

- Aurrekontu publikoetan eta inbestimendu pribatuan egungo egoera ekonomikoak duen eragina.
- Telekomunikazioen sektorean lehiakortasunik ez delako zantzuak.
- Industria-jardueren lehiakortasuna atxikitze gero eta zailtasun handiagoak, eta balio ukiezinaren sortze urria.
- IKTak jartzeko eta haietako joera berriak erabiltzeko herritarrek eta euskal enpresek ageri duten moteltasuna.
- Informazioaren gizartearen esparruan Europak ageri duen hazkunde handia
- Informazioaren gizartearen garapeneko erronka berrien aurrean irtenbide berritzaileak topatzeko gero eta zailtasun handiagoak.

AHULEZIAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ IKTak sartzeko diren zailtasunak, euskal enpresa-ehunaren osaeragatik ▪ Euskal IKT sektorea oraindik goraka dator. ▪ Belaunaldi berriko sareak hedatzeko inbestimenduen urritasuna ▪ Internet-zerbitzuen eta edukien gehiegizko prezioa eta hobe daitekeen sarbide-kalitate bat ▪ IKTek landa-inguruneetan sartzeko duten eta haiek erabiltzeko dauden zailtasunak ▪ Interneten eduki propioak produzitzen laguntzeko politika publikorik eza ▪ Eduki digitalen urritasuna ▪ Koordinaziorako zailtasunak, esparru batzuetan, administrazioen artean ▪ Administrazio publikoetako esparru batzuetan dagoen IKT kultura apala 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Aurrekontu publikoetan eta inbestimendu pribatuan egungo egoera ekonomikoak duen eragina ▪ Telekomunikazioen sektorean lehiakortasunik ez delako zantzuak ▪ Industria-jardueren lehiakortasuna atxikitzeko gero eta zailtasun handiagoak, eta balio ukiezinaren sortze urria ▪ IKTak jartzeko eta haietako joera berriak erabiltzeko herritarrek eta euskal enpresek ageri duten moteltasuna ▪ Informazioaren gizartearen esparruan Europak ageri duen hazkunde handia ▪ Erronka berrien aurrean irtenbide berritzaileak topatzeko gero eta zailtasun handiagoak
INDARRAK	AUKERAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Europa hegoaldeko berrikuntza- eta lehiakortasun-polo nagusietako bat jotzen da Euskadi. ▪ Esperientzia luzea informazioaren gizartearen garapenean ▪ Informazioaren gizarteak Euskadin azken urteetan izan duen bilakaera ona ▪ Zerga- eta finantza-autonomia, eta araugintza- eta kudeaketa-ahalmena ▪ Langileen kualifikazio maila handia ▪ Informazioaren gizarte bultzatzeko plan osagarri ugari ▪ Lehiakortasuna hobetzeko eta IKTen euskal sektorea sendotzeko kluster batzuk ▪ Azpiegiturak hedatzen uzten duten lurralde-ezaugarri batzuk ▪ Administrazioarekin jarduteko herritarrek eta enpresek Internet gero eta gehiago erabiltzea 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Erreferentziako esparru estrategiko bat ▪ IKTen aldeko apustua, ekonomiaren hazkunderako motortzat hartzen baitira ▪ Belaunaldi berriko sareen hedapen orokor bat ▪ Zerbitzu publiko digital aurreratuen garapenearen sustapena ▪ Talde zehatz batzuetan inklusio digitala sustatzeko politikak bultzatzea ▪ IKTen sektorearen lehiakortasuna bultzatzea ▪ Biztanleria parte-hartzaile bat sustatzea, e-demokraziaren eta e-partaidetzaren garapenearen bitartez ▪ IKT sektorea garatzeko belaunaldi berriko telebista interaktiboak eskaintzen dituen aukerak ustiatzea ▪ Trebakuntza-politikak sortzea, zenbait titulutan den urritasuna osatzeko, bai unibertsitatean, bai IKTekin lotutako lanbide-heziketan

I Zatia

Informazioaren gizartearen gaur egungo egoera Euskadin eta lerro estrategiko nagusiak
2. EIGP 2010: ikasitako ikasgaiak, ainguratze komenigarriak eta beharrezko berrikuspenak



2. EIGP 2010: IKASITAKO IKASGAIK, AINGURATZE KOMENIGARRIAK ETA BEHARREZKO BERRIKUSPENAK

Agenda Digital berriaren helburu generikoak iristeko, estrategia egoki batzuk formulatu behar dira. Horretarako oinarri sendo bat edukitzeko, honako hauek aztertu behar dira, aurreko planetik ikasitako ikasgaietatik eta hartan eragiten zuten faktoreetatik abiatuta: jadanik gainditutako mugarrak; indartu beharreko alderdiak, eta aurreikusi gabeko ekintzak behar dituzten eta hurrengo urteetan abiarazi behar diren alderdiak.

EIGP 2010 2008ko apirilean onartu zen. 2010eko abendura arteko iraupena zuen, nahiz eta 2011rako jarduera batzuk ere aurreikusten zituen luzatu beharreko proiektu batzuei erantzuteko: ekintza berrien hasierako bat-ez-etortzeak saihestu nahi ziren horrela, eta proiektuon gainean oinarritu nahi ziren etorkizuneko ekintzak.

EIGPk 12 helburu estrategiko iristea proposatzen zuen, eta jarduera-ardatz batzuen inguruan zeuden egituratuta helburuok.

Aldi horretan, bat-bateko aldaketa esanguratsu batzuk gertatzen dira Planaren inguruan, eta kontuan eduki behar dira hurrengo orientatzeko orduan:

- Mundu-ekonomiaren eta, beraz, euskal ekonomiaren aurreikusi gabeko ahultzea. Ondorio gisa, sortutako krisi- eta ziurgabetasun-testuinguruak eragin handia izan zuen politika publikoetan lehen urteetan.
- Eusko Jaurlaritzaren arduradun politikoek eta, beraz, informazioaren gizartearen arduradunen aldaketa zorrotza. Alde batetik, Jaurlaritzak Planarekin daukan konpromisoa atxikitzen da, ekintzaren tonuaren eta bizitasunaren gainean aipatu planaren berrirakurketa bat eginda, eta, bestetik, sailen ekimen berri batzuk agertzen dira, eragin handikoak, proiektu eta helburu batzuk benetan aldatzen dituztenak. Aurretiazko dinamika horretan (etengabea, egia esan, Planaren eraketan) oinarritu da berriaren hausnarketa.

Gogoeta horiekin, eta aurreko Planaren azteketan oinarrituta, honako balorazio hauek egin daitezke, bere garaian definitutako ardatzen, saiatutako helburuen eta abiarazitako proiektuen arabera.

ARDATZA: HERRITAR AKTIBOAK

- ***Erabilgarritasuna sustatzea***

Esparru horretan, EIGP 2010ek ezartzen zuen helburutzat EBko bost herri aitzindarietako bat-egitea iristea, bai Internet erabiltzen duen biztanlerian, bai ohiko erabiltzaileen mailan.

Nahiz eta adierazle horien egoera nabarmenki hobetu den Euskadin aurreko planaren hasieran zenarekiko, definitu zen helburua ez da iritsi: helburuaren formulazioan izan zen anbizio handiegiatik, segur aski.

- ***Erabilerraztasuna ziurtatzea***

Erabilerraztasunaren alorrean, helburua zen euskal etxebizitza gehienetan banda zabaleko sarbideak erabiltzea bultzatzea, behin banda zabaleko sarbidea Euskadiko biztanleria osoari bermatuta.

EIGP 2010 ezartzearen ondorioz, bete da helburu hori, eta, are, gainditu ere bai.

- **Inklusioa laguntzea**

Aurreko Planean, **inklusio digitala** laguntzeko helburua gauza batean zentratzen zen, oro har: lanean jarraitu behar zen, modalitate guztietako eten digitala estutzeko.

Halere, helburuaren formulazioan ez zen izan iritsi beharreko balioei buruzko definizio zehatzik, Europak gaiaz egiten zituen postulatuaren zain. Ildo horretan, geroztik ez da ezarri adierazle zehatzik horri dagokionez, eta inklusiorako diren oztupoak identifikatzea hobetsi da fenomenoari heltzeko bidetzat.

Talde zehatz batzuen eta bazterketa-arriskukoaren inklusiorako ekintzez bezainbatean, **KZgunea zentroen sarearen** kapilaritate-ahalmena eta zeharkako izaera erabili dira, aurreikusita zegoen bezala, trebakuntza-saio kontrolatu batzuekin. Sarearen malgutasun-ezaugarriak probatu dira, eta haren sarbide-ekitate, hedatze-gaitasuna eta erabiltzaile-asetasuna. Gainera, haren trebakuntza-ereduaren abantailak ustiatu dira, bai ikaskuntzarako, bai sentsibilizatorako nahiz esperimentaziorako.

- **Ikastetxeari laguntzeko sustatzea IKTen erabilera**

Hezkuntzarekin lotutako helburua aztertzean, batez ere IKTak ikastetxeari laguntzeko erabiltzeari dagokionez, oso bilakaera positiboa ikusten da; izan ere, 10 portzentaje-puntu egin du gora ordenagailuaren erabilpenak ikasgelan 2009-2010 ikasturtean, 2006-2007 ikasturteko datuekin konparatuta, eta aipagarria da, halaber, gorakada hori 15 portzentaje-puntukoa izan dela bigarren mailako irakaskuntzan.

Trebakuntza arautuari dagokion esparruan, berriz, PREMIA programekin eta «ikastetxearen heldutasun teknologikoaren eredu»-rekin abiatutako bideak **Eskola 2.0** programari eman dio bide, zeinak ordenagailu mugikorra, arbel digitala eta Internet-konexioa ekarri baititu berekin ikasgelako jarduerara lehen hezkuntzako azken bi mailetan eta DBHko hasierako bietan.

Haren hedapenaren agergarritzat, esan dezagun 2009-2010 ikasturtean irakaskuntzan erabilitako ordenagailuen % 51,8 aipatu programatik datorrela. Horri esker, ikasle/ordenagailu ratioa 8,5etik 5era jaitsi da.

- **Etengabeko trebakuntza indartzea**

Etengabeko trebakuntza indartzearen atalari dagokionez, Europarekin bat egiteko helburua oso modu arrakastatsuan iritsi da. 2006an, etengabeko trebakuntza-jardueretan ari zen biztanleria-ehunekoa 4,9 zen: Europako batez bestekoa (11) baino askoz apalagoa. 2009 heldu zenean, 25 eta 64 urte bitarteko euskal biztanleen % 13,5 ari zen etengabeko trebakuntza-jardueretan; Europako biztanleen artean, aldiz, % 9,6.

Helduen trebakuntzaren alorrean ere, Eusko Jaurlaritzak bide bera hartu du. Enplegurako trebakuntzari dagokionez Enplegu Zerbitzu Publiko berriak berekin dakartzan eskumenak hartuta, eta bizitza osoko ikaskuntzako etorkizuneko legearekin, ikaskuntza mota horren aldeko apustua indartzen du, eta, hor, IKTek eta on line formatuak gero eta garrantzi handiagoa dute.

- **Zerbitzu aurreratuen erabilera indartzea**

Zerbitzu aurreratuen erabilera indartzeari doakionez, EIGP 2010ek bilatzen zuen euskal herritarrek banku elektronikoaz egiten zuten erabilera bikoiztea, horixe baitzen esparru horretarako aukeratutako erreferentziako adierazlea. Nahiz eta ez den heldu ezarritako helburura, ikusi den bilakaera guztiz positiboa izan da: 16,7 portzentaje-puntuako hazkundera neurtu da adierazle horretan 2006ko datuarekin alderatuta.

Alabaina, IKTen garapenak izandako bilakaeragatik beragatik eta haien azken urteetan hartu duten bideagatik, adierazle horrek esangura galdu du zerbitzu aurreratuen erabilera neurtzeko orduan.

Arrazoi horregatik, beste alderdi batzuetan iritsitako lorpenak nabarmen daitezke; hala, EIGP 2010en garapenaren denboran, **Metaposta** zerbitzua ipini da abian, zerbitzu aurreratuen esparruan: Interneteko postontzia eta kutxa gotorra; doakoa, pertsona edo erakunde erabiltzaile guztientzat; eta **Metaposta, SA** elkartea eratu da, partaide publikoekin eta pribatuekin, haren zerbitzuak merkaturatzeko, igorleak ugaritzen utz dezan, eta bere eraginkortasuna hobeto dezan.

Megapostak abiatzean eskaini zuen oinarrizko biltegiatze-zerbitzuari dagokionez, garapen interesgarri batzuetarako urratsak eta diseinuak aurreikusten dira, eta horrek esan nahi du **Megapostaren** aukerak ugariak, berritzaileak eta eskalagarriak izan daitezkeela oraindik.

Bestalde, herritarren partaidetzaren alorrean, IX. legegintzaldiko Jaurlaritzak hainbat ekimen jarri ditu martxan, lehendik Planean sartuta ez zeudenak, hala nola **Irekia** eta **Open Ideiak**, eta bitarteko telematikoak erabiltzen dituzte guztiek harreman-euskarri nagusitzat.

ARDATZA: ENPRESA BERRITZAILEA

Ardatz horretan, nahiz eta aurrerakada handiak egin diren, hasieran ezarritako helburuak handiegiak gertatu dira punturik kritikoenei heltzeko orduan:

- **Autonomoen eta mikroenpresen eten digitalari erasotzea**

EIGP 2010ek helburu bat ezarri zuen, hau da, erdira murriztea autonomoek eta mikroenpresek (0 langiletik 2ra) EAEko establezimendu guztien batez bestekoarekiko zuten desbideratze-ehunekoa; ez da lortu betetzea, tarte horretan emaitzetan hobekuntza bat izan den arren: 6,5 puntukoa, hiru urtean.

Herritarrengan eta tamaina txikieneko enpresetan den eten digitala informazioaren gizartearen arazo bat da oraindik ere; iraupen luzeagoko prozesu batean heldu beharko zaio, eta Plan berrian jaso behar da.

Dena dela, talderik ahulenen (tamainarik txikieneko enpresak eta) egoera zuzentzeko asmo horrekin, EIGP 2010en bi ekimen jarri dira martxan; ekimen apalak, bai, baina hartzaile espezifiko horientzat egoki-egokiak:

- ✓ IKTetako trebakuntza intentsibo bat ETEen kudeatzaileentzat: **Barnetegi Teknologikoa** du izena.
- ✓ **MikroETEentzako IKT irtenbideak ezartzeko** programa bat

- **Sinadura digitalaren erabilera orokortzea**

Atal horretan, asmoa zen euskal enpresen % 50 baino gehiago sinadura digitalaren erabiltzaile izatea.

Egun, sinadura digitala erabiltzen duen euskal enpresen ehunekoa, nahiz eta hirukoiztu den 2006tik, ez da heldu ezarritako helburura; haren erabilera mugatua da oraindik ere, eta % 38ko balioa du.

Arrazoi horregatik, komenigarria da oraindik ere adierazle hori aurrerantzean erabiltzea; halere, datozen urteetarako beste helburu kuantitatibo bat ezartzeari begira, aitortu behar da sinadura digitalaren ezarpenak arazoak izan dituela esparru geografiko guztietan.

- **IKTen eta ikus-entzunezkoen sektore bat sendotzea**

BPGn eta enpleguan presentzia eta eragina handituko zituen IKTen eta ikus-entzunezkoen euskal sektore bat sendotzeko helburuari dagokionez, horri buruzko azken datuei begiratuz gero, ikusten da EIGP 2010 indarrean izan den urteetan IKTen sektoreak magnitude horiei egindako ekarpena ia-ia geldi egon dela, bilakaera positiborik erakutsi gabe; beherakada txiki bat ere izan du, azken urtean.

ARDATZA: ZERBITZU PUBLIKO DIGITALAK

Ardatz horren barruan, hiru helburu zehaztu ziren:

- **Zerbitzu publikoetan herritarrek sarbide elektronikoa izateko aukera**

Helburu hori herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak ezarritako moduan zegoen finkaturik.

Esparru horretan izan den bilakaera biziki positiboa izan da. Hala, aurreko Planaren garapenean, poliki-poliki, eskura diren zerbitzu publikoen % 15 jarri dira herritarren eskura, bitarteko elektronikoen bitartez, aipatu Legea betetzeko.

- **On line eskuragarri diren zerbitzu publikoen eskaintza sendotzea**

Esparru horretan, EIGP 2010en indarraldia amaitzean, iritsi da helburua, hau da, zerbitzu publikoen % 100 guztiz eskuragarri egotea on line biztanleentzat, enpresentzat eta erakundeentzat; i2010 ekimenaren barnean eta Europako Batzordearen adierazleetan zehaztutako oinarrizko 20 zerbitzuak aintzat hartuta, zehazki.

2013rako, honetan zentratzen da Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu elektronikoetako estrategiaren (Berrikuntza Publikoaren Planean dago jasota) oinarrizko ardatzetako bat: zerbitzuen % 100 jartzea eskuragarri kanal elektronikoen bitartez; zehazkiago, planaren helburua hauek bermatzea da: 3. mailako zerbitzuen % 100, herritarrekiko elkarrekintza elektroniko osoarekin; 4. mailako zerbitzuen % 60, izapidetze elektroniko osoarekin, eta 5. mailako 5 zerbitzu proaktibo.

- **Euskadi.net ataria Euskadin gehien bisitatzen diren hiru atarien artean jartzea**

EIGP 2010 indarrean izan den urteetan, Euskadi.net ataria webgunerik bisitatuenean sailkapenean agertu da etengabe, Eustaten estatistika ofizialen arabera.

Halere, IKTen beren garapagatik eta bilakaeragatik hein batean, Interneteko presentziaren ereduak aldaketa sakon bat izan du, eta, gaur egun, binorabidetasuna eta sare sozialen erabilera indartzerantz ari gara joaten, 2.0 inguruneek izan duten aurrerakada eta herritarren artean izan dituzten hedapena eta onarpena aprobetxatuta.

ARDATZA: EUSKADI SAREAN

Ardatz horrek helburu hirukoitz bat proposatzen zuen Euskadik Interneten daukan presentzia handitzeko; ezarritako helburuak hiru esparru nagusitan zentratzen ziren:

- Euskararen eta euskal kulturaren presentzia aberats, dinamiko eta jarraitu bat atxikitzea Interneten eta bitarteko digitaletan
- Euskal herritarrei esperientzia digital oso bat bermatzea euskaraz.
- Euskadik bisitariei eskaintzen dizkien turismo-aberastasunak eta -baliabideak ezagutaraztea

Nahiz eta ez zen zehaztu helburu kuantitatiborik haientzat, aipagarria da zenbait proiektu esanguratsu ipini zirela martxan benetan EIGP 2010 indarrean zen aldian; honako hauek, besteak beste: ondare kulturala babesteko eta gordetzeko digitalizazioa; kulturarako atari interaktibo bat (**Kulturklik**) sortzea; Interneten baliabide entziklopedikoak jartzea; euskaraz erabiltzeko tresna teknologiko batzuk jartzea, eta turismo-atari berri bat garatzea.

ARDATZA: INFOEGITURAK

Euskadi sarean ardatzaren kasuan bezala, Infoegiturenentzat ere ez zen ezarri izaera kuantitatiboko helbururik.

Halere, esparru horretan apustu indartsu bat egin zen garrantzi handiko proiektu batzuk garatzeko, eta haiek interakzio eta eragin handi bat izan zuten aurreko ardatzetako batzuetan eta, beraz, euskal gizartean.

Aurreko Planean hasitako proiektu nabarienei dagokienez, honako alderdi hauek aipa daitezke:

- Lurreko Telebista Digitalaren hedapenari doakionez, itzalaldi analogikoa eta LTDerako trantsizioa ezusterik gabe egin zen, eta ezarritako egutegiaren arabera.
- KZgunea zentroen sareak jarduera maila beti berdintsu eta iraunkor bat dauka denbora guztian. Biztanleria bere jakintza handituz doa, eta gero eta trebatuago eta prestatuago egon nahi du lan-merkatuko eskakizunei begira; aukera handiak ikusten ditu IKTetan, eta ikusmin handiagoa ageri du etengabe sortzen ari diren teknologia berrien aldera.

Europaraz, azken urteetan, aitortzen ari dira telezentroen lana eta inklusiorako haiek egiten duten sareko lanaren garrantzia.

- Eguneratze teknologikoko proiektu ugari finantzatu dira. Ildo horretan, GAITEKen laguntza-programaren bitartez eta 30 milioi euroko balioarekin, IKTetan oinarritutako zenbait proiektu lagundu dira euskal enpresentzat.

Eta, azkenik, **ERAKUNDEEN AGENDA DIGITALEN** esparruan, Eudelekin eta foru aldundiekin elkarlanean, euskal udalerrietarako egokitutako Tokiko Agenda Digitalaren metodologia diseinatu zen, eta hura egiteko aholkularitza-programa espezializatu bat abiarazi; bestalde, haren eraketa amaitu zen lehen fase batean udaletan, eta EISCO 2010 Batzar Europarra egiten lagundu, Bilbon, tokiko esparruko IKTekin eta Tokiko Agenda Digitalekin lotutako edukiekin.

Erakunde parte-hartzaileak 20 ziren fase pilotuan. Guztiek ere oso iritzi positiboa agertu dute ekimenaz, eta interes handia adierazi haren jarraipenean, behin tokiko agintaritzak programan onartuak izateko eskatzen hasi direnean.

Aldi berean, Euskadin egindako esperientzia sustatu da, beste eskualde batzuekin europar programa batzuetan elkarlanean jardunda, eskualdeok ere Tokiko Agenda Digitalaren eredia ezarri nahi baitute beren lurraldeetan.

I Zatia

Informazioaren gizartearen gaur egungo egoera Euskadin eta lerro estrategiko nagusiak
3. Euskadiko agenda digitala 2015en erronka nagusiak



3. EUSKADIKO AGENDA DIGITALAREN ERRONKA NAGUSIAK

Jakintzaren gizarteranzko bideak erronka batzuei aurre egitea dakar berekin. Jarduera-esparru horretan, Euskadi Informazioaren Gizartean Planak bide luzea du egiteko oraindik. Hona, jarraian, identifikatu diren erronka nagusiak:

- ***Ingurune aldakor eta inoiz aurkako bat egokiro kudeatzea***

Munduko ekonomia krisialdian murgilduta dago, eta horrek nabarmen mantsotu du azken urteotan bizi izandako oparoaldia. Ziurtasunik gabeko egoera hau indartuta ateratzeko aukera bat bihurtzeko gai izan behar da Euskadi, horrela hazkundearen eta ongizatearen bidera itzuli ahal izateko.

Horretarako, informazio- eta komunikazio-teknologiek protagonismo handia hartu behar dute, eta eraldaketarako palanka bihurtu behar dira, elementu dinamizatzaile gisa jokatu.

Alde horretatik, ICTak etengabeko bilakaera prozesu batean murgilduta daude, eta horrek aurretik ikusi ezin daitezkeen emaitzak ekarriko ditu. Bilakaera horrek, ondorioz, behar berriak eta negozio eredu berriak ekarriko ditu, eta gero eta zerbitzu aurreratu sofistikatuagoak garatu beharko dira. Zerbitzu berri horiek eragin argia eta zuzena izango dute erakundeen lehiakortasunean eta pertsonen ongizatean edo bizi kalitatean.

- ***Gizarte arloan kokatzen diren beharrei erantzutea***

IKTen aurrerapenak erronka berriak planteatzen ditu, eta erronka horiei erantzuteko ongi prestatutako herritarrak, teknologiaren ezagutza sakona dutenak eta partehartzaileak behar dira, eragin handiko zerbitzu digital aurreratuen erabilera gauza natural bat bezala ulertuko dutenak.

Ildo horretan, ICTak tresna ahaltsuak dira pertsonen garapen indibiduala, lan-arlokoa eta gizarte-arlokoa gauzatzeko, baina tresna horien erabilera eraginkorra zeregin gero eta konplexuagoa da, eta bilakaera teknologikoaren gorabeheren mende dago. Horregatik, bizitza osoko ikaskuntza-estrategia bat antolatu behar da, ICTen bilakaerak eskatzen eta errazten duena. Lehen alfabetatze digitala zena, orain etengabeko hezkuntza digitalaren curriculum bat bihurtzen da.

Herritarren eta enpresen parte-hartze aktiboa eta haien arteko interakzioa lortu ahal izateko erronka bat planteatzen da, besteak beste: sarea erabiltzeko orduan segurtasun maila handia bermatuko duten eta konfiantza sortuko duten elementu zehatzez hornitu behar da euskal gizartea.

Halaber, Agenda Digital honen barruan, Eusko Jaurlaritzak beste erronka bati ere aurre egiteko asmoa du; hau da: Jakintzaren Gizartean pertsona guztien e-inklusioa eta erabilerratasuna ziurtatzea, haien bizilekua edo egoera (landa eremua, adinekoak, mendekotasuna dutenak, ezinduak, etab.) kontuan hartu gabe. Horretarako, pertsonak trebatuko dira, eta zerbitzu digital malguak eskainiko, talde desberdinen beharretara egokituak.

- **Azpiegitura teknologikoak hedatzeari dagokionez aitzindaritzari eustea**

Identifikatutako behar berriak aseko dituzten zerbitzu digital aurreratuak eskaintzeko, ordea, ekipamendu eta azpiegitura berrienak eduki behar dira. EAEko telekomunikazio azpiegiturei dagokienez, azken urteotan aurrerapen nabarmena egin dela azpimarratu behar da.

Gaur egungo egoerak, Gobernuak teknologia berrienak eta jasangarriak ezarri eta hedatzearen alde egindako apustuarekin batera, zerbitzu digital aurreratuak sortzeko eta erabiltzeko oso aukera interesgarriak zabaltzen dizkie herritarrei eta enpresei. Hortaz, aukera hori baliatzeko sare ultrabizkor berrienak modu masiboan instalatu beharko dira, estaldura euskal lurralde osoan eta neurrizko prezioan ziurtatzen dela.

Halaber, herritarrei eta enpresei zerbitzuetara nonahiko sarbidea eta konektibitatea eskaintzea ere beharrezkoa deritzo Eusko Jaurlaritzak, edozein gailu eramangarri erabiltzeko aukerarekin.

- **Erronka teknologikoari erantzutea**

Azken urteotan benetako iraultza teknologikoa bizi izan da eta horrek errotik aldatu ditu euskal gizartearen bizitzeko, lan egiteko eta harremanak izateko moduak.

Testuinguru honetan, nazioarte mailan enpresa teknologiko nagusiek eta aholkularitza enpresa garrantzitsuenek aldizka beren analisiak eta azterketak partekatzen dituzte, IKTen sektorean etorkizun hurbilean jarraituko diren joera nagusiak zein izango diren aurreikusteko.

Gaur egun, jokaleku berri bat osatzen duten hainbat alderdi aipa daitezke, hala nola: komunikazioen bilakaera abiadura handiko banda zabalerantz, mugikortasunari dagokionez konektibitate azpiegituren gorakada, baita dagoeneko finkatuta dauden zenbait joera ere (hardwarearen birtualizazioa, *cloud computing* delakoa edo lanpostuaren ingurunearen bilakaera). Eta euskal gizarteak jokaleku berri horretan bizitzen ikasi behar du.

Nabarmen hazten ari diren beste teknologia batzuk ere badaude, eta etorkizun handia izango dutela dirudi, baina aditu gehienak bat datoz hiru joera azpimarratzeko orduan. Aditu horiek balioetsitakoaren arabera, aurrerantzean joera hauek finkatzen eta hazten joango dira.

Honako hauek dira joerak:

- ✓ **“Hodeia”**

Gaur egun *cloud computing* delakoa finkatzen ari da, eta adituek diotenez “hodeiak” dena estaliko du; beren kudeaketa optimizatzeko, eraginkortasuna hobetzeko eta kostuak minimizatzeko enpresek eta administrazioek dagoeneko egiten duten eta egiten jarraituko duten apustuak bat dela pentsatzen da.

Iragarpenek adierazten dutenez, teknologia horren erabilera esponentzialki haziko da datozen urteetan.

- ✓ **Mugikortasuna**

Gainera, gizartearen beharrak ere aldatu egiten dira: edonoiz eta edonon konektatuta egon nahi dugu. Gizarte digitalean, eskari nagusienetako bat nonahikotasunarena da.

Mugikortasunerako soluzioek onura handiak dakartzate; ez herritar xumearen erosotasunaren ikuspuntutik bakarrik; baita enpresen produktibitatearen aldetik ere:

batetik, bezeroei zerbitzu eta sostengu hobea ematea ahalbidetzen dutelako, eta, bestetik, lana erraztu eta langileen motibazioa handitzen dutelako. Langileek enpresaren baliabide eta aplikazio korporatiboak erabiltzeko aukera dute, nonahitik eta edonoiz.

Mugikortasuneko konektibitate-azpiegiturak garatzea eta sarean sartzeko gailu berrien etengabeko ugartzea oso faktore garrantzitsuak dira, eta mugikortasun-eskari gero eta handiagoa errazten eta bizkortzen dute.

Alor honetan, errealitate gehituak bizi duen hazkundea ere azpimarra daiteke, mundu errearen eta birtualki (gailu mugikorrek bereziki) sortutako informazioaren arteko interakzioa ahalbidetzen duen teknologiaren bitartez. Teknologia hori erritmo bizian zabaltzen ari da jendartean, eta haren aplikazioak ia mugagabeak dira: geokokatzea, informazio turistikoa, garraioak, bideo-jokoak, etab.

✓ **Komunikabide sozialak**

Komunikabide sozialen esparruan, sare sozialak tresna garrantzitsuenen artean kokatu dira; berak dira hedatuenak eta etorkizunean hazteko aukera gehien dutenak.

Azken urteotan, sare sozialek garapen handia eta erabilera masiboa izan dute, batez ere herritarren artean, baina orokortze hori enpresa-ehunera ere iristen ari da, enpresak teknologia horien erabilerak dakartzan onuren jakitun direlako.

Beraz, gero eta enpresa gehiago dira eskuarki «gizarte informatika» deritzonaren baitan aplikazio korporatiboak gehitzen dituztenak, hala nola berehalako mezularitza, sare sozialak, blogak, etab.


Erakundeentzat ere, tresna horiek onurak dakartzate, hala nola sare sozialen bidez bezeroekin, hornitzaileekin, langileekin eta beste talde batzuekin harremanak izatea, beren enpresa-kultura eta beren produktuak/zerbitzuak ezagutaraztea, beren irudia indartzea, etab.

Aipatutako teknologiez gain, beste esparru batzuetan hedatzen hasi diren garapenak ere garrantzitsuak dira; adibidez: hurbileko NFC teknologiak, mugikorrarekin ordainketak egin ahal izateko, eta, batez ere, IKT jasangarriak; azken hauek *Green IT* kontzeptuaren barnean sartzen dira, teknologiaren ingurumen-eragina gutxitzea bilatzen baitute, eta enpresentzat abantaila ugari dituzte, kostuak gutxitzeko, eraginkortasun energetikoa hobetzeko, etab.

Euskadi bere lekua hartzen ari da jokaleku berri horretan; baina, joera teknologiko berriak hedatzeari eta erabiltzeari dagokienez, lider bihurtu ahal izateko, lanean jarraitu behar da oraindik.

Horregatik, informazioaren gizarteko euskal estrategiak oso kontuan hartuko ditu, bere planteamenduan, joera berri horiek guztiak; haiek gizartean berrikuntza eta lehiakortasuna sustatzeko palanka gisa izan dezaketen egokitasuna aztertuko du, eta ekimenak garatuko ditu esparru horretan.

IKTetako joera nagusiak



Laburpen gisa, orain planteatzen den erronka nagusia alor digitalean euskal gizarte trebatu, lehiakor eta partehartzaile bat lortzea da. Hartara, informazioaren eta komunikazioen teknologietan oinarritutako zerbitzu aurreratuen erabilerak herritarren ongizate maila eta bizikaltatea nabarmen hobetzen lagunduko du, eta administrazio publikoak, enpresak eta gizarte erakundeak eraginkorragoak eta lehiakorragoak izango dira ingurumen jasangarri batean.

Helburu hori lortzeko, ordea, nahitaezkoa da herritarrek, enpresek eta erakundeek behar diren gaitasun digital aurreratuak eskuratzea, eta edukiak sortzen eta zerbitzu publiko eta pribatu aurreratuak eta berritzaileak eskaintzen lagunduko duten baliabideak edo infoegiturak (hitz honekin infostemen, azpiegituren, estandarren eta plataformen garapena biltzen da) edukitzea, betiere teknologia berrienak eta jasangarriak baliatuz.

I Zatia

Informazioaren gizartearen
gaur egungo egoera Euskadin
eta lerro estrategiko nagusiak
**4. Erreferentziako esparru
estrategikoa**



4. ERREFERENTZIAKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

Beste esparru geografiko batzuetan informazioaren gizartea bultzatzea

Euskadiko Agenda Digitalak ez du izan behar bakarkako bide bat, informazioaren gizartean eta IKTen arloan aitzindariak eta berritzaileak diren beste gizarte batzuetan gertatzen denaz kanpoko.


Garrantzitsua da informazioaren gizartearen esparruko joera eta estrategia nagusiekin lerrokatuta aritzea, dela agenda digitalaren planteamenduan, dela haren garapenean.

Ildo horretan, plan berria erreferentziako esparru estrategikoan kokatzen da, eta esparru estrategiko horren oinarriak zehazteko zenbait ekimen antolatu dira. Beharrezkoa da, beraz, oinarri horietan arreta jartzea. Ekimen nagusiak honako hauek dira:

- Mundu mailan: Informazioaren Gizarteari buruzko 2011 Foroa (Nazio Batuen munduko goi bileran)
- Europa mailan: Europako Agenda Digitala
- Estatu mailan: "Avanza2" plana (2011-2015 estrategia)

Hala ere, nahiz eta Euskadiko Agenda Digitala aipatutako ekimenera begira egon, haiengandik desberdina izango da, Euskadiko agendak orientazio praktikoa izango baitu, proiektu berritzaileak abian jartzeko asmoarekin. Proiektu konkretuak bultzatuko dira; informazioaren gizartearen eremuan gaur egungo Euskadiko errealitatean zuzenean aplikagarriak direnak, alegia.

Euskadiko Agenda Digitala 2015en erreferentziako estrategia-esparrua taxutzea



NBE: Informazioaren Gizartearen Munduko Goi Bilera – 2011 Foroa

Nazio Batuen batzar orokorrak informazioaren gizarteari buruzko munduko goi bilera (CMSI) antolatzea erabaki zuen bi fasetan: Lehen fasea Genevan egin zen, 2003ko abenduan, eta bi helburu zituen: batetik, borondate politikoaren adierazpen bat lantzea, eta, bestetik, pertsona guztientzat informazioaren gizarte bat eraiki ahal izateko oinarri bat jartzea. 175 herrialdetako 11.000tik gora partaide agertu ziren goi bilerara eta hari lotutako beste ekitaldi batzuetara.

Bigarren fasea Tunisian antolatu zen, 2005eko azaroan, eta Genevako Ekintza Plana abian jartzea erabaki zen. Hainbat esparrutan konponbideak bilatzeko eta akordioak lortzeko ahaleginak egin ziren, hala nola: Internet, gobernuak, finantza-mekanismoak, eta Genevako eta Tunisiako erabakien jarraipena eta inplementazioa. 174 herrialdetako 19.000tik gora parte-hartzaile bertaratu ziren goi bilerara eta beste ekitaldi batzuetara.

Goi bileraren azken foroa 2011ko maiatzean egin zen, eta, han, 2015era arteko ekintza-plana landu zen.

Emaitza gisa, honako 11 lerro hauek jarraitzea proposatzen da:

- C1. Gobernuen eta alderdi interesdun guztien zeregina garapenerako IKTen sustapenean
- C2. Informazioaren eta komunikazioaren azpiegitura bat sortzearen beharra
- C3. Informazioa eta jakintza eskuratzeko modua
- C4. Gaitasunen sustapena
- C5. IKTen erabileran konfiantza eta segurtasuna sustatzea
- C6. Ingurune gaitzailea
- C7. IKTen aplikazioak:
 - ✓ Ziber-gobernua
 - ✓ Ziber-negozioa
 - ✓ Ziber-irakaskuntza
 - ✓ Ziber-osasuna
 - ✓ Ziber-lana
 - ✓ Ziber-ekologia
 - ✓ Ziber-nekazaritza
 - ✓ Ziber-zientzia
- C8. Aniztasun eta nortasun kulturalak, aniztasun linguistikoa eta tokian tokiko edukiak
- C9. Komunikabideak
- C10. Informazioaren gizartearen faktore etikoak
- C11. Nazioarteko eta eskualdeko lankidetzak

Europako Agenda Digitala

2010eko martxoan, Europako Batzordeak Europa 2020 estrategia abiarazi zuen. Haren helburuak krisialditik ateratzea eta EBko ekonomia datorren hamarkadako erronketarako prestatzea dira.

Europa 2020 ekimenak hiru lehentasun elkarren sendogarri proposatzen ditu:

- **Hazkunde zentzuduna:** jakintzan eta berrikuntzan oinarritutako ekonomia bat garatzea.
- **Hazkunde jasangarria:** baliabideak modu eraginkorrago batean erabiliko dituen ekonomia bat sustatzea, ekologikoagoa eta lehiakorragoa
- **Hazkunde integratzailea:** enplegu maila handiko ekonomia bat sustatzea, gizarte- eta lurralde-koheretia dituen.

Hazkunderen eta enpleguaren aldeko gudu honek goi mailako politikarien kontzientziazioa eta Europa osoko eragile guztien mobilizazioa eskatzen ditu.

Lehentasunezko gai bakoitzeko aurrerapenak katalizatzeko, Batzordeak zazpi ekimen enblematiko proposatzen ditu:

- **«Berrikuntzaren aldeko batasuna»**, ikerketaren eta berrikuntzaren finantziatorako baldintza orokorrak eta sarbidea hobetzeko, eta ideia berritzaileak hazkundera eta enplegua sortuko dituzten produktu eta zerbitzu bihurtuko direla bermatzeko.
- **«Gazteria abian»**, hezkuntza sistemen emaitzak hobetzeko eta gazteei lan merkatu sarrera errazteko.
- **«Europako agenda digital bat»**, abiadura handiko Interneten hedapena bizkortzeko eta familientzat eta enpresentzat merkatu digital bakarrak dakartzan onurak baliatzeko.
- **«Baliabideak eraginkortasunez erabiliko dituen Europa bat»**, hazkunde ekonomikoaren eta bitartekoen erabileraren arteko korrelazioa hausten laguntzeko, karbonoaren isurpen maila apal atxikiko duen ekonomia baterantz aldaketa bultzatzeko, energia iturri berriztagarrien erabilera gehitzeko, gure garraio sektorea modernizatzeko eta eraginkortasun energetikoa sustatzeko.
- **«Politika industrial bat mundualizazio aro berrirako»**, enpresen ingurunea hobetzeko, ETEentzat bereziki, eta mundu mailan lehiatzeko gai izango den oinarri industrial sendo eta jasangarri baten garapena bultzatzeko.
- **«Prestakuntza eta lanbide berrien agenda»**, lan-merkatuak modernizatzeko, eta pertsonen autonomia indartzeko, haren gaitasunak hobetuz bizitzan zehar, horrela lan munduan parte-hartze handiagoa izan dezaten; eta lanpostuen eskaintza eta eskaria hobeto egokitzeko, batez ere lanpostuen mugikortasunaren bidez.
- **«Pobreziaren aurkako plataforma europarra»**, gizarte- eta lurralde-koheretia bermatzeko, hazkunderen eta enpleguaren onurak gehiago zabalak jaso ditzan, eta pobrezia eta gizarte bazterketa egoerak pairatzen dituzten pertsonak duintasunez bizi daitezzen, eta gizartean parte-hartze aktiboa izan dezaten.

Europa 2020 strategiaren baitan dauden zazpi ekimenen artean, Europako Agenda Digitala dago. Honako hau da Agendaren asmo nagusia: informazio- eta komunikazio-teknologiaren (IKT) erabilerak bete beharko duen funtsezko funtzioa definitzea, baldin eta Europak 2020rako dituen ambizioak gauzatu nahi baditu.

Agendaren helburua IKTen, eta bereziki Interneten, ahalmen ekonomiko eta soziala maximizatzea ahalbidetuko duen norabide bat marraztea da, jarduera ekonomiko eta sozialaren funtsezko euskarri gisa: negozioak egiteko, lanerako, jolasteko, komunikatzeko eta askatasunez mintzatzeko.

Agendak berrikuntza, hazkunde ekonomikoa eta enpresa nahiz herritarrentzat eguneroko bizitzaren hobekuntza sustatuko ditu.

Horrela, teknologia digitalen hedapen zabalari eta erabilera eraginkorragoari esker, Europak aurrean dituen erronka nagusiei erantzuteko gaitasuna izango du, eta europarrek bizi kalitate hobea izango dute.

Ondoko koadro honetan laburbiltzen dira haren jarduera-arlo eta ekintza-lerro nagusiak:

Europako Agenda Digitala. Jardun arlo eta ildo nagusiak

EKINTZA ARLOAK ETA LERROAK

MERKATU DIGITAL BAKARRA



- ✓ Edukietarako sarbidea irekitzea
- ✓ On line eta mugaz haraindi egiten diren transakzioak sinpletzea
- ✓ Mundu digitalean konfiantza sortzea
- ✓ Telekomunikazio-zerbitzuen merkatu bakarra indartzea

KONFIANTZA ETA SEGURTASUNA



- ✓ Konfiantza eta Segurtasuna

ELKARREKIKO ERAGINKORTASUNA ETA ARAUAK



- ✓ IKTetako arauen ezarpena hobetzea
- ✓ Arauen erabilera hobea sustatzea
- ✓ Elkarrekiko eraginkortasuna hobetzea, koordinazioaren bitartez

IKERKETA ETA BERRIKUNTZA



- ✓ Ahaleginak eta eraginkortasuna areagotzea
- ✓ Merkatu bakarra ustiatzea, IKTetako berrikuntza sustatzeko
- ✓ Industria buru duten berrikuntza irekiaren aldeko ekimenak sustatzea

IKTak ingurumenaren zerbitzura



- ✓ Osasun-arreta jasagarria eta IKTetan oinarritutako laguntza
- ✓ Kultura-aniztasuna eta eduki sortzaileak sustatzea
- ✓ Administrazio elektronikoa
- ✓ Garraio-sistema adimendunak

ALFABETATZEA, TREBAKUNTZA ETA INKLUSIOA



- ✓ Alfabetatze eta trebakuntza digitalak
- ✓ Zerbitzu digital inklusiboak

Avanza2 Planaren 2011-2015 estrategia

Estatu mailan, Avanza izeneko plana izan da Espainiako Gobernuak eta gizarteak informazioaren eta jakintzaren gizartearen garapenaren alde egindako lehen apustu orokorra. Aurrekontuei dagokienez, 2005 eta 2008 bitartean, Avanza planean 5.000 milioi euro baino gehiago bideratu zituen Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak Telekomunikazioetako eta Informazioaren Gizarterako Estatu Idazkaritzaren bitartez.

Avanza planaren barruan erdietsitako lorpenak finkatzeko helburuarekin, Avanza2 plana prestatu zen. IKTen erabilera intentsibo eta hedatuari esker susperraldi ekonomikoaren alde egitea zen plan berri horren helburuetako bat, jasangarritasuna eta energiaren aurrezpena bateratzen zituzten proiektuetan arreta berezia jarrita.

Testuinguru horretan, Avanza2 planaren erronka ez zen hainbeste eskaintza dinamizatzea (ordurako lortu baitzen, neurri handi batean), baizik eta eskaria sustatzea, eta sektore estrategikoetan espezializatutako eta beti ETEei laguntzeko prest den IKT industria propio bat garatzeko sektorea garatzea.

Avanza planaren lehen fasean Europar Batasunarekin alderatuta Espainiak zuen atzerapena berreskuratu nahi zen, batez ere estaldura eta konektibitateari zegokienez. Avanza2 planaren 2011-2015 strategiaren xedea, aldiz, hau da: IKT erako zerbitzu aurreratuen garapen eta erabilera Espainia lehen postuetan kokatzea.

Horretarako, Espainiak IKTen arloan gaintitu behar dituen 34 erronka zehatz identifikatu dira. Testuinguru horretan, Avanza2 planaren 2011-2015 strategiaren ahaleginak aurretik zehaztutako erronkak gaintitzen lagunduko duten 10 helburu zehatz lortzera bideratuko dira:

1. Herri Administrazioetan IKT erako prozesu berritzaileak sustatzea
2. Osasun zerbitzuetan eta gizarte ongizatean IKT teknologiak zabaltzea
3. Heziketan eta Irakaskuntzan IKT teknologien aplikazioa indartzea
4. Telekomunikazio sareen ahalmena eta hedapena hobetzea
5. Herritarren eta enpresen artean segurtasunaren kultura zabaltzea
6. Herritarren artean zerbitzu digitalen erabilera aurreratua igotzea
7. Enpresetan negozioerako IKT aplikazioen erabilera zabaltzea
8. IKTen sektorearen ahalmen teknologikoak garatzea
9. Eduki digitalen sektorea indartzea
10. IKT berdeak garatzea

Deskribatutako helburuak erdietsi ahal izateko, estrategia horrek honako ardatz eta lerro estrategiko hauek planteatzen ditu:

Avanza2 plana (2011-2015 estrategia). Ardatz nagusiak eta lerro estrategikoak

ARDATZ ETA LERRO ESTRATEGIKOAK

1. ARDATZA: AZPIEGITURAK

1. 1 Mbps-ko banda zabalaren zerbitzua orokortzea
2. Eraikinetako telekomunikazio-azpiegiturak sare ultrabizkorren eskakizunetara eguneratzea
3. Komunikazio-zerbitzuak hobetzea eta inbestimenduak sustatzea, dibidendu digitalaren bitartez

2. ARDATZA KONFIANTZA ETA SEGURTASUNA

5. Segurtasunaren kultura herritarrengana eta ETEetara zabaltzea
6. Pribatasuna modu orekatuan kudeatzea
7. NAN elektronikoaren, eta nortasun- eta sinadura -digitalaren erabilera zabaltzea.
8. Segurtasunarekin zerikusia duten gorabeherei modu proaktiboan erantzutea.

3. ARDATZA TREBAKUNTZA TEKNOLOGIKOA

9. Informazioaren gizartearen bazterkeria digitala jasateko arriskua duten herritarrak sartzeari (pertsonek helduak, ezintasunen bat dutenak, errenta txikiak, langabezia...)
10. Sarean genero-berdintasuna lortzea
11. Herritarren IKTen erabilera aurreratua zabaltzea
12. MikroETEak informazioaren gizartearen sartzeari
13. IKTak ETEen berrikuntzaren zerbitzura jartzea
14. Pertsonek juridikoen (publikoak eta pribatuak) IKTen erabilera aurreratua zabaltzea
15. Merkataritza elektronikoaren garrantzia handitzea
16. Kontratazio eta faktura elektronikoaren erabilera zabaltzea
17. Langileen trebakuntza eta etengabeko birziklatzea sustatzea
18. IKTen profesionalen trebakuntza sustatzea

4. ARDATZA EDUKI ETA ZERBITZU DIGITALAK

19. Eduki digitalen industria sendotzea
20. Jabetza intelektualaren eskubideen kudeaketa hobetzea
21. LTDaren interaktibotasunaren abantaila probetxua ateratzea
22. Sarean gaztelaniaren presentzia handitzea
23. Tokiko erakundeak sarbide-legera egokitzea erraztea
24. NAN elektronikoarekin lan egiten duten zerbitzuak garatzea
25. IKTek hezkuntzan duten garrantzia handitzea
26. Osasunarekin eta gizarte-ongizatearekin zerikusia duten zerbitzuak garatzea
27. Justizian IKTen erabilera sustatzea
28. Zerbitzu digitalen erabilerraztasuna erraztea

5. ARDATZA: IKT SEKTOREAREN GARAPEN INDUSTRIALA

29. Gobernu Irekiko eta administrazioaren zerbitzuak garatzea
30. Etorbizuneko Interneti erantzutea, IKTen arloa garatuta
31. IKT teknologia berdeak garatzea
32. IKT teknologia gizarte ongizaterako garatzea
33. Eduki digitalen balio-katearen teknologia-gaitasunak garatzea
34. IKTen sektorea nazioartekotzea sustatzea


Plan berria Eusko Jaurlaritzaren lerro estrategikoekin eta beste ekimen batzuekin lerrokatzea

Euskadiko Agenda Digitala 2015 informazioaren gizartea bultzatzen duen elementu nagusia izateko bokazioarekin sortu da, Euskadi jakintzaren gizarte bat bihur dadin, hazkunde jasangarria sustatuko duen gizarte kohesionatu bat, non erabakiak herritarren parte-hartze aktiboarekin hartuko diren; hori guztia, jakina, ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko, bai gizabanakoarentzat eta bai kolektiboarentzat.

Dena dela, ez da helburu bera duen ekimen bakarra, honekin batera Gobernuak beste plan osagarri batzuk abiarazi baititu. Ildo horretan, informazioaren gizarteari dagokionez, Gobernuaren plan edo estrategia hauek mugarriztatzen dute Euskadiren politika:

- **Garapen jasangarrirako estrategia Euskadin: EkoEuskadi 2020**, Lehendakaritzak koordinatua
- **Euskadi 2013 estrategia**, Ekonomia eta Ogasun Sailak koordinatua
- **Enpresa Lehiakortasuneko 2010-2013 Plana**, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak koordinatua
- **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana 2015 (ZTBP)**, Lehendakaritzak koordinatua
- **Berrikuntza Publikoaren Plana 2011-2013 (BPP)**, Herri Administrazioiko sailburuordetzak bultzatua

Gobernu-planen eskema eta haien arteko erlazioa



EkoEuskadi 2020: garapen jasangarrirako estrategia Euskadin

IX. legealdiari begira, Gobernuaren ekintza honen oinarrian dagoen ikuspegi estrategikoa Europar Batasuneko erakundeek identifikatutako planteamendu estrategikoen lerrokatzen da, Europa 2020 estrategiarekin zehazki, eta funtsezko helburu gisa jartzen du hazkunde jasangarria, hau da, jakintzan, ingurumenarekiko errespetuan eta gizarte aldakortasunean oinarritutako hazkundera, beste balio orokorrago batzuk ere barne hartuta, hala nola, parte hartzea, gardentasuna eta Euskadiko jarduera publiko guztien integrazio koherentea bilatzea.

Estrategia honen xedea Gobernuaren eta gainerako herri-administrazioen politika sektorial guztiak integratzeko plataforma bat eskaintzea da, herritarren parte hartze aktiboarekin herri proiektu bat zehazteko, bere iraunkortasuna (ekonomikoa, soziala eta ingurumenarena) bermatuko duen helburu, gidalerro eta oinarri multzo bat adostuz eta erreferentziak ezarriz, lortutako aurrerapenak aldizka neurtu ahal izateko.

Oinarrian dagoen ikuspegi nagusia «garapen jasangarriaren abangoardian kokatu behar den herrialde baten proiektuaren eraikuntzan aurrera egitea» da.

Azken finean, helburu estrategikoa Euskadi garapen jasangarriaren abangoardian kokatzea da; hartara, euskal gizartearen bizi-baldintzak (baldintza ekonomikoak, sozialak eta ingurumenari dagozkionak barne) modu orekatuan garatuz gero, Euskadik **bikaintasun-aitorpen bat** lortuko du.

Horretarako, erdietsi beharreko zenbait helburu eta landu beharreko zeharkako gaiak finkatzen ditu.

Erdietsi beharreko helburuak

1. **Jakintzan, sorkuntzan, lankidetzan eta gaitasunetan** oinarritutako **ekonomia berritzailea, ekintzailea eta teknologikoki aurreratua** bultzatzea.
2. Enplegua, hezkuntza, prebentzioa eta elkartasuna oinarri hartuta, **Euskadi erabat integratzaile eta kohesionatua** sendotzea.
3. **Gizarte babeseko sistemak** indartzea, garapen armoniko, osasuntsu eta bidezko bat bermatzen jarrai dezaten.
4. **Gure baliabide naturalak eta bioaniztasuna** babestea, lurraldearen, azpiegituren, ekipamenduen eta etxebizitzaren antolamenduari errespetuz eta modu orekatuan ekinez.
5. Erregai fosilekiko **mendekotasun energetikoa minimizatzea**, eta, ondorioz, negutegi efektua eta klima-aldaketa eragiten duten gasen isuriak murriztea.
6. **Mugikortasun integratu eredu jasangarriago bat** garatzea, herrialdearen barnea egituratzen lagunduko duena, eta kanpoaldearekin lotura lehiakorragoa izango duena.
7. **Kalitatezko hezkuntza-sistema eta balio-sistema** bat eraikitzea, helburua eskola-arrakastan jarrita, malgua eta heziketako eta prestakuntzako edukiei dagokienez lan merkatuak eta gizarteak bizitza osoan zehar ikasleari eskatuko dizkion lanbide prestakuntzetara egokitua, jasangarritasunaren alderdi guztiak barne direla.
8. **Herri Administrazio berritzailea, eraginkorra, eskuragarria eta herritarrekiko gardena** antolatzea.
9. Euskaditik milurtekoko helburuak betetzen laguntzea, eta, oro har, **herrialde txiroenen garapen jasangarria sustatzea**.

Zeharkako gaiak:

1. Jasangarritasunerako **berrikuntza eta jakintza**
2. **Gazteria** abian
3. **Enplegua** ekonomia global batean Condicionantes de **calidad de vida**
4. **Bizi-kalitatearen** baldintzatzaileak

Euskadi 2013 estrategia

Euskadi 2013 estrategia Eusko Jaurlaritzaren politiken erreferentziako esparru estrategikoa da, eta legealdirako aurrekontu-lehentasunak finkatzeko oinarritzko dokumentutzat hartzen da.

Estrategia hau hausnarketa-prozesu baten emaitza da, "IX. legealdirako plan eta jarduera esanguratsuen egutegia" agirian sartzen diren gobernu plan desberdinak lantzeko egiten diren gogoetekin lerrotatuta, eta Gobernuako Sail guztien parte hartze aktiboarekin osatua izan da.

Dokumentu horrek Gobernuak 2013rako dituen erronkak eta lehentasunezko jarduera-lerroak identifikatu eta formulatu nahi ditu. Horretarako, esku-hartze arlo garrantzitsuenak aukeratu dira; alegia, Gobernuaren ikuspegitik ezinbestekotzat jotzen direnak.

Dokumentua oinarritzko 5 zutabek egituratzen dute. Bertan, detektatutako erronkak eta aukeratutako lehentasunezko jarduera-lerroak zehazten dira. Jarduera-lerro horien barruan, hainbat adierazle esanguratsu agertzen dira.

Hona hemen bost zutabeak:

- **JAKINTZA:** pertsona prestatuak, ikasi ondoren herrialdearen aurrerapenean laguntzen dutenak
- **BERDEA:** klima aldaketaren aurkako borroka, horretarako, eraginkortasun energetikoa, energia berriztagarrien erabilera eta mugikortasun jasangarria baliatuz.
- **HAZKUNDEA:** enpresen lehiakortasuna ekoizpenaren eta enpleguaren palanka gisa.
- **ONGIZATEA:** Euskadin bizi diren pertsona guztien bizi-kalitatea bermatzeko; orain eta etorkizunean.
- **BALIOAK:** sendoak, komunak, partekatuak, hots, elkarbizitza demokratikoan, elkartasunean eta gizalegezko arduran oinarrituak.

Zutabe bakoitzak erronka bat, ardatz estrategiko batzuk, zenbait adierazle eta, azkenik, haiekin lotutako planak, jarduerak eta lege-proiektuak dauzka. Jarraian, laburki azalduta, definitutako bost zutabe horietako bakoitzarentzat, haren ardatz nagusiak erakusten dira:

1. Jakintza

- ✓ Oinarritzko gaitasunetan emaitzak hobetzea, jakintzaren gizartearen hastapenean
- ✓ Bizitza osoko ikaskuntza: pertsonak beren trebakuntzaren sustatzaile
- ✓ Unibertsitatea jakintzaren gizartearen zerbitzura
- ✓ Sormena, eta sormena osagai garrantzitsu bezala duten jarduerak, jakintzaren gizartearen euskarri
- ✓ Hiritartasun kulturala: kultura eskuragarri pertsona guztientzat
- ✓ Gizarte digitala: jakintzarako, lehiakortasunerako eta inklusiorako ezinbesteko baldintza

2. Berdea

- ✓ Energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna sustatzea
- ✓ Negutegi-efektua eragiten duten gas-isurketak gutxitzea
- ✓ Mugikortasun jasangarria bultzatzea

3. Hazkundera

- ✓ Enpresen lehiakortasuna: oinarri industrial sendoa finkatzea
- ✓ Ekonomiaren, gizartearen eta enpresa guztien nazioartekotzea
- ✓ Berrikuntza: produktu sofistikatuagoen bila
- ✓ Zientzia eta teknologiaren euskal sistema: lankidetzeta eta rol aktiboagoa Unibertsitatearentzat

- ✓ Jasangarritasuna eta gizarte aurreratuen premiei erantzutea, hazteko eta ikasteko aukera

4. Ongizatea

- ✓ Segurtasun-zerbitzua: hurbilagokoa, bizkorragoa eta eraginkorragoa
- ✓ Osasun-zerbitzu eredu eraginkorragoa lortzea
- ✓ Kalitatezko gizarte zerbitzuak euskal gizarte osoaren eskura, eta ekitatea zerbitzu horien erabileran
- ✓ Mendekotasunari erantzutea, osasun- eta gizarte-zerbitzuen arteko koordinaziotik abiatuta
- ✓ Pertsona ahulenen inklusioa gizartean, enpleguan oinarrituta
- ✓ Euskal lanbide-sistema publikoa, pertsona guztientzat enplegua bilatzeko
- ✓ Alokairuko etxebizitza eskuratzeko aukera, gizarte-kohesioaren zerbitzura

5. Balioak

- ✓ Elkarbizitza demokratikoa eta indarkeriari zilegitasuna kentzea
- ✓ Gizalegezko ardura eta lidergoa
- ✓ Elkartasuna, ekitatea eta inklusioa
- ✓ Gizarte eleaniztuna eta askotarikoa: euskara suspertzea
- ✓ Mundura irekita, elkarren artean konektatuta
- ✓ Gizarte ekintzailea, berritzailea
- ✓ Berdintasuna emakumeen eta gizonezkoen artean

Gainera, beste erronka bat gehitu zaio, Eusko Jaurlaritzak gidatzen duen Euskadi 2013 estrategiaren esparruan kokatzen dena:

Gobernua, Euskadi 2013 estrategiaren buruan

- Erronka: «gobernatze egokia», konprometitua eta herritarren zerbitzura
- Ardatzak:
 - ✓ Gobernu irekia eta gardena
 - ✓ Berrikuntza publikoa eta administrazio elektronikoa
 - ✓ Enplegu publikoaren kultura berria eta konpromisoa
 - ✓ Aurrekontuen egonkortasuna

2010-2013ko Enpresa Lehiakortasuneko Plana

2010-2013ko Enpresa Lehiakortasuneko Planak gidari izan nahi du Euskadi lehiakorragoa egiteko, eta aukera da jauzi ekonomiko eta soziala egin dezan; horri esker, Europako eskualderik dinamikoa, berritzaile eta lehiakorren artean koka dadin, herritarren bizi-kalitatea hobetzea bermatuta, gainera.

Euskadiko enpresen **ahalmen berritzailea** bultzatzea du xedetzat, baita sektoreen, lurraldeen, teknologien, erakundeen eta pertsonen arteko **erlazioak** finkatzen laguntzea ere, **sinergiak** lortzeko eta horiei esker gero eta lehiakorragoak, nazioartekotutagoak eta globalagoak diren merkatuetara hobeto egokiturik jardun ahal izateko; hori guztia Euskadiko lehiarako oraingo abantailak, pertsonen trebakuntza, enpresen eta erakundeen eskarmentua aintzat hartuta, baita haren aktibo ukigarria eta ikuezinak ere, merkatu globalean lehiarako abantailak baliatzeko eta etorkizuneko **jarduera berriak** garatzeko **jakintzan**, **nazioartekotzean** eta **berrikuntza irekian** oinarriturik.

Lehiakortasun Planak oinarrian dituen balore hauek sustatzen ditu: espirtu ekintzailea, ahalegina, irimotasuna eta hobetzeko nahia, lankidetzaz; bikaintasunerako, kalitaterako eta

zorroztasunerako zaletasuna; aldaketara eta mundurako irekitasuna, eta, pertsonen eta erakundeen erantzukidetasuna.

Ardatz eta lerro hauek osatzen dute plana:

EKONOMIA IREKIA

- A.1. Enpresak eta erakundeak babestea, ikuspegi globaletik jardun dezaten
- A.2. Inbestimendurako, talenturako eta turismorako eskualde erakargarriaren irudia helaraztea

TEKNOLOGIKOKI AURRERATUA DEN EKONOMIA BERRITZAILEA

- I.1. Enpresen gaitasun berritzailea eta sortzailea indartzea
- I.2. Balio erantsi handiagoko ekoizpenak bultzatzea, ikerketaren eta teknologiaren bidez
- I.3. Erreferentziako sareak eta azpiegiturak sendotzea berrikuntza arloan
- I.4. Erosketa publiko berritzailea

EKONOMIA JASANGARRIA

- S.1. Jasangarritasun-eskakizunak abantaila bihurtzea.
- S.2. Aurrezkia, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriaren ekoizpena bultzatzea

LERRO HORIZONTALAK

- H.1. Euskadiren lehiakortasuna laguntzea, kudeaketa-bikaintasunetik
- H.2. Lankidetzak bultzatzea
- H.3. Enpresaren beharretara egokitutako finantzaketa bultzatzea
- H.4. Enpresa-lurzoruaren politika aktiboa garatzea
- H.5. Lehiakortasuna gidatzeko ekintzak
- H.6. Hornidura lehiatzeko baldintzetan bermatzen duten energia-azpiegiturak finkatzea

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2015 (ZTBP)

2015 ZTBPre azken helburua Euskadiko **hazkunde ekonomikoa, enplegua eta ongizatea** biziberritzea da, zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren bitartez balio erantsi handiagoko sortzen duten jarduerak bultzatuz.

ZTBPre bereizgarrien artean, hauxe nabarmendu behar dugu: Euskadiko enpresek merkatuko aukera globalei onura ateratzeko moduko potentziala duten munduko joera nagusietan oinarritutako fokalizazioa.

Nabarmendu behar dugu ZTBPk mundu digitalaren aldeko apustua egiten duela, merkatuaren fokalizazio-osagai gisa, eta horren osagarri dugu Agenda Digitala 2015.

Esparru estrategikoan, 2015 ZTBPk **bederlatzi helburu** desberdin proposatzen ditu; lehen bostak, nagusiki xede-profila dutenak, eta azken lauak, tresna-izaerakoak, erantsitako eskeman ikus daitekeen bezala.

Horietan guztietan, IKTek oso eginkizun garrantzitsua eta berezia dute enpresa-lehiakortasunean, zerbitzu publikoen hobekuntzan, gizarte-aldaketan eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen (ZTBES) egituraketan duten garrantziagatik.

Informazioaren gizartea balio handiko tresna da talentua erakartzeko eta atxikitzeko, lurraldea egituratzeko, eta, zientzia, teknologia eta berrikuntza hedatzeko.

Egoera horretan, helburu hauek osatzen dute planaren arkitektura estrategikoa:

1. Balio erantsi handiko sektoreetara eboluzionatutako enpresa-egitura bat, zeina zientzian, teknologian eta berrikuntzan egongo den oinarriturik

Produkzio-egitura berritzaileago bat iristea. Egitura horrek balio erantsi handiagoko produktuak eta zerbitzuak garatuko eta merkaturatuko ditu, eta produktuok eta zerbitzuok lehiakorak izango dira iraunkorki beren merkatuetan. Bestalde, enpresa gehiagok egingo dute berrikuntza sistematikoki, bai industria-sektorean, bai eta gainerako sektoreetan, zerbitzuen sektorean barne.

2. Merkatu globaletan aitzindari diren enpresa lehiakor eta berritzaileak

Berrikuntza eta teknologia baliatuta merkatu globaletan lehiatuko diren eta zenbait txokotan eta segmentutan aitzindari izango diren enpresak eta taldeak lortzea, eta beste produkzio-ehun batzuk garatzea zientzian eta teknologian oinarritutako sektoreetan.

3. Zerbitzu publiko eraginkorrak eta aurreratuak, zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren ekarpenari esker

Zerbitzu publikoen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzea, zientzian, teknologian eta berrikuntzan oinarrituta, eta tokiko merkatu sofistikatu bat eskaintzea, enpresa eta hornitzaile zientifiko-teknologikoentzat, eta berrikuntza-zerbitzuetaentzat, erosketara publiko berritzailearen bitartez.

4. Berrikuntza soziala erronka globalei aurre egiteko

Gizarte-berrikuntza bultzatzea, euskal gizartearen aldaketa-beharrei aurre hartzeko eta erantzuteko, eta ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-aukerak sortzeko.

5. Ekoizpen-sareari balioa ematen dion eta nazioarteko errekonozimendua duen zientziako eta teknologiko sistema

Bigarren belaunaldiko Zientzia eta Teknologia Sistema bat sendotzea, zeinak erronka ugari dituen aurrean orain: bere produktibitate zientifikoa eta teknologikoa handitzea; produktu, zerbitzu eta enpresa berrien formako balioa sortzen laguntzea, eta presentzia eta protagonismoa irabaztea nazioartean, gure enpresei lagun egiten diela.

Halaber, zeharkako hainbat osagai ere erantzen ditu:

1. Euskadi, talentu-polo aurreratu

Ahalik eta talenturik onena eskaintzea Euskadiri, ZTBk XXI. mendean dituen erronkei aurre egiteko; zehazki, maila handiko, jatorri desberdinetako eta bereziki gure Herriko arlo estrategikoetarako diziplina anitzeko trebakuntza duten ikertzaileak, teknologoak eta profesionalak ekarri eta atxikitzea.

2. Euskadi, lurralde egituratua

Lurralde erakargarri bat artikulatzea, azpiegitura eta zerbitzu aurreratuagoak dituen, eta eragile oso aktibo eta elkarrekin lotuen sare bat daukana, berrikuntza euskal ETE guztietara hedatzeko.

3. Zientzian, teknologian eta berrikuntzan buru-belarri sartuta dauden herri bat eta gizarte bat

Zientzian, teknologian eta berrikuntzan ditugun gaitasunen aitorpen bat erdiestea gure Herrian eta kanpoan, horrek zientziarako eta teknologiarako interesa pitz dezan herritarren artean, oinarritzko kontzeptu eta garapen zientifiko-teknologikoak ulertzen lagun dezan, gizartearen aitorpen handiago bat ekar dezan, eta bokazio zientifiko-teknologiko gehiago sor ditzan.

4. Finantzaketa-sistema berria

Berrikuntzaren finantzaketa-eredu berri bat taxutzea, zeinak balio-ekarpena lehenetsiko duen, ekimen pribatuaren partaidetza handiago bat ekarriko maila guztietan, eta arrisku partekatuko tresna berri batzuk izango bere baitan, Administrazioak, gero, egindako inbestimenduak kapitaliza ditzan.

Berrikuntza Publikoaren Plana 2011-2013 (BPP)

Berrikuntza Publikoaren Plana Eusko Jaurlaritzaren plan estrategikoa da Euskadiko herri-administrazioaren aldaketa sakona lortzeko; hala, xedea du herritarren eta administrazioaren arteko erlazio-eredu berri bat, zerbitzu-eredu berri bat ezartzea, zeinaren bidez administrazioek gizartearen premiei antolaketa arin, malgu, ireki batekin eta eraginkorragoa izateko teknologia berriak erabiltzen dituenarekin erantzuten dieten.

Planak kudeaketa estrategikorako tresna bihurtu nahi du, Euskadiko gizartean **publikoaren balioa legitimatzen** laguntzen duen herri-administrazio baterantz aurrera egiteko.

Eusko Jaurlaritzaren estrategia globalaren barruan sartzen da BPPa, eta Euskadi moderno baten eraikuntzan laguntzen du.

Planak aurrean dituen lehentasunezko erronkak honako hauek dira:

- Herritarren eta enpresen esku zerbitzu publiko elektronikoak jartzea, administrazio-kudeaketa eta -izapide guztiak Internet bidez egin ahal ditzaten.
- Herritarren **inklusio digitala** sustatzea, pertsona guztiak zerbitzu publiko elektronikoetan ekitatez sartu ahal izateko.
- **Antolaketa-aldaketa** sustatzea, elkarlanean gehiago aritzen den antolaketa baterantz eta sareko funtzionamendu baterantz aurrera eginda, herritarren premiei eta eskariei eraginkortasunez erantzuteko.
- Administrazioan **Gobernu Irekiaren** printzipioak bultzatzea: gardentasuna, parte-hartzea eta lankidetzeta.
- Administrazio berritzaile baterantz aurrera egitea, zeinak zerbitzuen kalitatea etengabe hobetzen duen eta politika publikoak sistematikoki ebaluatzen dituen.
- **Informazioko, zerbitzu teknologikoetako eta telekomunikazioetako sistema** modernoak eta eraginkorrak edukitzea, antolaketaren benetako premiekin lerrokatuta, eta kalitateko zerbitzu publikoak eskaintzeko esparruan balioa ematen dutenak.

Horretarako, Berrikuntza Publikoaren Plana ardatz eta lerro estrategiko hauetan egituratzen da:

1. ardatz estrategikoa: Administrazio elektronikoa

- 1. lerroa: Zerbitzu elektronikoak garatzea
- 2. lerroa: Administrazio elektronikoaren plataformaren bilakaera
- 3. lerroa: Araudiaren egokitzapena

2. ardatz estrategikoa: Administrazio irekia

- 4. lerroa: Interneteko presentzia-eredua hobetzea
- 5. lerroa: Herritarren arreta hobetzea
- 6. lerroa: Gardentasuna eta parte-hartzea areagotzea
- 7. lerroa: Administrazioen arteko lankidetzeta-esparru egonkorra garatzea

3. ardatz estrategikoa: Administrazio berritzailea


- 8. lerroa: Berrikuntzaren eta jakintzaren kudeaketa sustatzea
- 9. lerroa: Politika publikoak ebaluatzeko kultura sustatzea
- 10. lerroa: Kudeaketa-bikaintasunaren esparru bat garatzea
- 11. lerroa: Antolaketa eta giza baliabideak

4. ardatz estrategikoa: Berrikuntza teknologikoa

- 12. lerroa: Sistema korporatiboen bilakaera
- 13. lerroa: Azpiegitura teknologikoak modernizatzea
- 14. lerroa: IT kudeaketa-ereduaren definizioa

Jarduera-esparru horretan, Euskadiko Agenda Digital berriarekin batera aurretik azaldutako gobernu-planak ere izango dira; horregatik, haien ikuspegi osagarria eduki behar du, informazioaren gizartearekin oinarritua, eta horien arteko hainbat lotura-gune daudela.

Informazioaren gizartearekin zerikusia duten gobernu-planen arteko lotura-elementuak



Beste elkarrekintza-esparru batzuk

Aipatutako gobernu-planeraz gainera, euskal gizartearen lehiakortasun handiagoa eta, jakintza eta teknologietan oinarrituriko hazkunde handiagoa lortzeko, Agenda Digitalarekin lotura handia duten beste esparru batzuk ere badaude, lankidetzako eta elkarrekintzako esparru estua edukitzea exijitzen eta laguntzen dutenak.

Horrela, Informazioaren eta Jakintzaren Gizartean aurrerapen esanguratsuak lortzen lagundu behar duten ekimen nabarmen batzuk alde batera utzi gabe, duten eragin sozialagatik, garatzen ari diren jarduerak batzuk nabarmendu behar ditugu; honako esparru hauetan, adibidez: hezkuntza (Eskola 2.0 erreferentziako proiektuekin, esaterako), etengabeko trebakuntza edo ikaskuntza (Lanbide), edo osasun-zerbitzuen esparruan, laguntza-kalitatea eta ongizatea hobetzeko proiektu berritzaileekin (Telelaguntza, O-sarean, etab., adibidez).

Era berean, Lehendakaritza buru duen gardentasunerako, komunikaziorako eta parte-hartzerako Gobernu Irekiaren proiektua (IREKIA) ere aipatu behar dugu.

Atal honetan azaldutakoa gorabehera, modu argiago batez ikusiko da planaren II. zatian Euskadiko Agenda Digitala 2015ek Europako eta Estatuko estrategiekin, gobernu-planekin eta informazioaren gizarteko bestelako ekimen garrantzitsu batzuekin duen bat-etortzea; izan ere, zati horretan ardatz estrategiko bakoitzean aurreikusitako jarduerak-lerroen, programen eta ekimenen deskribapen zehatza dago, erreferentziako esparruan azaldutako ekimen estrategikoekin dauden lotura-guneak eta osagarritasunak nabarmenduta.

I Zatia

Informazioaren gizartearen gaur egungo egoera Euskadin eta lerro estrategiko nagusiak
5. Euskadiko Agenda Digitala 2015en planteamendu estrategikoa



5. EUSKADIKO AGENDA DIGITALA 2015EN PLANTEAMENDU ESTRATEGIKOA

Euskadiko Agenda Digitala 2015ek planteamendu berritzailea eduki nahi du, betiere aurreko planetatik hartutako irakaspenak baztertu gabe; horretarako, baina, 2010 EIGPrako ezarritako ikuspegiaren bilakaera natural hutsetik harago joan behar du.

Honako hau da Euskadi Informazio Gizartean Plan berriak datozen urteetan izango duen abiapuntuko ikuspegia.

EIGP 2002 – 1.0 Eredua	EIGP 2010 – 2.0 Eredua	AD15 – 3.0 eredua
<p>Informazioaren gizarterantz ibiltzea</p> <p>Herritarra erabiltzaile gisa</p> <p>Eten digitalaren aurkako borroka</p> <p>Garatzen ari diren informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera orokorraren aldeko apustua egiten duen etorkizunerako oinarriak sortzea</p> <p>Plan bat garatzen duen gobernu bat</p> <p>Komunikazio-ekintzak</p>	<p>Parte-hartzearen gizartea kontzeptua ezartzen du</p> <p>Herritar aktiboa, parte-hartzailea</p> <p>Egunero erabiltzen duen teknologiaz inguratutako oraingo gizartetik teknologia-kultura batera</p> <p>Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak Euskadin: etengabeko bilakaeran dagoen oraina dira</p> <p>Parte-hartzea sustatzen duen gobernua: informatuz, entzunez eta elkarrizketari esker erantzunez</p> <p>Komunikazio Plana</p>	<p>Zerbitzu aurreratuen ohiko erabiltzailea den gizartea</p> <p>Gaitasuna duen herritarra, oso parte-hartzailea</p> <p>Jauzi esponentziala egiten duen eta teknologia-esparruko erreferentzia bihurtzen den gizartea</p> <p>IKTen sozializazioa, Euskadiko enpresen lehiakortasunaren eta herritarren ongizatearen eta bizi-kalitatearen zerbitzuan</p> <p>Gobernu hurbila eta zerbitzu digital aurreratuen eta erabilerrazen hornitzailea, emailea, zeinarentzat eragileen eta interes-taldeen parte-hartzeak eta laguntzak funtsezko eginkizuna duten</p> <p>Komunikazio Plana eta euskal gizartearen esku dauden parte hartzeko tresnak</p>

2015 ikuspegia

Ikuspuntu berri hori funtsezko zutabe hauetan oinarritzen da, eta horiek, elkarrekin loturik, planaren ikuspegia osatzen dute:

- ***Gaitasuna duen gizartea, oso parte-hartzailea eta erantzukidea, zerbitzu digital aurreratuen eta eragin handikoen erabiltzailea***
- ***Berrikuntzaren eta jasangarritasunaren aldeko apustua egiten duen gizartea, IKTetan oinarritzen dena lehiakortasuna areagotzeko motor gisa***
- ***IKTen ahalmenak pertsonen bizi-kalitatea eta ongizate kolektiboa hobetzeko erabiltzen dituen gizartea***
- ***Guztiz lotuta dagoen gizartea, erreferentzia-eredua informazioaren gizartearen azpiegituren eta erabileren esparruan***

Ikuspegi hori lortzeko, bermatu behar da sistema funtzionamendu onaren berme diren hiru euskarritan kokatzen dela:

- Pertsona eta erakunde guztientzat gaikuntza teknologikoa eta gizarte-integrazioa eta -irisgarritasuna bultzatzea.
- Azken belaunaldiko azpiegitura seguruak, egokiak, erabilerrazak, merkeak eta ultrabizkorak erabilgarri eta elkarrekintzan daudela ziurtatzea.
- Konfiantza eta segurtasun digitala sustatzea.


Azken batean, 2015ari begira gaudela, Euskadi anitza, guztiz elkarlotua eta kohesio sendokoa lortu nahi dugu, informazioaren gizartearen arloan Europako erreferente gisa jarduten duena.

Horretarako, batetik, pertsona oso parte-hartzaileak behar dira, gauza direnak eta teknologia-gaitasun handikoak, zerbitzu aurreratuak erabiltzera ohituta daudenak, eta, bestetik, erakunde lehiakorrek, zerbitzu berritzaileak eta jasangarriak eskaintzeko asmoz negozio-eredua aldatzen dakitenak.

Azken belaunaldiko azpiegitura seguruek, gaitasun handikoez, erabilerrazak eta ultrabizkorak jasan behar dituzte zerbitzu digital aurreratu horiek.

Horrenbestez, pertsona guzti-guztien inklusioa eta irisgarritasuna sustatzen dituen lurralde gisa nabarmendu beharko du Euskadik, turismoaren eta euskal kulturaren baliabideen kokapena eta hedapena optimizatzeko konpromiso handia duen lurralde gisa; bertan teknologia horiek euskarritako funtsezko elementu dira, euskal gizartearen lehiakortasuna eta ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea bermatzeko helburuz.

Euskadi Informazioaren Gizartean Plan berriaren ikuspegia eta lerro estrategiko nagusiak



Ikuspegi horren garapena elkarrekin hertsiki lotutako lau ardatz estrategikoren inguruan egituratuta dago; horiek elkar laguntzen dute eta, haietatik abiatuta, beharrezko jarduerak hedatuko dira, dagozkien programetan gauzaturik.

Hona hemen ardatz horiek:

- **ERKIDEGO DIGITALA**


- ✓ Herritar parte-hartzaileek eta arduratsuek, gaitasun handikoek eta zerbitzu digital aurreratuak erabiltzera ohituek osatutakoa.
- ✓ IKTak gizarteratzea ezaugarri duena, jasangarritasunaren eta e-inklusioaren bermearen aldeko apustua eginda.

- **e-ENPRESA**, lehiakorra eta berritzailea, berrikuntzaren eta jasangarritasunaren aldeko apustua egiten duten negozio-eredu berriekin, merkatu berrietan balio erantsi handiko produktu eta zerbitzu aurreratuak eskaintzeko.
- **ZERBITZU DIGITAL AURRERATUAK**, administrazio berritzaile, garden, hurbil, irisgarri eta elkarrengile batek eskainitakoak, eta ezaugarritzat eragin handia eta balio erantsi handia dituztenak.
- Teknologiako eta telekomunikazioetako **AZPIEGITURAK** bermatzea, azken belaunaldikoak, sendoak, gaitasun handikoak, eskalagarriak, ultrabizkorrrak, irisgarriak, seguruak erabiltzaileentzat, eta jasangarriak, informazioaren gizartearen garapenarekin bat datozenak.

Ikuspegi estrategikoa informazioaren gizartearen hiru eragile nagusiren inguruan dago eraturta, eta horiek elkarreraginean daude funtsezko elementu baten bitartez: Interneteko azpiegituren bitartez.

Azaldutako eragile bakoitzak informazioaren gizartean sartzeko prozesu ezberdina izan du.

Agenda Digital berriaren esparruan Informazioaren Gizarteko eragile nagusien arteko harremanen eskema



Ardatz estrategikoak eta jarduera-lerroak AD15en esparruan

Lerro, programa eta ekimen ugari barne hartzen dituzten lau ardatz

Agenda Digital berriaren ikuspegia zuzenean lotutako lau ardatz estrategikoren bidez gauzatzen da; bertan, hainbat jarduera-lerro jasota daude eta, era berean, programa ugari ere biltzen dituzte. Azken horien barruan, zenbait proiektu edo ekimen jasoko dira, 2015era arte zehazten eta garatzen joango direnak.

Aurreko planean agertzen ziren proiektu edo ekimen batzuk kenduta (garrantzi edo izaera estrategikoetatik horiek jarraitu behar dira eta, haien garapena eta bilakaera optimizatu behar da), gehienak berriak dira, izenari nahiz kontzeptu-planteamenduari dagokienez.

Plan berrirako ezarritako ardatz estrategiko bakoitzean, lortu beharreko helburu hauek daude:

1. ERKIDEGO DIGITALA: gaitasun handikoa, oso parte-hartzailea eta arduratsua, zerbitzu digital aurreratuen eta eragin handikoen ohiko erabiltzailea

Helburua: Egiazko erkidego digital batean txertatutako gizartea lortzea, sarean arduraz, aukera-berdintasunean elkarreragiten duten pertsonak osatua; erkidegoak gaikuntza teknologiko handia du, eta gaitasun handikoa da eduki eta zerbitzu digital aurreratuak egunerokoan erabiltzeko zein, bereziki, horiek sortzen eta garatzen aktiboki laguntzeko.

2. e-ENPRESA: lehiakorra eta berritzailea

Helburua: Euskadiko enpresek, tamaina eta sektorea edozein direla ere, lehiakortasuna eta produktibitatea handitzen dituzten ingurunea bermatzea, baita negozio-eredu berriak garatzeko ere, betiere belaunaldi berriko IKTeekin bat etorrira, produktu eta zerbitzu aurreratuak eskaintzeko oinarri gisa, eta, estrategia berrikuntzan eta jasangarritasunean oinarriturik.

3. ZERBITZU DIGITAL AURRERATUAK ETA ERABILERRAZAK

Helburua: Euskadiko herri-administrazioak bertako herritarrei eta enpresei eragin handiko zerbitzu publiko digitalak, azken belaunaldiko IKTeetan oinarrituak, hornitzen dizkien jokalekua errealitate bihurtzea; zerbitzuok benetako premiei eta itzaropenei erantzun behar diete, eta gizartearen ongizatea eta bizi-kalitatea eta enpresa-ehunaren lehiakortasuna nabarmen hobetu behar dituzte.

4. AZPIEGITURAK

Helburua: Herritarrek, enpresek eta euskal administrazioek informazioaren gizartearen zerbitzu digital aurreratuarentako sarbidea abiadura ultrabizkorretan, segurtasun maila handiekin, prezio merkean eta edozein tokitatik (kanal ugariatik eta erabilgarri dauden gailuetatik) edukitzea bermatzea.

Azaldutako lau ardatz horiekin batera, ardatz gehigarri operatibo bat ere badago. Agenda Digitala 2015en Kudeaketa eta Sustapena du izena ardatz horrek. Ekimen horren bidez, berezko garrantzia eman nahi zaie plana kudeatzeko, koordinatzeko, komunikatzeko eta sustatzeko lanei.

Ardatz hori sortzen da, batetik, kudeatzeko eta koordinatzeko lanak hobetzen jarraitzeko beharra dagoelako, ardatzen artean informazioaren gizartearen elementuen zeharkakotasun-ahalmenari etekina ateratzearren, eta, bestetik, informazioaren gizarteak ekar ditzakeen proiektuak eta aukerak zabaltzeko eta komunikatzeko ekintzak egiteko, haren eragina handiagoa izan dadin.

Ardatz estrategikoen eta jarduera-lerroen eskema

Ondoren, Agenda Digital berriaren esparruan zehaztutako ardatz estrategiko bakoitzean heldu beharreko jarduera-lerro nagusiak azaldu ditugu:

ARDATZ ESTRATEGIKOAK	Jarduera ildoak
ERKIDEGO DIGITALA	<ol style="list-style-type: none"> 1. Gaitasun digitalak 2. Heziketa eta trebakuntza digital berritzailea 3. E-partaidetza 4. Etxebizitza digitala 5. Konfiantza digitala
e-ENPRESA	<ol style="list-style-type: none"> 6. IKT-Lan 7. Sareko negozioen eredu berritzaileak 8. IKT-en sektorearen lehiakortasuna garatzea 9. IKTak eta jasangarritasuna 10. Nazioartekotzea
ZERBITZU DIGITAL AURRERATUAK	<ol style="list-style-type: none"> 11. Gauzak errazten dituen administrazioa, hurbilekoa eta eraginkorra 12. IKT-etan oinarritutako sistema soziosanitarioak 13. Ardatza: euskadi sarean 14. Tokiko agenda digitalak
AZPIEGITURAK	<ol style="list-style-type: none"> 15. Azpiegiturak eta sare ultrabizkorak 16. Sarean segurtasuna eta konfiantza 17. Mugikortasuna eta zerbitzuetarako nonahiko sarbidea
AD15EN KUDEAKETA ETA SUSTAPENA	<ol style="list-style-type: none"> 18. Euskadiko Agenda Digitala 2015en kudeaketa eta sustapena

Halaber, lerro bakoitza hainbat programa zehaztuz egituratzen da; horien bitartez, asmoa da plana ezartzeko prozesua bideratzea, harik eta 2015ean bukatzen den arte. Programa horiek honako grafiko honetan zehazturik daude:

Ardatz estrategikoak – Lan-lerroak eta programak

ERKIDEGO DIGITALA

Argazki digitalak

1. Informazioaren gizartean trebakuntza arautzea
2. e-inklusioa

2. Heziketa eta trebakuntza digital berritzailea

3. Hezkuntza sistemak garatzea alor digitalean

3. E-partaidetza

4. IKTen bitartez partaidetze sustatzea

4. Etxebizitza digitala

5. Herritarrentzako erabilera aurreratuak
6. IKTen berrikuntza, ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko

5. Konfiantza digitala

7. Sarearen erabilera seguruari buruz dinamizatzea eta sentsibilizatzea

e-ENPRESA

6. IKT-Lan

8. Enpresan IKT kultura bultzatzea:
9. Enpresentzako IKT zerbitzuak garatzea

7. Sareko negozioen eredu berritzaileak

10. Enpresetan e-business direlako IKT estrategiak zabaltzea
11. IKTen oinarrituriko negozio-ereduak sustatzea

8. IKT-en sektorearen lehiakortasuna garatzea

12. IKTen sektorea profesionalizatzea
13. Living Labs direlako esturkturak indartzea
14. IKT sektorea sustatzea
15. IKT sektorea nazioartekotzea
16. Eduki digitalen sektorea bultzatzea

9. IKTak eta jasangarritasuna

17. IKT jasangarriak sustatzea
18. IKTen oinarrituriko ekimen jasangarriak garatzea

10. Nazioartekotzea

19. IKTen bitartez nazioartekotzea bultzatzea.

ZERBITZU DIGITAL AURRERATUAK

11. Gauzak errazten dituen Administrazioa, hurbilekoa eta eraginkorra

20. Zerbitzu elektroniko erabilerrazak garatzea
21. Gizarteari hurbiltzea eta gardentasuna sustatzea
22. Elkarrengingarritasuna bultzatzea

12. IKT-etan oinarritutako sistema soziosanitarioak

23. E-osasuna
24. Laguntza zerbitzuak informazioaren gizartean

13. Euskadi sarean

25. Zerbitzu turistiko berritzaileak
26. IKT kultur zerbitzuak

14. Tokiko Agenda Digitalak

28. Tokiko Agenda Digitalen garapena bultzatzea
29. Tokiko Agenda Digitala sustatzeko lanetan Euskadiren nazioarteko lidergoa bultzatzea.

AZPIEGITURAK

15. Azpiegiturak eta sare ultrabizkorak

30. Belaunaldi berriko sarbide-sareak zabaltzea eta hedatzea
31. Hodei konputaziora bideraturiko Euskadiko estrategia

16. Sarean segurtasuna eta konfiantza

32. Segurtasunaren Euskal Gunea sustatzea
33. Konfiantza digitala bultzatzeko zerbitzuak garatzea

17. Mugikortasuna eta zerbitzuetarako nonahiko sarbidea

34. Informazioaren gizartera mugikortasun bidezko sarbidea izatea bultzatzea.
35. Mugikortasuneko konektibitatea bultzatzea

AD15EN KUDEAKETA ETA SUSTAPENA

18. Euskadiko Agenda Digitala 2015 kudeatzea eta sustatzea

36. Euskadiko Agenda Digitala 2015 kudeatzea eta sustatzea

|| Zatia

Plana ekintza bihurtuta

1. Erkidego digitala



II. ZATIA: PLANA EKINTZA BIHURTUTA

1. ERKIDEGO DIGITALA

1.1 Aurkezpena

«Egiazko erkidego digital baten kide diren herritarrak, sarean erantzukizunez elkarrengaitzen dutenak eta teknologia-gaitasun handikoak direnak, bai eduki eta zerbitzu digital aurreratuak maiz erabiltzeko, bai haien sorkuntzan eta garapenean era aktiboan elkarlanean jarduteko»

Herritarrei dagokienez, urrats gehiago eman behar dira. Orain arte, Euskadin prozesu mailakatu bat gertatu da, xede zuena euskal herritarrak informazioaren gizartera gehitzea, haiek IKTen arloan motibatu eta gaituz.

Nahiz eta oraindik lana dagoen egiteke aipatutako kidetzea bermatu eta oraingo eten digitala txikiagotzeko, une honetan, norbanakoak arlo digitalean sartzetik harago joatea denez asmoa, euskal herritarrak egiazko erkidego digitalaren kide izatea da aurre egin beharreko erronka; izan daitezela liderrak arlo horretan.

Erkidegoa esaten denean, arlo digitalean elementu komunak partekatuko dituzten norbanako multzoa adierazi nahi da. Honakoak lirateke, besteak beste, elementu komun horiek: balioak, ikuspegia, baldintza berdinetan eskuratu ahal izatea zerbitzuak eta aukerak, ohiturak, kokapen geografikoa edota hizkuntza.

Euskadiko egungo egoerari dagokionez, Euskadiko etxeetan IKTek duten presentzia eta Interneten erabilera Europako batz bestekora hurbildu da azken urteotan. Ondorioz, gora egin du zerbitzu digitalak erabiltzen dituzten herritarren kopuruak. Hori dela eta, herritarren bizi-kalitatea eta ongizatea hobetuko duten zerbitzu berriak garatzea pentsatzen ari da Administrazioa.

Bestalde, eten digitala murriztu den arren, gizarte-bazterketako arriskuan dauden gizataldeen inklusio digitala hazten dela, oraindik ere badago zer hobetu arlo horretan. Beraz, beharrezkoa da ekimen berritzaile batzuk garatzea, euskal gizarteak hartutako inklusio digital osorako bidean aipatu gizataldeek ez dutela bide hori utziko bermatzeko.

Halaber, Interneten gero eta gehiago erabiltzen dira erabiltzaileak zeregin aktibo eta nabarmena izatera bultzatzen dituzten zerbitzuak, parte-hartze digitala dela medio. Web 2.0 izenarekin ezagutzen diren tresnak ugalduta, elkarlanak ezaugarritzen dituenak. Bada, horien bidez, herritarren arteko elkarrekintza eraldatze bidean da; herritarrak eduki digitalen sortzaile bihurtu dira, eta, horretarako, beharrezkoa da, abiadura eta ahalmen handiko konexioak edukitzeaz gainera, pertsonak arlo digitalean trebakuntza handiagoa izatea, zerbitzu berriak maiz erabil ditzaten, eta haien abantailak ahalik eta etekin handiena atera diezaieten.

Erabiltzaileek zerbitzu digitalen erabilera aurreratu egin dezatela lortzeko, segurtasun-kultura sortzea da gakoa; arlo digitalarekiko konfiantza maila handia izan dadila.

Bestalde, informazio- eta komunikazio-teknologia berrien bilakaera herritarren bizi-kalitatea hobetzeari mesede egingo dioten zerbitzu eta erabilgarritasun berriak garatzen ari da.

Gaur egun, nabarmen ari dira garatzen etxeko aplikazio teknologikoak. Horien bidez, etxeak adimendun bihurtzen dira, eta ongizate maila handia bermatzeko aukera ematen dute, aldi berean jasagarritasun, ekonomia eta praktikotasun arloen alde eginez.

Eusko Jaurlaritzak beharrezkoa deritzo egiazko erkidego digitala lortzera bideratutako oinarritzko hiru ardatzetan ahalegin bultzatzailea areagotzeari.

- Herritarren **sentsibilizazioa, trebakuntza** eta **gaitasuna** sendotzea arlo digitalean
- **Zerbitzuen erabilera aurreratua** bultzatzea
- **Parte-hartze aktiboa** sustatzea

1.2 Gaitasun digitalak

Euskadin, Europako herrialde askotan bezala, gizartearen zati handi bat dago Internet sekula erabili ez duena.

Gizatalde horren kide dira, normalean, adinez nagusiak, errenta txikikoak, langabeak eta/edo kultura-maila txikikoak.

Egoera hori, oro har, erabiltzailearen gaitasunik ezaren ondorioz gertatzen da; ezin ditu erabili, behar beste konfiantzarik ez duenez, zerbitzu eskuragarri berriak baliatzeko behar diren bitarteko digitalak.

Bestalde, zerbitzu digitalen erabilerraztasuna eta erabilgarritasuna ere aintzat hartu behar dira, ezintasunen bat duten herritarrei traba gehiago ez jartzearren. Hala, aipatutako eten digitala desagerraraztera ahaleginak bideratzea, gizarte-egoera ahulean dauden kideek parte-hartze handiagoa izateko lagungarri gertatu daiteke, gizarte digitalean berdintasuna areagotuz, egoera ahuletik irtetea bultzatuz eta, aldi berean, beren bizi-kalitatea, hala nola, enplegarritasuna hobetuz.

Informazioaren eta ezagutzaren egiazko gizarte osoa lortzeari begira, honako hauek izan behar dute herritarren oinarritzko trebakuntzaren osagai: herritarrek IKTen gaineko ezagutzak bereganatzea, eta ezagutzok teknologiak aurrera egin ahala modu jarraituan eguneratu ahal izatea.

Bestalde, jarduera-esparru horren barruan, Europako Agenda Digitalak garrantzi berezia eskaini dio gaikuntzari, alfabetatzeari eta inklusio digitalari, hala nola IKTen arloko profesionalen eta erabiltzaileen gaitasunak hautemateko eta ezagutzeko tresnak garatzeari.

Hala, herritarren ezagutza teknologikoen egiaztapena sustatzea eta horretarako trebakuntza bultzatzea denez Europa mailako joera, Euskadiko Agenda Digitala 2015ek horren alde egin du. Ondorioz, gaitasun digitalak eskuratzeko prozesua zein horien ebaluazio eta ezagutza edo egiaztapena zehaztuko duen eredia ezarriko da.

Euskadiko gaitasun digitalei balioa ematea da xedea, tresna horrexen bidez lortuko baita informazioaren eta komunikazioaren gizarte oso eta aukera berdineko bat. Horretarako, Europako esparruarekin bat datorren gaitasun-esparru komuna garatu beharko da.

Deskribapena

Agenda Digital berriaren jarduera-lerro horren arabera aurreikusi da, Informazioaren Gizartearen arloari dagokionez, herritarrak gaitzeko prozesua normalizatzen bideratutako ekimenak garatzea. Era berean, haien gaitasun digitalak sendotu eta egiaztatu nahi dira, hala nola IKTen erabilera dinamizatu euskal gizartearen, gizarte-egoera ahulean dauden gizataldeen inklusio digitala bermatuz.

Helburuak

Hona hemen arlo horretan lortu nahi diren helburu nagusien gaineko xehetasunak:

- ✓ Gaitasun digitalen gaineko Europako esparrua ezagutaraztea, eta hura Euskadin ezartzea sustatzea
- ✓ Gaitasun digital gutxiko kolektiboen gaitasun digitalak handitzea
- ✓ KZgune sareak eskaintzen dituen aukerak eta zerbitzuak aztertzea eta areagotzea
- ✓ Gizarteko eten digitala txikiagotzea eta erabilerraztasuna handiagotzea

Egitasmoak eta ekimenak

Aipatutako helburuak lortzeko, honako egitasmoei ekingo zaie:

- ✓ **Gaitasun digitalen gaineko Europako esparrua Euskadin ezagutaraztea eta ezartzea bultzatzea**

Arlo horretan, Agenda Digitala 2015ek Europako Batzordeak 2012tik aurrera ezarriko duen gaitasun digitalen eredu izango du erreferentziatzat; hura Euskadin ezartzeko bide aktiboa izan nahi du Agendak.

Aipatutako esparrura ongi egoki daitezen gaitasunak eskuratzeko prozesuak, honako sustapen- eta jakinarazpen-ekintzak proposatu dira:

- Gaitasun digitalak eskuratzeko planen zehaztapen metodologiak, eta helburuak egokiro ezartzeko jarraibide beharrezkoak.
- Jarduerak diseinatzeko estrategiak, bereziki, norbanakoen ikasketa-inguruneetan, eta elkarlaneko ikaskuntza.
- Gaitasun digitalen ebaluazio- eta egiaztapen-prozesuak

Herritar orok aro digitalean jardun digitalean bete beharreko ezaugarriak zehazten dira honako ereduaren bidez. Honakoak dira:

- IKTak erabiltzeko gaitasuna izan behar du.
- Informazioa bilatzeko, aztertzeko eta ebaluatzeko gaitasuna izan behar du.
- Nork bere multimedia edukiak sortzeko gaitasuna izan behar du.
- Bere edukiak eskaini eta bere erkidegoarentzat garrantzia izan dezaketen edukiak iragazten lagundu behar du.

Europako Parlamentuak ezarritakoaren arabera, gaitasun digitala da ezagutzan oinarritutako gizarte baten kideei funtsezko zaizkion zortzi gaitasun gakoetako bat. Funtsezkoa da, halaber, Internetera konektatuta denena, nork bere segurtasuna bermatzen jakin dezan.

Arlo horri dagokionez, ereduak proposatzen duenaren arabera, honako gaitasun hauek eskuratu behar dira:

- Teknologia- eta informatika-gaitasunak
- Informazio-gaitasunak
- Sare sozialen gaineko ezagutzak
- Komunikazio- eta gizarte-gaitasunak
- Teknologiaren eta haren erabileraren inplikazio etiko eta politikoen gaineko analisi kritikoa

✓ **e-inklusioa**

Halaber, plan berriaren xedea da egoera ahularen arrisku handienean dauden euskal gizarteko kolektiboen inklusio digitala bermatzea, eta urrats sendo gehiago ematea eten digitala txikiagotzeko bidean.

Horretarako, beharrezkoa da asmo handiko ekimen nahiz proiektuak garatzea, horien bidez lortu ahalko baita aipatutako helburuak betetzea, helburuko hartzaileei balio erantsi handia gehituz era horretan.

Horri dagokionez, honako ekimen hauek aipatu behar dira:

- KZgunea zentroen euskal sare publikoak eskainitako zerbitzuen bilakaera eta hedapena. Sare hori Justizia eta Herri Administrazio Sailaren Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzaren mendeko da, eta EUDELekin elkarlanean dihardu.
- Herritarrei beren bizialdian **IKTak erabiltzeari ahalik eta probetxu handiena** ateratzea ahalbidetuko dieten tresnak garatzea.
- **Boluntarioritza digitala** bultzatzea
- Eten digitala txikiagotzera bideratutako ekimenak garatzea, bai ikuspegi sozialetik (adina, generoa, geografia), bai jardunaren nahiz erabilerraztasunaren aldetik; adinduenak izatea ekintzen jomuga, hala nola emakumeak, landaguneetako jendea, langabeak eta ezinduak.

1.3 Hezkuntza eta trebakuntza digital berritzailea

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2015en helburuekin bat eginez, Euskadi talentu-polo aurreratu izatea da helburua. Horrenbestez, Agenda Digitala 2015 ekimen osagarria izaki, beharrezkoa deritzo IKTen bidez hezkuntza bultzatzeari.

Hezkuntza-sistema azken urteotan gertatu diren aldaketa teknologikoetatik kanpo egon da. Hala bada, etorkizunean garabide handiena izan dezakeen alderdietako bat da, nabarmenenetako bat izateaz gain, teknologia berriei dagokienez.

Ugaritzen ari diren teknologia berriak eta abiadura handiko sarbidea duten sareak hedatzea, horiek izango dira hezkuntzaren eta, oro har, ikaskuntzaren alorretan balio erantsi handiagoa lortzeko bide edo tresna baliagarriak.

Azken urteotan, IKTak nahitaezko elementu bihurtu dira hezkuntza- eta ikaskuntza-prozesuei balio erantsia gehitzeko. Horrenbestez, **Eskola 2.0** bezalako proiektu garrantzitsuek aurrerapauso handia ekarri dute Euskadiko hezkuntza arautuaren mailakako digitalizazioan.

Proiektu honi lotuta ezarri diren helburu nagusien ardatzak honakoak dira:

- Betiko ikasgelak ikasgela digital bihurtzea
- Irakasleak IKTetan trebatzea
- Ikasgeletako metodologia-aldakuntzari laguntzea
- Eten digitala murriztea
- Lan dinamikoa, parte-hartzailea eta sarean egindakoa indartzea, beste zentro batzuekin elkarlanean
- Irakaskuntzako kalitatea hobetzea

Euskadi programa horretan sartzea 2010ean gertatu zen, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasgela guztiak digitalizatuz, irakasleak software askea eta metodologia berriak erabiltzeko trebatuz eta multimedia edukiak sortuz. Datozen ikasturteetako helburua da DBHko lehen bi mailak digitalizatzea.

Beraz, IKTak helburu izatetik tresna edo bide izatera igaro diren esparru horretan, etengabeko ikaskuntza garatzea politika giltzarri bihurtu da, Euskadi ezagutzen oinarritutako lehia-erreferente izan dadin.

Horrela, Informazioaren Gizarteari dagokionez, plan berriak hezkuntza-sistema berritzaileagoetara jotzea proposatzen du, teknologiar berari hainbesteko garrantzia eman gabe; balioa eman behar zaio irakasle-hezitzaile-dinamizatzailearen zereginari, hala nola haren eta ikaslearen arteko elkarrekintzari, belaunaldi berriko lankidetzaren inguruneak garatuz.

Helburu hori bete dadin, beharrezkoa da, halaber, hezkuntza arloko eduki digitalen garapena behar beste bultzatzea.

Agenda Digital berriak funtsezko deritzon beste alderdi bat hau da: hezkuntza-/trebakuntza-prozesuak eragiten dien edo prozesuan parte hartzen duten eragile guztiak integratzea. Horien artean daude hezkuntza-komunitateko kide guztiak: familiak, ikasleak, irakasleak, ikastetxeak, Administrazioa, etab.

Deskribapena

Jarduera-lerro horretan sartzen dira euskal gizarteko irakaskuntza eta trebakuntza alorrean IKTetan oinarritutako ekintza berritzaileak garatzera bideratutako ekimenak.

Helburuak

Honakoak dira esparru horretan lortu beharreko xedeak:

- ✓ IKTetan oinarritutako irakaskuntza eta trebakuntza-zerbitzu berritzaileak garatzera bideratutako estrategiak bultzatzea.
- ✓ Bai sektore publikoko profesionalentzat (irakasleak, Osasun arlokoak, etab.), bai pribatukoentzat, ikaskuntzarako lankidetzaren inguruneen sorrera erraztea
- ✓ Bitarteko digitalen bidez, elkarreragina erraztea hezkuntza-komunitateko kide guztien artean: irakasleak, ikasleak, familiak, ikastetxeak eta Administrazioa bera.
- ✓ Eskola 2.0 proiektua garatzen eta hedatzen aurrera egitea.

Programak eta ekimenak

Jarraian zerrendatzen dira hezkuntza eta trebakuntza digitalen alorrean aurre egin beharreko egitasmoak:

✓ Hezkuntza sistemak garatzea alor digitalean

Agenda Digital berriak urrats gehiago emango ditu IKTetan oinarritutako hezkuntza eredu berritzaileak garatzen eta hedatzen.

Horretarako, honako ekimen hauetan oinarrituko da plana:

- **Eskola 2.0** proiektuaren hedapenean aurrera egitea
- IKTetan oinarritutako tresnak bultzatzea, seme-alaben **hezkuntza prozesuaren kudeaketa eta segimendua** erraztea xedetzat hartuta
- **Laguntza- eta aholkularitza-sistemen** garapena sustatzea, hainbat arrazoi medio egoera ahulean dauden kolektiboan laneratze egokia errazteari begira: **coaching digital** delakoa
- **2.0 lankidetzaren ingurunearen** sorrera laguntzea, sektore publikoko eta/edo pribatuko profesionalen hezkuntza- eta lan-bizitza kudeatzeko eta errazteko

1.4 E-partaidetza

Euskal gizartea egiazko erkidego digital bihurtuko bada, kidetasun sentimendu handikoa, kohesionatua eta balio eta asmo komunak partekatzen dituena, ezinbestekoa da kide bakoitzak esateko duena entzutea, hitz egiteari beharrezko eta egoki deritzotenean.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek Administrazioaren eta herritarren arteko elkarrekintza eta bi norabideko komunikazioa ahalbidetzen dute. Horrela, azken horiek politika arloko erabaki askotan parte hartzeko aukera dute.

Hori dela eta, Interneti esker, herritarrak beren iritzia emateko tresna dute eskura, eta ingurune hurbilean erabakiak hartzeko prozesuetara engaiatu daitezke.

Deskribapena

Herritarrek, IKTak erabiliz, EAEko gizarte- eta politika-bizitzan parte har dezaten sustatzeko ekimenak garatzea aztertzen du plan berriak atal honetan.

Helburuak

Helburu hauek lortu nahi dira partaidetza digitalaren esparruan:

- ✓ Euskadiko herritarren partaidetza sustatzea bitzita publikoaren arlo guztietan, xede horretarako esparru egokiak sortuz eta gizartean horien berri emanez.
- ✓ Herritarrek IKTak erabil ditzaten sustatzea edukiak eraikitzeko eta/edo arazoak elkarlanean konpontzeko orduan, hartarako informazioa eta esperientziak trukatzuz beren IKT gaitasunak areagotzearen, eta egiazko «pertsonek Internet» osatzen lagunduta.
- ✓ Partaidetza digitaleko zerbitzu berriak garatzea eta administrazioaren tresna parte-hartzailearen oraingo erabilera sendotzea.
- ✓ Eusko Jaurlaritzaren tresna parte-hartzaileen zerbitzu-kalitatea hobetzea.

Programak eta ekimenak

Azaldutako helburuak lortzeko, xede hauek dituzte Agenda Digitalaren esparru honetako jardunek:

- ✓ **Herritarren parte-hartzea sustatzea IKTak erabiliz**
 - **Open Ideiak / Irekia** zerbitzuak dibertsifikatzea eta handitzea.
 - Herritarren **on line elkarrekintza** errazten duten zerbitzuak sustatzea: demandak, proposamenak, ebazpenak...
 - Herritarren eta politikarien arteko **elkarrizketak** bideratzeko tresnak bultzatzea.

1.5 Etxe digitala

Aurreko EIGPren oinarritzko helburua, arlo horretan, etxeetan IKTak sustatzea zen gehienbat; ordenagailua eta Internet funtsean. Azken urteotan bultzatutako teknologiek arreta, gehienbat, familiek Internet eskura izatean jarri dute; ondorioz, arlo horretan Europako batez bestekotik gertu jarri da Euskadi.

Plan berriak, baina, bestelako helburuak bilatzen ditu arlo horretan; nolahi ere, ez du ahazten etxeetako Interneterako konexio mailak handitzeko apustua, eta Euskadi batez besteko europarraren gainetik kokatzen saiatzen da.

Ildo horretatik, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko joera orokorretako batek etxeetan IKTen erabilera berritzailea bultzatzeaz dihardu; hori dagoeneko ageriko errealitatea da, eta etorkizunean are indar handiagoa hartuko du.

Biztanleen premiak IKTen bitartez gogobetetzea bilatzen du etxe digitalaren kontzeptuak, honako hauei dagokienez: segurtasuna, erosotasuna, kudeaketa eta kontrola, aisia eta jolasa, telekomunikazioak, energia, denbora eta baliabideak aurrezteak.

Hala, etxeetarako IKTetan oinarrituriko irtenbideen bitartez bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko aukera ugari daude, hala nola: adinekoen isolamendua ezabatzea, etxea monitorizatzea arrisku handia duten pertsonentzat seguruagoa izan dadin edo etxe horietan bizi direnak urrundik kontrolatzea.

Esparru horretan ere sartzan dira ingurunea kontrolatzeko sistemak; etxeko ingurunearen elementuen kontrola hobetzea bilatzen dute, eta laguntzeko teknologia gisa baliagarri izan daitezke beharizan bereziak dituzten pertsonentzat (adinekoak, ezgaituak, etab.).

Horrenbestez, teknologia egokiak aplikatuz gero, ingurunea kontrolatzeak ezgaituen, gaixoen edo gizarte-isolamendua nozitzen dutenen autonomia eta/edo bizi-kalitatea hobetzea ahalbidetzen du; baita senideek edo zaintzaileek egin beharreko zereginak erraztea ere.

Agenda Digitala 2015ek bide berri hori bultzatzeko eta esploratzeko apustua ere egiten du, herritarren ongizatea benetan hobetzea dakarten zerbitzu berritzaileak garatzeko eta abiarazteko oinarri gisa.

Deskribapena

«Etxe digitalaren» esparruan planteatutako jardunen helburua hau da: batetik, IKTak bultzatzen jarraitzea, Euskadi esparru honetako erreferentzia izan dadin, eta, bestetik, Euskadiko etxeetan zerbitzu berritzaileak ezartzea, pertsonen bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzearren.

Helburuak

- ✓ Herritarren Metaposta zerbitzuen erabilera areagotzea.
- ✓ Metapostako zerbitzu berriak garatzea.
- ✓ Internet etxe gehiagotara iristea.
- ✓ Bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzea etxeetako IKTen bitartez (domotika).

Programak eta ekimenak

Agenda Digitalaren esparru honetako jardunak bi programatan daude jasota:

- ✓ **Herritarrentzako aplikazio aurreratuak**
 - **Metapostako** aplikazio berrien bilakaera eta garapena
- ✓ **IKT berrikuntza etxeetan ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko (domotika)**
 - **I+G+B proiektuak** sustatzeko ekimenak etxe digitalaren arloan

1.6 Konfiantza digitala

Konfiantza da informazioaren eta jakintzaren gizartearen bilakaeraren eta garapenaren oinarri nagusietako bat.

Era horretan, Internetek eta teknologia berriek ohiko erabilerako tresna izan behar dute herritarrentzat eta enpresentzat –ezinbestekoak, beharrezkoak eta seguruak–, eta diren zerbitzu digital ugarietarako sarbide eta erabilera fidagarria bermatu behar dute.

Hartarako, segurtasunaren (fisikoa zein logikoa) aldeko apustu argia egin beharra dago, eta, horrekin batera, oraingo eta izan daitezkeen erabiltzaileak sensibilizatzeko lan handia ere egin behar da, IKTen erabileraz ezagutza eskasena edo arrisku handienak dituztenengan arreta berezia jarrita.

Deskribapena

E-konfiantza arloan, segurtasunaren kultura sustatzen duten eta herritarrei Internet eta IKTak erabiltzeko orduan konfiantza ematen dieten ekimenak lehenesten ditu planak, eta arreta berezia jartzen du ahulengengan (adingabeak, familia, adinekoak, etab.).

Helburuak

- ✓ Sarearen erabilera segurua eta arduratsua sustatzen duten sensibilizazioko kanpaina/jardunaldien antolaketa eta garapena sustatzea.
- ✓ Internet bitartez identifikatutako iruzurrezko jarduera kopurua murriztea.
- ✓ Sarearen erabilera seguruaren kultura bultzatzeko zerbitzuak garatzea.

Programak eta ekimenak

Arlo honetan garatu beharreko jardunen bidez honako programa hau gauzatzea bilatzen da:

- ✓ **Sarearen erabilera seguruari buruz dinamizatzea eta sensibilizatzea**
 - Segurtasun-kultura **sustatzeko kanpainak** garatzea.
 - **Segurtasunari buruzko trebakuntza-baliabideak** hornitzen dituzten IKT tresnak bultzatzea, bereziki adingabeei, familiei... zuzenduta.
 - Sarearen bidez egindako delituzko **jarduerak minimizatzeko** zerbitzuak eta/edo tresnak sustatzea.

II Zatia

Plana ekintza bihurtuta

2. e-Enpresa



2. e-ENPRESA

2.1 Aurkezpena

«Euskadiko enpresek, tamaina eta sektorea gorabehera, lehiakortasuna eta produktibitatea handituko dituzten eta negozio-eredu berriak garatuko dituzten ingurune bat, betiere belaunaldi berriko IKTekin lerrokatuta, produktu eta zerbitzu aurreratuak eskaintzeko, beren estrategia berrikuntzan eta jasangarritasunean oinarritzen dutela».

Euskadiko gizarteak, gaur egun, oinarri sendoa du gero eta lehiakorragoa izateko, munduko ekonomiak garaiotan nozitzen duen krisialdi orokorra izanik ere.

Ahultasun-egoera luze honetatik berme guztiakin ateratzeko, Euskadiko enpresa-ehunak lehiakortasunaren aldeko apustua egiten duen elementu bultzatzaile bihurtu behar du; halaber, trebakuntza handiko pertsonak ere eduki behar ditu, eta horiek ahaleginak egiteko prest eta lankidetzari zabalik egon behar dute; horretaz gain, negozio-eredu berritzaileak bultzatu eta garatu behar dituzte.

2011-2013 Lehiakortasun Planean dago islatuta Euskadiko erakundeek lehiakortasunaren alde hartutako konpromisoa; haren xedea euskal enpresen lehiatzeko gaitasuna bultzatzea da, baita harremanak sor daitezela laguntzea ere; era horretan, sinergiak lortu ahal izango dituzte, merkatu gero eta lehiakorrago eta globalagoetara egokiturik jarduteko.

Estrategia horren barruan kontzeptu nagusi hauek ageri dira, batzuk aipatzearen: erantzukidetasuna, berrikuntza, ahalegina, elkartasuna edo jasangarritasuna.

Hala, plan horrek, bigarren ardatz estrategikoan, «ekonomia berritzaile, ekintzaile eta teknologikoki aurreratuaren» eragina aipatzen du, Euskadiko enpresen modernizazioa eta ahalmen berritzailea eta sortzailea sendotzeko ekimenetan oinarritua.

Agenda Digitalak, lehiakortasun-planaren helburu global horren mesedetan, halaber, enpresen eta euskal gizarte orokorraren lehiakortasuna areagotzen duten ekimenak garatzea ere aztertzen du, informazioaren gizartearen esparruan eta IKTek uneotan xede horretarako eskaintzen dituzten baliabideen bitartez.

Hala, Euskadi lehiakorra eta nazioartean erreferentea lortzeko, enpresei kudeaketa-ereduetan IKTak txerta ditzaten erraztasuna emateaz gain, funtsezkoa da Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien euskal sektorearen garapena irmo bultzatzea, hartarako berau sustatzeko eta nazioartekotzeko ekimenak gauzatzuz eta eduki digitalak gero eta gehiago garatuz.

2010eko EIGPk, bere aldetik, enpresetan IKTak sendo eta zabal erabiltzea sustatzeko eta IKTen sektorea bultzatzeko ekimenak lehenesten zituen jardun-esparru horren barruan, «Enpresa berritzailea» ekimenaren bitartez.

Horien aldeko apustuari eutsi arren, bereziki IKTen sektorearen lehiakortasuna garatzeari dagokionez, Agenda Digital berriak, zehazki babestu nahi diren jarduera-lerro berriak gaineratu ditu:

- Batetik, Euskadiko enpresek sarean eta IKTetan oinarrituriko negozio-eredu berritzaileak, eta *e-business* alorreko estrategia integralak, hartzea.
- IKTen bitartez Euskadiko enpresak nazioartekotzen laguntzeko estrategiak garatzea.
- Azkenik, IKTen jasangarritasunaren aldeko apustu garbia egitea, Lehiakortasun Planak eta EkoEuskadi 2020 estrategiak proposatutako ekimen batzuekin bat datorrela.

2.2 IKT-Lan

Antolaketa-egituran eta zerbitzuen ekoizpen- eta/edo prestazio-prozesuetan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak txertatzen dituztenean, enpresek eraginkortasuna eta efikazia hobetzen dituzte; baita lehiakortasuna ere, eta horri esker negozio-eredu berrietarako bilakaera gauzatu ahal izaten dute.

Horrenbestez, IKTen erabilera bereizteko elementua izateaz gain, funtsezko faktorea ere bada merkatuetan eraginkortasunez lehiatu ahal izateko.

Dena den, oraindik aldeak antzematen dira Euskadiko enpresetan, enpresa handien eta txikien egoeraren artean. Eten digital horrek galgatu egiten ditu IKTek enpresa-sektoreari eskaintzen dizkioten lehiarako aukerak.

Eusko Jaurlaritzak beharrezkotzat jotzen du informazioaren eta komunikazioaren teknologiak enpresetan txertatzen jarraitzea, era horretan IKTen aldeko apustu irmoa egin dezaten, beren jardueran lehiakorak izateko funtsezko elementua delakoan.

Horretarako, baina, enpresei beharrezko baliabideak, tresnak eta zerbitzuak eman behar zaizkie, IKTen erabilerari onura atera ahal izan diezaioten; horregatik, gauzatutako ekintzak ez dira sentsibilizatza eta trebatza mugatu behar, eta aholkatzeko, laguntzeko eta jarraitzeko ekimenekin batera ere joan behar dute informazioaren eta jakintzaren gizartearekin guztiz bat egiteko bidean.

Deskribapena

Agenda Digital berriak, esparru horretan, Euskadiko enpresak IKTekin trebatzea eta jardueran txertatzea lortzeko ekimenak gauzatu nahi ditu; baita administrazioak zerbitzuak eta tresnak garatzekoak ere, enpresek kudeaketa hobetu eta lehiakortasuna bultzatu dezaten.

Helburuak

- ✓ Tamaina eta/edo sektorea dela-eta enpresetan dagoen eten digitala murriztea.
- ✓ Euskadiko enpresak mundu digitalarekin trebatzea bultzatzea sentsibilizazioaren eta laguntzaren bidez.
- ✓ IKTak txerta ditzaten errazteko tresnak jartzea Euskadiko enpresen esku.
- ✓ Sektore guztien autonomia sustatzea beren Agenda Digitalak garatzeko orduan.
- ✓ Enpresei IKT tresnak eta zerbitzuak ematea kudeaketa hobetu dezaten.

Programak eta ekimenak

Planaren jardunak bi programa mota osagarri garatzera bideratuta daude, azaldutako helburuak bete daitezten:

- ✓ **Enpresan IKT kultura bultzatzea:**
 - **Sektoreetako agenda digitalak**
 - **DinamizaTIC sektoreanitza**
 - **Inplantalari Teknologikoa**
 - **Sareko eskualdea** (landakoa, turistikoa)
 - **Sentsibilizatzeko eta diagnostikatzeko ekintzak**

✓ Enpresentzako IKT zerbitzuak garatzea

- Balio erantsiko zerbitzuen bilakaera eta garapena **Metapostako** enpresarentzat.
- **Sareko kudeaketa- eta lan-irtenbideak eta -tresnak** garatzen laguntzea, eta IKT zerbitzuak ETEentzat.
- **IKT berrikuntzarako guneak eta co-workinga** sustatzea.
- **Faktura elektronikoa** bultzatzea.
- ETEentzat **e-learning**ean oinarrituriko ekimenak sustatzea (aplikazio sektorialak).

2.3 Sareko negozio-eredu berritzaileak

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien bilakaerak enpresako eredu berriak garatzeko aukera eskaintzen du, eta horiek enpresen lehiakortasuna handitzea eta kostuak murriztea ahalbidetzen dute.

Hala ere, Euskadiko enpresa-ehuna ETEek eta mikroETEek osatuta dago gehienbat; horren ondorioz, ezin izan diete etekin osoa atera IKTek eskainitako aukera horiei guztiei.

Horregatik, Agenda Digital berriak funtsezkotzat jotzen du enpresetan kultura berria bultzatzea, ekoizpen-ereduak sarerantz bidera ditzaten eta IKTetan oinarrituriko negozio-estrategiak gara ditzaten.

Horretarako, baina, administrazioak sentsibilizatzeko ahalegina areagotu behar du, eta sarean oinarrituriko negozio-ereduak txertatzen laguntzen duten tresnak garatzea bultzatu behar du.

Sentsibilizatzearen eta trebakuntzaren bidez enpresarien gaitasunean eragitea eta IKT kultura sustatzea garrantzitsua da, baina are garrantzitsuagoa da haien jarreran eragitea. Enpresa txikiei dagokienez, laguntza-lana ere ezinbestekoa da, enpresaria motibatzeke eredu digital berriak txertatzeko interesa piztu ondoren.

Ildo horretatik, nabarmendu behar dugu landa-esparruko enpresek zailtasun handia dutela eredu digitalei heltzeko; neurri handi batean, beharrezko azpiegiturarik ez dagoelako, baina baita askotan teknologia berriek negozioei ekar diezazkieketen abantailak ezagutzen ez dituztelako ere.

Deskribapena

Esparru horretan garatu beharreko ekimenen bitartez, Euskadiko enpresei tresnak eman nahi dizkiegu lehiakortasuna hobetzeko; esate baterako, Internet bidez hainbat negozio-estrategia garatuz zein ekoizpen-prozesuak eta/edo zerbitzu-prestazioak digitalizatuz (*e-business*).

Helburuak

- ✓ Euskadiko ETEek *e-business* estrategiak har ditzaten sustatzea.
- ✓ Landako mikroETEak eta enpresak *e-business*eko tresna zentralizaturen bitartez gara daitezen ahalbidetzea.
- ✓ Merkataritza elektronikoaren garapena bultzatzea.
- ✓ Enpresen eraginkortasuna hobetzea ekoizpen-prozesuetan eta negozio-ustiapenean IKTak txertatzea sustatuz.

Programak eta ekimenak

Agenda Digital berriak bi bide finkatu ditu Euskadiko enpresa-ehunean sareko negozio-eredu berritzaileak bultzatzeko xedez:

- ✓ **Enpresetan e-business estrategiak zabaltzea**
 - **E-commerce, komunikabide sozialak eta marketineko ekimen sektoreanitzak** bultzatzea.

- ✓ **IKTetan oinarrituriko negozio-ereduak sustatzea**

Programa honen bitartez, asmoa da teknologia aurreratuak eta espezifikoak txerta daitezzen bultzatzea, enpresen ekoizpena eta lehiakortasuna indartzearen, horien sektorea edozein dela ere.

Hala, garatu beharreko ekimenek funtsean hauxe dute xedetzat:

- Nekazaritzako, abeltzaintzako, turismoko, banaketa/logistikako... ustiapenaren **digitalizazioa** erraztea.

2.4 IKT sektorearen lehiakortasuna garatzea

Gaur egun dugun atzeraldi orokorrean, Euskadin informazioaren gizartea garatuko bada, ezinbestekoa da Informazioaren Teknologien sektorearen sendotzean eta indartzean oinarritzea.

Euskadiko IKT sektorea sendoa eta oso estrategikoa da gure erkidegoan, eta funtsezko eginkizuna du, ekarpen handia egiten baitie enplegu-sorrerari nahiz BPGren sorrerari.

Biziki garrantzitsua denez, jarduera-lerro hori etengabe agertzen da Euskadiko Agenda Digitalaren erreferentzia-esparrua osatzen duten ekimen gehienek lehenetsun estrategikoen artean.

Ildo horretan, sektore horrek lehiakortasuna erdiesteko duen eginkizun nagusia nabarmentzen dute Avanza2 Planak, «IKT sektorearen gaitasunak garatzea» eta «Eduki digitalen sektorea sendotzea» lerro espezifikoekin, zein Europako Agenda Digitalak, IKT sektorearen profesionalen trebakuntza sustatzeko ekimenekin.

Horregatik, sektore horrek Euskadi osoko ekonomiaren lehiakortasuna dinamizatzen eta handitzen laguntzeko duen garrantzia aitortzen du Agenda Digitalak 2015erako egindako planteamendu estrategiko berriak.

Hala, garapenerako funtsezko helburu batzuk finkatu dira esparru horretan:

- **Profesionalizazio handiko sektorea** edukitzea.
- **Eraginkortasuna** hobetuz eta **eskaintza espezializatuz**, sektorearen lehiakortasuna nabarmen areagotzea, bereiztea eta balio-ekarpen berezia sortzearen.
- **Sektorea** merkatu berrietarantz ireki **dadin** lortzea.
- Sektorea merkatu eraginkorraren **eredu** bihurtzea IKT irtenbideen txertaketan eta sorreran, lurraldearen lehiakortasuna handitzeko bultzatzaile izan dadin.

Deskribapena

Euskadiko IKT sektorearen lehiakortasuna, garapena eta nazioartekotzea bultzatzeko ekimenak daude jasota jarduera-lerro honetan, hazkunde ekonomikoari egindako ekarpena handiagoa izan dadin, eta erreferentzia-eredu bihur dadin.

Helburuak

- ✓ Potentzial eta profesionalizazio handiko IKT sektorea lortzea, gaikuntza eta ziurtagiria sustatzen dituzten estrategien bitartez.
- ✓ Ekintzailtza lagunduz eta jarduera IKTen esparruan bultzatzeko estrategiak finkatuz, sektorea sendotzea eta indartzea.
- ✓ Euskadi garapen-erreferentzia bihurtzea eduki digitalen eta bideo-jokoaren arloan.
- ✓ *Living Labs* izeneko bidezko esperimentazioaren emaitza gisa, Euskal gizartearentzat balio erantsi handiko zerbitzuak, benetan aplikagarriak, garatzea.
- ✓ Euskadiko IKT sektorearen nazioartekotzea bultzatzea.

Programak eta ekimenak

Euskadiko Agenda Digital berriak programa hauen aldeko apustua egin du helburu horiek lortzearen:

✓ IKT sektorea profesionalizatzea trebakuntzaren, gaikuntzaren eta ziurtapenaren bidez

Europako Agenda Digitalak aitortu bezala, gaitutako langilerik ezean, IKTek ezin dute hazten ari den sektore moduan eraginkortasunez jardun, ezta ekonomian lehiakortasuna eta produktibitatea hobetzeko motor gisa ere.

Arrazoi horregatik, ezinbestekoa da berrikuntzari eta hazkunderari heltzeko beste gaikuntza digitala duten IKTetako profesional espezializatuen eskaintza handitzea eta hobetzea.

Hala, Euskadiko Agenda Digital berriak honako ekimen hauek garatzea proposatzen du, besteak beste:

- IKTen eta ikus-entzunezkoen eskaintzaren gaikuntzarako ekintzak
- Pertsonak eta enpresak ziurtatzea sustatzeko ekintzak

✓ *Living Labs* egitura bultzatzea

Helburua Euskadiko enpresa espezializatuek, lehentasunezko sektore jakin batzuetan, elkarlanean, esperimentazio eta behaketa teknologikoan aritzeko moduko ingurunea garatzen laguntzea da, bertako pertsonen bizi-kalitatean edo enpresen lehiakortasunean zuzeneko eragina duten irtenbideak edo zerbitzuak garatzeko oinarri gisa.

Programa horren bidez, ekimen hau abiaraztea bultzatu eta babestuko da:

- Funtzio anitzeko behaketako, jarduerako eta simulazioko IKT lankidetzazentro gisa *Living Labs* izenekoak bultzatzea honako sektore hauetan: osasuna, gailuen ergonomia, erabilerraztasuna, mugikortasuna, etxe adimenduna...

✓ IKT sektorea sustatzea

Agenda Digitala 2015ek uste du, kanpoko merkatuetan erreferente bihurtu nahi duen Euskadiko IKT sektorea sendotzeko eta indartzeko, beharrezkoa dela lehentasunezko ekimen hauei heltzea:

- Euskadiko **IKT eskaintzan eskalako ekonomiak** lortzea ahalbidetzen duten ekimenak bultzatzea.
- **IKT Ekintzailtzako Euskal Erkidegoa** garatzea, sektorean ekintzailtza bultzatzeko.
- **Open Data Publikoak** ustiatzen dituzten zerbitzu digitalen industria sustatzea.
- **Sektoreen arteko elkarlana** eta **lankidetzak** sustatzea arlo teknologikoan I+G+B ekimenak garatzeko.

✓ IKT sektorea nazioartekotzea

Telekomunikazioetako Kluster Elkarteak egindako azken azterlanen ondorioen arabera, Euskadiko IKTen sektorea atomizatuta eta merkaturik hurbilenera bideratuta dago.

Bi ezaugarriok erlazioaturik daude, kiribila sortzeraino; izan ere, sektorea hurbilen duen merkatuan oinarritzen da, merkatu berrietara jotzeko adina tamainarik ez duelako, eta ez du horretarako neurrikerik merkatu hurbilenean oinarritzen delako.

Honako hauek dira gure enpresak kanpoko merkatu berrietara irekitzeko jauzia egiteko eta erreferentzia-eredu bihurtzeko palankak, lankidetzarekin batera: IKT irtenbideak hornitzeko eta txertatzeko ingurune eraginkor gisa Euskadik duen irudia, **eskaintza bereizgarri** baten errealitatea, eta eragin mailako arazoei ekiteko **erreferentea** izatea.

Helburu hori lortzeko, ekimen hauek garatzea planteatzen da:

- **Enpresei lizitazioetarako eta alde anitzekoetarako sarbidea errazteko** ekintzak
- IKT sektoreko **irtenbideen nazioartekotzea** indartzeko ekimenak
- IKT enpresen eta profesionalen **nazioarteko mugikortasunaren** sustapena

✓ Eduki digitalen sektorea bultzatzea

Eusko Jaurlaritzaren ustez beharrezkoa da eduki digitalen sektoreari bultzada sendoa ematea, eta, horretarako, ekimen hauek planteatzen dira:

- **Eduki digitalen, ikus-entzunezkoen eta bideo-jokoen Euskadiko industriaren** garapena bultzatzea.
- **Eduki digitalak** hainbat formatutara **egokitzeko** proiektuak sustatzea: mugikorra, TB, etab.
- Administrazioak babestutako **eragin handiko proiektu integralak** sustatzea – ETORGAI (IKT eta ikus-entzunezkoa), ETORTEK (IKT), beste batzuk–.
- Ikus-entzunezko **eduki publikoen eta irekien ustiapena** sustatzea.

2.5 IKTak eta jasangarritasuna

Gaur egun, mundu osoko enpresek eta administrazioek aurrekaririk gabeko arreta eskaintzen diete ingurumen arloko alderdiei. Ildo horretatik, klima-aldaketarekin eta jasangarritasunarekin lotutako kezkak goranzko joera du oraindik ere.

IKTek funtsezko eginkizuna dute etorkizun jasangarria lortzeko bidean. Ildo horretan, lehiakortasun eta berrikuntzarako funtsezko palanka izateaz gain, ezinbesteko rola dute natur baliabideak eraginkortasunez kudeatzeko eta ingurumeneko inpaktua txikiagotzeko ekimenak garatzeko oinarri modura.

Horregatik, ingurumeneko alderdiekin sentsibilizatzeko esparru horretan, gobernu asko lanean ari dira informazioaren eta komunikazioaren teknologien aplikazioan eta erabileran oinarrituriko ekimen eta proiektu jasangarriak garatzeko; horiek pentsamolde-aldaketa handia eskatzen dute, hala enpresetan nola herritarrengan edo administrazioan bertan.

Informazioaren gizartearen esparruan, ekimen-garapena, oro har, bi jarduera-esparrutan egituraturik dago:

- IKT jasangarrien erabilera (Green IT):
Green IT kontzeptuaren barruan teknologiak ingurumenean duen inpaktua murrizten duten ekimenak eta estrategiak jasotzen dira.
Teknologia horiek abantaila handiak dakarzkiete enpresei, ingurumenaren ikuspegitik gizarte osoarentzat eduki dezaketen eragin positiboaz gain, hala nola: kostuak murriztea, eraginkortasun energetikoa hobetzea, bidaiak murriztea, aktiboak deuseztatzea (birziklatzea), etab.
- IKTetan oinarrituriko jasangarritasun-proiektuen garapena:
Azkeneko urteotan, gero eta handiago da ingurumenaren jasangarritasunari begirako ekimenak garatzeko joera; horiek Informazioaren Teknologiak erabiltzen dituzte euskarritzat.
Esparru horretan «*smart*» ekimenak aipatzen dira, *cloud computing*era zuzendutako estrategiak; baita irtenbide teknologiko eraginkorrak garatzera zuzendutako bestelako jarduera batzuk ere.

Gaur egun indarrean dauden informazioaren gizartearen arloko plan estrategiko eta ekimen garrantzitsu gehienetan jasangarritasunaren eta IKT jasangarrien gaineko erreferentziak daude, eta garrantzitsua da hori nabarmentzea:

- Europako Agenda Digitalaren «IKTen onurak gizartearentzat» jarduera-arloan jardueralerro espezifikoak biltzen dira, IKT jasangarrien garapena sustatzeko («IKTak ingurumenaren zerbitzura») edo jasangarritasun-proiektuak bultzatzeko («Garraio adimenduneko sistemak», etab.).
- Estatuan, berriz, Avanza2 Planak, 2011-2015 estrategian IKT berdeak garatzea proposatzen du, IKT sektorearen lehiakortasuneko 5. ardatzaren barruan.
- EAEn, EkoEuskadi 2020 estrategiak, modu espezifikoan, politika publiko batzuk barne hartzen ditu garapen jasangarriaren arloan erreferentzia den Euskadi eraikitzen aurrera egiteko helburuz, eta, bide batez, euskal gizartearen bizi-, ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-baldintzen garapen orekatuan bikaintasuna aitortu diezaioten.
- 2011-2013 lehiakortasunaren euskal planak, hirugarren ardatz estrategikoan, jasangarritasunaren aldeko apustu garbia egiten du, lehiarako abantaila eta jarduera ekonomiko berriak sortzeko aukera delakoan.

Planteamendu horiekin guztiekin batera, Euskadiko Agenda Digitala ezin da horretatik kanpo egon, eta horren gaineko konpromiso irmoa hartzen du; hala, helburuen artean, informazioaren gizartearen esparruan enpresen ingurumen-kontzientzia bultzatzeko ekimenak ezartzen ditu, betiere gizarteak jasangarritasun arloko onurak izan ditzan.

Jarduera-lerro horretan aurre egin beharreko erronka nagusietako bat da enpresei ikusaraztea IKT jasangarrietan oinarrituriko ekimenek abantaila handiak eskaintzen dituztela, eta beren negozioaren lehiakortasuna handitzeko aukera bihur daitezkeela.

Deskribapena

Jarduera-lerro horren bitartez, enpresa-sektorearen eta herritarren kontzientziazte ekologikoa sustatzeko eta IKTen jasangarritasuna sustatzen duten estrategien garapena bultzatzeko ekimenak garatzea proposatzen du plan berriak.

Helburuak

- ✓ Gizartearen kontzientziazte ekologikoa sustatzea IKTak erabiltzeko orduan.
- ✓ Green IT deritzon oinarrituriko estrategiak bultzatzea, eraginkortasun energetikoa, kontsumo arduratsua, IKT ekipamenduen birziklatze egokia... hobetzeko.
- ✓ Jasangarritasunean eta ingurumen-babesean espezializatutako Euskadiko IKT industria sendotzea.
- ✓ Euskal gizartearentzat IKTetan oinarrituriko ekimen jasangarriak garatzea.

Programak eta ekimenak

Ildo horretan oinarritzko bi programari heltzea planteatzen da; honako hauek dira zehazki:

- ✓ **IKT jasangarriak sustatzea**
 - Informatikako ekipoen **birziklatze arloko tresnen** garapena bultzatzea, eta arlo horretan **sentsibilizatzea**.
 - Enpresetan **IKT zerbitzuen eta ekipamenduen birtualizazioa** sustatzea (*cloud computing*, etab.).
- ✓ **IKTetan oinarrituriko ekimen jasangarriak garatzea**
 - **Enpresako komunikazioko eta elkarlaneko urruneko sistemak** sustatzea: bideokonferentzia, telebilerak, etab., bidaiak, erregaia, garraio-kostuak, isuriak... murriztea lortzearren.
 - **Hiriko azpiegitura eta zerbitzu jasangarrientzako** irtenbideen garapena bultzatzea (*smart* ekimenak, etab.).
 - Herritarrentzat eta enpresentzat **ingurumen arloko edukiak** txertatzen eta helarazten dituzten IKT tresnak garatzea.

2.6 Nazioartekotzea

Enpresen eta euskal gizarte osoaren lehiakortasuna faktore askotan oinarritzen da; kanpoko merkatuetan lehiatzeko gaitasunean, horien artean.

Euskal sektore ekonomikoak ezagutza handiak bereganatu ditu kanpora berme guztiekin atera, produktuak merkaturatu eta zerbitzuak etxeko merkaturik hurbilenetik kanpo eskaini ahal izateko.

Ildo horretan, kanpora irekitako sektoretzat hartu ahal bada ere, ezin dugu esan guztiz nazioartekotuta dagoenik, azken garaiotan egindako ahalegin handiak eginda ere.

Nazioartekotzea funtsezko faktorea da etxeko zein kanpoko merkaturan lehia areagotzeagatik eta mundu osoko ekonomiak pairatzen duen atzeraldi orokorragatik sortutako erronkei aurre egiteko, eta horren gainean esku hartu beharra dago. Hala, aukera izatetik, nazioartekotzea enpresen hazkunderako baldintza estrategikoa izatera igaro da.

Egoera hori ikusita, euskal administrazioak, Euskadiko enpresa-ehunaren nazioarteko jarduerak duen hazkunde-potentzialaren jakitun, helburuetan euskal enpresen kanpo-alderdia eta nazioartean zabaltzeko bokazioa sustatzeko apustuari eutsi dio, maila lehiakorra eta aukerak baliatzeko gaitasuna zehaztu behar dituzten funtsezko faktorea baita.

Helburu hori lortzearren, **2010-2013 Lehiakortasun Planak**, ekonomia irekirako ekimenak bultzatzeko lerroaren bitartez, Euskadiko enpresak eta erakundeak babestea proposatzen du, ikuspegi globaletik jarduteko. Helburu hori bete nahi da honako ekimen hauen garapenetik abiatuta:

- Enpresen nazioartekotze-prozesuak bultzatzea.
- Ekonomia irekiaren erronkei aurre egiteko, gaitasun profesionalak eta sozialak dituzten pertsonak prestatzea.
- Euskal esportazioen helmuga geografikoa eta sektoriala dibertsifikatzea.

Informazioaren gizartearen esparruan, IKTek, halaber, euskal enpresen nazioartekotzea babesten duten estrategiak lagundu eta bultzatzen dituzte.

Horregatik, Euskadiko Agenda Digitala 2015ek, lehiakortasun-planak xedatzen duenarekin bat, eta osagarri moduan, IKTak balioestea bilatzen du, euskal enpresa-ehunaren nazioartekotzea laguntzeko osagai estrategikoa gisa.

Deskribapena

Agenda Digital 2015 berriaren nazioartekotze-lerroak aurreikusten du euskal enpresen irudia kanpoan bultzatzeko eta haien jardura nazioartekotzen laguntzeko ekimenak abiaraztea Sarearen bitartez, haien lehiakortasuna areagotzeko helburuz.

Helburuak

- ✓ Euskadiko enpresak kanpora irtetea sustatzea eta erraztea, IKTetan oinarrituriko dinamizazio- eta laguntza-tresnen bitartez.
- ✓ Beste herrialde batzuekin harremana sustatzea, nazioarteko eragiketen hazkunderako oinarri gisa.
- ✓ Kanpoko merkatuei gizarte ekonomikoki ahaltsuaren irudia helaraztea, IKTetan oinarritutako kalitate handiko produktuak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa sendoek osatutako gizarte batena.

Programak eta ekimenak

Jarduera-arlo horretan jasotako helburuei begira, honako programa hau garatzea aurreikusten da:

- ✓ **IKTen bitartez nazioartekotzea bultzatzea.**
 - **Nazioartekotze lanerako Euskal Erkidegoa** sortzea eta garatzea.
 - IKTen bitartez Euskadiko enpresek nazioarteko lizitazioetan parte har dezaten sustatzea.
 - **Trebakuntza eta dinamizazioa** sarearen bitartez, nazioartekotzearen arloan.

II Zatia

Plana ekintza bihurtuta

3. Zerbitzu digital aurreratu eta erabilerrazak



3. ZERBITZU DIGITAL AURRETATUAK

3.1 Aurkezpena

«Euskal administrazio publikoak EAEko herritarrei eta enpresei azken belaunaldiko IKTetan oinarrituriko eragin handiko zerbitzu publiko digitalak eskainiko dizkien egoera egia bilakatzea; zerbitzu horiek haien premia eta itxaropen errealak ase behar dituzte, eta gizartearen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetu; baita enpresen lehiakortasuna ere».



Duela gutxi argitaratutako 2011-2013 aldirako Eusko Jaurlaritzaren Berrikuntza Publikoaren Planean (BPP) azpimarratu bezala, administrazio publikoa eta hark gizarteari ematen dizkion zerbitzuak ezinbesteko tresnak dira gizarte solidarioa eraiki nahi badugu; herritarrei aukera berdintasuna bermatuko dien gizarte eta bizi-kalitate eta ongizate maila handiak dituen.

Herritarrek zerbitzu publikoetara bide elektronikoaren bidez iristeari buruzko 11/2007 Legean ezarritakoari jarraiki, herritarrek administrazio publikoekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko eskubidea dute.

Lege hori oso bultzada handia izan da informazioaren teknologiatan oinarrituriko zerbitzu publikoak garatzeko; garrantzia izan dute, halaber, lorpen horretan, modernizaziorako bidean eta bere eskumenen baitan, herritarrentzat balio erantsia duten zerbitzuak errazteko Administrazioak daukan premiak; baita baliabide publikoen erabilera eraginkortasuna bilatzeko eta izapide administratiboaren prozesuak sinplifikatzeko ere.

Zerbitzu digital aurreratuak garatzea eta erabiltzea

Administrazio Publikoaren hainbat eskumen



Azken urteotan aurrerapauso handiak egin dira zerbitzu publikoaren digitalizazioan. Ildo horretan, eskuragarri dauden zerbitzu digitalen kopurua asko areagotu da, baita haietako askoren sofistikazio maila ere.

Bestalde, BPPk, Euskal Administrazio Publikoa modernizatzeko bidean aurrera egiten jarraitzeko, zerbitzu elektronikoak garatzeko jarduerak-lerro espezifikoak landu du Administrazio Elektronikoaren izeneko ardatzean.

Horrekin lotuta, plan horren konpromisoa eta lehenetsua da zerbitzu horiek abian jartzea, eskaera zein eskaintza bultzatuta. Helburua zerbitzu elektronikoaren eskaintza osatua izatea da; sofistikazio maila handikoa.

Ildo horretatik jarraituta, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2015en (ZTBP) helburu estrategiko nagusietako bat zerbitzu aurreratuen aldeko apustua da; hori guztia, zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren ekarpenari esker. Adierazitakoa lortzeko, besteak beste, zerbitzu publikoen kalitate ikur gisa teknologia aurreratua sartzea proposatzen du, berrikuntzaren arloko gastua areagotuta.

Arestian adierazitako planteamendu guztiak aintzat hartuta, Agenda Digitala 2015 berriak modu esponontzialean egin nahi du aurrera. Helburu nagusia balizko erabiltzaileentzat eragin eta balio erantsi handiko zerbitzu digital aurreratuak garatzea da, eta horien bitartez herritarren bizikaltatea eta ongizatea, eta enpresen lehiakortasuna hobetzea.

Hori horrela izanda, zera aurreikusten du, adibidez: IKTetan oinarrituriko zerbitzu berritzaileak eskaintzea euskal gizartearentzat garrantzi berezia duten sektoreetan; esaterako osasungintzan, gizarte-laguntzan, hezkuntzan, nekazaritzako elikagaien sektorean edo turismoan, besteak beste.

Zerbitzu digitalen garapenari dagokionez, administrazioaren zeregina zerbitzuak **garatzea edo sortzea** baino gehiago dela azpimarratu behar da. Administrazioak bi zeregin erantsi hartzen ditu bere gain kasu honetan:

- **Haiek erabiltzeko gidari eta motibatzaile** izatearena
- Zerbitzuon **erabiltzaile / kontsumitzaile** izatearena

Gauzak horrela, berebiziko garrantzia duen laguntza-sektorean, nabarmendu beharra dago Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak Euskal Osasun Sistema ulertzeko moduan eta haren orientazioan aldaketa sakonak egiteko proiektuari ekin diola. Aldaketa-prozesu horren ardatza «Euskadin kronikotasunaren erronkari aurre egiteko estrategia» izenekoan islatu da.

Proiektua hamalau estrategiak osatzen dute, eta horietatik lau **zuzenean daude lotuta IKTekin eta informazioaren gizartearekin**:

- Aktibatuta eta konektatuta dauden pazienteen sarea sortzea, paziente kronikoen elkarteez Web 2.0 teknologia berriak erabilia.
- OSAREAN: Osasun Zerbitzuen Zentro Multikanala
- Historia kliniko elektronikoa bateratua
- Errezeta elektronikoa

Estrategia horrek asko lagunduko du euskal osasun sistemaren eraginkortasuna hobetzen. Hobekuntza hori ezinbestekoa da sistema horrek iraungo badu; baina, horretaz gain, herritarren zati handi baten bizimodua aldatu ere egingo du.

3.2 Gauzak errazten dituen administrazioa, hurbilekoa eta eraginkorra

Zenbait urte atzera eginez gero, ikusiko dugu herritarrek urrun, opaku, burokratiko eta antolamendu konplexuko erakunde gisa ikusi izan dutela Administrazioa. Bestalde, pentsatu izan dute hark izapide askotxo egin behar izatea eskatzen zuela; izapide deserosoak eta itxuraz alferrikakoak, gainera.

Gaur egun, IKTek administrazio publikoen funtzionamendua eta antolamendua hobetzeko duten ahalmena oso handia da, eta aukera horri etekina atera behar zaio administrazio horiek herritarrengana hurbiltzeko, haiei zerbitzu berritzaileak eskain diezazkieten, kalitatezkoak, eraginkorrak eta etengabe aldaketei egokituko zaizkienak, une bakoitzeko gizartearen premietara ezin hobe erantzuteko.

Euskal administrazio publikoak esperientzia zabala du arlo horretan eta gobernu irekiari dagokionez eskualde aurreratuenetako bat da. Ondorioz, haren plangintza-esfortzuari esker – lehenik PEAGEren tankerako gobernu-planen bitartez, eta ondoren, Berrikuntza Publikoaren Planaren (BPP) bitartez– gogor eusten dio aldaketa sakona lortzeko eta Euskadiko herritarrentzako administrazio berritzaile, hurbil, garden eta irisgarria izateko konpromisoari, hala beste administrazio batzuentzat ere du izan dadin.

BPPren bitartez zerbitzu-eredu berri baten alde egitea da asmoa, gizartearen premiak asetzeko teknologia berrien laguntza duen antolakuntza arin, malgu eta irekiaren bitartez.

BPPk proposatzen dituen ekintzak osatzeko eta haiekiko paraleloan, Agenda Digitala 2015ek, elementu bultzatzaile osagarria den aldetik, herritarrentzat edo enpresentzat IKTetan oinarrituriko balio erantsiko hainbat zerbitzu garatzea du helburu.

Deskribapena

Administrazioak gizartearekin duen harremana hobetuko duten IKTak bultzatzera bideraturiko ekimenak, gardentasunaren, elkarreragingarritasunaren eta zerbitzu digital aurreratuen garapenaren bitartez, horrekin guztiarekin herritarren bizi-kalitatea eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko.

Helburuak

- ✓ Administrazioaren herritarrekiko hurbiltasuna bultzatzea, informazioaren kontsulta, trukea edo hura nonahi eta 24 orduz izapidetu ahal izatea erraztuko duten zerbitzu digitalak garatuta
- ✓ IKTetan oinarrituta, Administrazioaren gardentasuna bultzatuko duten eta informazio publikoa herritarrentzat eta enpresentzat eskuragarriago egon dadin ahalbidetuko duten estrategiak garatzea
- ✓ Eraginkortasuna hobetzea zerbitzu publiko digitalak emateko orduan, elkarreragingarritasuna bultzatuta

Programak eta ekimenak

Adierazitako helburuak betetzeko, planeko ekintzak bi programa mota desberdin baina osagarri garatzera daude bideratuta:

- ✓ **Zerbitzu elektronikoen erabilerrazak garatzea**
 - **Open Datako zerbitzuak** garatzea osagarri indartzaile gisa eta BPPn jasotako Open Data Euskadi bilakaera-proiektuarekin koordinatuta.
 - **Herritarrentzat 24 orduetan martxan izango diren on line zerbitzuak** bultzatzea, herritarren kudeaketa-lanak egiteko eremu gisa.
 - Administrazio-prozesuen **teletramitazioa** bultzatzea:
 - Erabiltzaileei trebakuntza eskaintzea teletramitazioko prozesuei buruz
 - Sektoreko dokumentazio *boxa* (Metapostarekin koordinatuta)
 - Herritarren erreklamazioak bilduko dituen on line sistema zentralizatua

✓ **Gizarteari hurbiltzea eta gardentasuna sustatzea**

- **Herritarrek administrazioaren informazioa eskuratzeko harpidetza-sistema pertsonalizatua** jartzea abian
- Administrazioaren arlo **ekonomiko-finantzarioan gardentasuna** sustatzeko ekintzak gauzatzea
- **Maila politikoetan gizarte-sareak** erabiltzea sustatzea
- **Erakundeen hainbat alderdi landuko dituen trebakuntza eskaintzea** haurrei

✓ **Elkarreragingarritasuna bultzatzea**

- Administrazioaren eta **sektore pribatuaren** (enpresak, elkarteak) **arteko elkarreragingarritasuna** hobetzera bideraturiko ekintzak

3.3 IKTetan oinarrituriko sistema sozio-sanitarioak

Osasun arloa

Azken urteetan IKTek izan duten bilakaerak aukera ugari ekarri dizkio osasun arloari; ondorioz, medikuen eta pazienteen arteko harreman-eredu berriak sortu dira. Eredu berri horiek eragin handia izan dute tradizioz onartutzat jo izan diren laguntza-prozesuetan.

Horrekin lotuta, laguntza-ereduak gero eta gehiago daude pazienteari zuzenduta; ondorioz, pazientea ari da bilakatzen osasun-sistemaren ardatz.

Duela urte batzuetatik, ahalegin handia egiten ari dira EAEn laguntza-prozesu guztiak berrikusteko eta berritzeko. Osasunaren arloko IKTek izandako bilakaera sakonari esker presentzialak ez diren laguntza-ereduak ezartzeko gero eta premia handiagoa izan da lan horri ekiteko arrazoia.

Jarduera-eremu horretan eta IKTen laguntzarekin, administrazio publikoa osasun-zerbitzuak egiteko, antolatzeke eta emateko modu berri baten aurrean dago.

Argi dago informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek (IKT) hainbat bide zabalduta dituztela osasun arloko informazio-trukean; haiei esker, laguntza modu berriak hasi dira agertzen, baita medikuaren eta pazientearen arteko urrutiko zerbitzuak ere. Gaur egun, telemedikuntza, telelaguntza, e-osasuna (*e-Health*) eta abar, oso ohiko elementu bilakatu dira osasun arloko foroetan.

Euskadin, laguntza-medikuntza kontsultetara aldizka bertaratzen ziren gaixo akutuei zuzendu izan zaie tradizioz.

Hala ere, Euskadiko osasungintzaren arreta gaixo akutuetan bakarrik egon beharrean, gaixo kronikoetara ere ari da zabaltzen; haiei kanal anitzeko laguntza-zerbitzuak eskaintzen hasi da, pazienteari emandako arretaren kalitatea hobetzeko asmoz.

Etorkizunera begira ezarri nahi diren ereduak pazienteek eta herritarrek beren burua zaintzearekiko duten erantzukizuna sustatzea bilatzen dute, baita jendearen artean bizi-estilo osasungarriak sustatzea ere.

Horregatik, IKTetan oinarrituriko osasun-zerbitzuak garatzerako bidean, Euskadik honako ezaugarri hauek betetzen ditu:

- Protagonismo eta parte-hartze handiagoa duten pazienteak
- Laguntza-kalitatearen hobekuntza
- Etengabeko bilakaera teknologikoa
- Premia eta laguntza-eredu berrien agerpena

Arlo sozio-asistentziala

Bestalde, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea bermatzeko, isolamendua saihesteko eta (helduak, ezintasunak dituztenak, immigranteak, eta abar) sozializazioa sustatzeko ezinbesteko tresna edo bide bilakatu dira.

IKTetan oinarrituriko zerbitzu sozio-sanitario sendoak garatu ahal izateko, ezinbestekoa da eraginpeko eragile guztien partaidetza:

- Erakundeena, jakintza-arlo berrietan proiektuak eta inbestimenduak kudeatzeko zailtasunak izan baititzakete
- Osasun- edo laguntza-arloko profesionalena, beren lan-karga nabarmen haztea jasan baitezakete
- Pazienteena/familiena, ezagutzen dituzten ohiko laguntza-ereduekin alderatuta desberdinak izan daitezkeen beste eredu batzuekiko ezagutza- eta konfiantza-falta izan baitezakete

Hori guztia dela-eta, zerbitzu mota horiek garatzerakoan arrakasta izateko, tartean dauden alderdi guztiek aldeaz aurretik jarrera ona izan eta bide horretatik joateko ahalegina egin behar dute.

Euskadiko Agenda Digitalak arlo horri ematen ari zaion bultzadari lagundu nahi dio, eta, horretarako, aurrerago zehaztuko ditugun hainbat jarduera-programa diseinatu ditu.

Deskribapena

Herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea bermatuko duen esparru sozio-sanitarioa ezartzera bideraturiko ekimenak, betiere IKTetan oinarrituta eta eragin eta balio erantsi handiko zerbitzu digitalen bitartez.

Helburuak

- ✓ Arlo sozio-sanitarioan zerbitzu digitalak garatzea, haien onuradunen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko
- ✓ Bazterketa digitala jasateko arriskuan dauden taldeak osasungintza arloan eta arlo sozio-sanitarioan sartuko direla bermatzea
- ✓ Herritarren artean ohitura osasungarriak sustatzea saretik
- ✓ Herritarrengan jarrera ekintzailea sustatzea beren osasunaren zaintzari dagokionez, IKTetan oinarrituriko ekimenen bitartez

Programak eta ekimenak

Esparru horren barruan garatu beharreko ekimenak elkarren artean oso lotuta dauden bi programaren baitan biltzen dira:

✓ **E-osasuna**

- Osasun-zerbitzu aurreratuentzat **bus/frame** bat garatzea
- Informazioa eta konplexutasuna monitorizatzea eta kudeatzea (**e-health**)
- **Telemedikuntzako** / telezaintzako zerbitzuak garatzea
- **O-sarean**: herritarrentzako arreta-zentro kanalanitza
- **Pazienteen euskal erkidegoa** (pazientearen jabeakuntza)
- Sarearen bitartez **bizi-estilo osasungarriak** sustatzea herritarren artean
- **On line hezkuntza**, ospitaletan egonaldi luzeak egiten dituzten pazienteentzat

✓ **Laguntza zerbitzuak informazioaren gizartean**

Programa horretan biltzen da gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonen (ezintasunen bat dutenak, helduak, eta abar) **bizi-kalitatea eta gizarteratzea hobetzera bideraturiko IKT ekimenak** garatzeko lana. Horien artean daude honako hauek:

- **Internetek eskaintzen dituen aukeratarako** sarbidea pertsona helduentzat
- IKTetan oinarrituriko **tresnak** bultzatzea, bazterketa arriskuan dauden hainbat giza talderen **gizarteratzea** ahalbidetzeko

3.4 Euskadi sarean

Lehiakortasun planak A-2 jarduera-lerroaren barruan ezartzen duenarekin bat, zeinak eskualdea inbestimenduak egiteko, eta talentuak eta turismoa ekartzeko leku erakargarri gisa aurkezten duen, Agenda Digitala 2015 berriak lehentasuntzat jotzen du Euskadik bere mugen barruan eta kanporantz ematen duen kulturari zein hizkuntzari buruzko irudia hobetzea, sareak eta IKTek eskaintzen dituzten baliabideen bitartez.

Helburua aurreko EIGPn hasitako euskal kulturaren eta hizkuntzaren ahalmen bultzatzailea areagotzea da, IKTetan oinarrituriko ekimenak garatuta, turismoaren, kulturaren eta Euskararen arloetan.

Azken batez, Eusko Jaurlaritzak Euskadik sarean izango duen presentzia oso-osoa izango dela bermatzeko, egungo eremu digitaletan eta etorkizunekoetan bere ondare kulturala eta hizkuntza-ondarea zaintzea eta zabaltzea lortzeko, eta turismoarentzat oso erakargarria izango den eskualdearen irudia emateko apustu estrategikoari eusten dio plan horren bitartez.

Deskribapena

IKT ekimen horien bidez proiektatu nahi den Euskadiren irudia honakoa da: kohesionatuta dagoen lurraldearena, kalitatezko helmuga turistikoa dena, bertako herritarrak, enpresak eta erakundeak Euskararen presentzia aberats, dinamikoa eta etengabekoari eusteko gai direnak Interneten nahiz bitarteko digitaletan, horrekin nortasun kulturala zaintzea eta zabaltzea ahalbidetuta.

Helburuak

- ✓ Euskal gizarteari esperientzia digital betea bermatzea, euskaraz, Euskararen berrikuntza, sustapena, dinamizazioa eta garapena bultzatuko duten IKT ekimenen bitartez
- ✓ IKTetan oinarrituriko zerbitzu berritzaileak garatzea, erabiltzaileari eskuragarri dauden baliabide turistikotarako eta nekazaritzako elikagaietarako sarbidea errazteko
- ✓ Herritarrei teknologia berrien bitartez euskarazko edukiak erabiltzeko eta haietaz nahiz euskal ondareaz gozatzeko aukera erraztea

Programak eta ekimenak

Eremu horren barruan garatu beharreko ekimenak elkarren artean oso lotuta dauden hiru programaren baitan biltzen dira:

- ✓ **Euskera digital@**
 - **Euskara berritzeko, sustatzeko, dinamizatzeko eta garatzeko erkidego birtualak**, honako hauek bilduko dituztenak:
 - Itzulpengintza automatikoa
 - Baliabide eta tresna digitalak/softwarea euskaraz
 - Komunikabide sozialak / erabiltzaileen arteko elkarrekintza
 - **Euskopedia: euskal entziklopedia**
- ✓ **Turismo-zerbitzu berritzaileak informazioaren gizartean**
 - **IKTetan oinarrituriko turismo-bulegoak**
 - **Natur parkeak nekazaritzako elikagaietarako on line sarbide-gune** gisa aurkezten dituen ikuspegi sustatuko duten IKT ekimenak bultzatzea.
- ✓ **IKT kultur zerbitzuak**
 - **3K's kultur kontsumoko ataria**

3.5 Tokiko Agenda Digitalak

Tokiko administrazioek gizartearen garapenean duten garrantzia ukazina da. Erakunde horien bereizgarri den kapilaritateak eta herritarrekiko eta enpresekiko hurbiltasunak rol oso garrantzitsua ematen die informazioaren gizarterantz aurreratzeko bidean.

Horrekin lotuta, pertsona guztiak bilduko dituen informazioaren gizarterantz aurrera egiteko borondatearekin, eta tokiko gobernuek arlo horretan betetzen duten rolaz jabetuta, tokiko agintariak informazioaren gizarteari buruzko Hirien eta Tokiko Agintaritzen Munduko II. Gailurrean *Bilboko Adierazpena* izenekoa sinatu zuten, eta adierazpen horretan, hiri eta udalerri guztietan Tokiko Agenda Digitala ezartzearen eta zabaltzearen aldeko apustua jaso zuten.

Jatorrizko kontzeptua 2005eko EISCO konferentzian jaio bazen ere, Bilboko gailurrean berrespen handia izan zuen.

Tokiko Agenda Digitala **informazioaren gizartearen arloko tokiko plan estrategikoa** dela esan genezake, eta haren helburua, mundu osoko udalerrien, hirien eta eskualdeen garapenari laguntzea da.

Illo horretatik, Euskadik Tokiko Agenda Digitalaren mugimenduarekin duen lotura oso sakona da hasiera-hasieratik, ez bakarrik adierazitako gailurra egin zenean bete zuen rol garrantzitsuegatik, baizik eta baita hura ezartzeko eta bultzatzeko ondoren egin duen apustu sendoagatik ere.

Adierazitako apustua dela-eta nazioarteko lider bilakatu da arlo horretan, eta IT4All ekimenaren tankerakoak garatu ditu. Agenda Digitala 2015 berriak ekimen horren bilakaera eta garapena bultzatu nahi ditu.

Bilbon prestatu zen ekintza-planean jasotako konpromiso nagusien artean zegoen informazioaren gizartea garatzeko estrategia komun bat hedatzearena; herritarren beharrei eta itxaropeni erantzungo dien proiektua izango da eta haiekin partekatuko dena, hiri edo eskualde bakoitzaren ezaugarri sozio-ekonomikoak, kulturalak eta erakundeei dagozkienak aintzat hartuta, eta garapen iraunkorra lortzera bideraturiko politikak eta ekintzak indartzen lagunduko duena (hazkunde ekonomikoa, kultura eta nortasuna, gizarte-kohesioa eta ingurumena), baita hirietako eta eskualdeetako herritarren garapenari lagunduko diona ere, batez ere egoera ahulenean daudenenari.

Hortaz, Tokiko Agenda Digitala lankidetzatresna da, eta erakundeen gardentasuna eta herritarren parte-hartze bideen aniztasuna lortzera, jardunbide egokiak ezagutaraztera, zerbitzu digitalak sortzeko jarraibideak eskaintzera, eta ideien eta esperientzien trukea bultzatzera bideraturiko hainbat ekimen biltzen ditu, tokiko erakunde adierazgarriak herritarrei hurbiltzeko helburuarekin.

Aurreko EIGP ezartzerakoan Tokiko Agenda Digitalen esparruan lorturiko emaitza garrantzitsuei jarraipena emateko (emaitza horien artean dago Euskadi arlo honetako nazioarteko erreferente bilakatzea), Euskadiko Agenda Digitala 2015 berriak jarduera-lerro hori bultzatzen jarraitu nahi du.

Deskribapena

Tokiko Agenda Digitalei dagokien jarduera-lerroan bildu dira Euskadiko gizartearen, hezkuntzaren, teknologiaren, ekonomiaren eta kulturaren garapenari laguntzera bideraturiko ekimenak, betiere hori lortzeko informazioaren gizartea garatzeko tokiko estrategiak (Tokiko Agenda Digitalak) erabiltzen dituztenak.

Helburuak

- ✓ Euskadiko informazioaren gizartea eraikitzeke prozesuan foru aldundien eta udalen gaitasunak, aukerak, proposamenak eta ekimenak sartzea
- ✓ Euskal administrazioek informazioaren gizartea bultzatzeko garaturiko ekimenen kapilaritateari laguntzea
- ✓ Lurraldearen orekari eta kohesioari laguntzea udalerriak eta lurraldeak indartuta, horrela pertsonen eta tokiko garapenaren zerbitzura egongo den informazioaren gizartea eraikitzeke
- ✓ Tokiko Agenda Digitala sustatzeko lanetan Euskadiren nazioarteko lidergoa bultzatzea

Programak eta ekimenak

Jarraian nabarmendu ditugu zabalduko diren programa nagusiak:

- ✓ **Tokiko Agenda Digitalen garapena bultzatzea**
 - EAEko udalerrietan Agendak aurkezteko eta ezartzeko lanean tokiko administrazioei **laguntzeko ekimenak** garatzea.
- ✓ **Tokiko Agenda Digitala sustatzeko lanetan Euskadiren nazioarteko lidergoa bultzatzea.**
 - **IT4All ekimenaren** bilakaera eta garapena

|| Zatia

Plana ekintza bihurtuta

4. azpiegiturak



4. AZPIEGITURAK

4.1 Aurkezpena

«Herritarrek, enpresek eta EAeko administrazioek informazioaren gizarteko zerbitzu digital aurreratueterako sarbidea izango dutela bermatzea, eta horrekin batera, sarbide hori abiadura ultrabizkorrean izango dela, horretarako hainbat bide edo gailu erabili ahalko dituztela, segurtasun maila altuak izango dituztela, haien prezioak arrazoizkoak izango direla eta edozein lekutatik sartu ahalko direla bermatzea».

Internetarako sarbide ultrabizkorra prezio arrazoizkoetan ematen duten abiadura handiko sareen zabalkundea da Europako erakundeek ezarritako lehentasun estrategiko nagusietako bat.

Europa 2020 estrategiak eta, horren barruan, Europako Agenda Digitalak, banda zabala hedatzeak EBN gizarteratzea eta lehiakortasuna bultzatzeko duen garrantzia azpimarratzen du.

Ildo horretarik, berandu jota 2013rako, oinarrizko banda zabala Europako biztanle guztien esku jartzeko helburua berretsi da, eta, horrez gain, 2020rako europar guztiek Internetarako sarbidea askoz ere abiadura handiagoetan –30 MB/s-tik gorakoetan– izatea proposatu da, baita Europako familien % 50 edo gehiago 100 MB/s-tik gorako Interneteko konexioetara harpidetuta egotea ere.

Bide horretatik, Avanza2 Planaren 2011-2015 aldirako strategiak azpiegiturak sustatzeari eskainitako ardatz espezifikoa bat biltzen du; bertan, 1 MB/s-ko banda zabaleko zerbitzua unibertsalizatuz, sare ultrabizkorren ezarpena bizkortuz eta eraikinen azpiegiturak sare horien eskakizunetara egokitzera bideraturiko ekimenak daude sartuta.

Era berean, azpimarratu beharra dago ELGaren lehentasun estrategikoen artean daudela banda zabala eta informazio-sareen eta -sistemen segurtasuna.

Euskadin ere funtsezkoa da elementu hori: herritar eta enpresa guztiei sare horietarako sarbidea bermatzea, haien kokapen geografikoa edozein dela ere.

Erronka handi baten aurrean gaude, horrelako eskualde txikian gure hiru lurraldeek dituzten ezaugarri orografikoak eta geografikoak direla-eta.

Aurreko EIGP 2010eri esker azken urteetan EAeko etxeetako eta enpresetako Internetarako konektibitatearen eta haren erabileraren alorrean lorpen handiak egin badira ere, eta Europakoetatik gero eta hurbilago dauden maila egokiak lortu badira ere, oraindik bide luzea egin behar dugu elkarren artean erabat konektaturik dagoen eta erreferentzia izango den Euskadi izatera iristeko.

Arlo horretan, Agenda Digital berritik garatu beharreko ekintzak hiru lerro nagusitan biltzen dira:

- Beharrezko azpiegiturak eta abiadura ultrabizkorreko belaunaldi berriko sarbide-sareak garatzea eta hedatzea
- Sarearen segurtasuna eta harekiko konfiantza bultzatzea
- Konektibitate mugikorra eta zerbitzuetarako nonahiko sarbidea

4.2 Azpiegitura eta sare ultrabizkorrak

Euskadin informazioaren eta jakintzaren gizartea erabat garatzea lortzea bideragarria izateko, ezinbestekoak dira euskal gizarte osoari sarbide unibertsala eta abiadura ultrabizkorretan konektatzea bermatuko dioten telekomunikazio-azpiegiturak izatea; horiei esker, zerbitzu digital aurreratu berriak baldintza ezin hobetan erabiltzeko eta aprobetxatzeko.

Horrekin lotuta, informazioaren eta jakintzaren gizarteak etorkizuna izango badu, belaunaldi berriko sareek eskaintzen dituzten aukerak baliatu beharko dituen ideia nahiko zabaldua dago.

Informazioaren gizartearen arloan European egin diren ekimen garrantzitsu guztiek, horien artean Europako Agenda Digitalak eta Avanza2 Planak, belaunaldi berriko sare ultrabizkorrak (NGN, 4G) zabaltzearen eta hedatzearen alde egiten dute tinko haien planteamenduetan.

Estatuan, elementu bultzatzaile osagarri gisa, 346/2011 Errege Dekretuak, telekomunikazioetako azpiegitura komunak arautzen dituen erregelamendua onartzen duenak, sare ultrabizkorrak ahalbidetzen dituen banda zabalari edo ultrazabalari esker operadoreek lehia askean eskaintzen dituzten telekomunikazioko zerbitzu aurreratuak modu askean eskuratzen lagunduko die erabiltzaileei.

Testuinguru horretan, Euskadiko Agenda Digitalak ezin du bestelako bide bat hartu eta adierazitako azpiegiturak garatzearen aldeko apustu sendoa egin du.

Deskribapena

Jarduera-ildo horrekin azpiegitura sendoak, eraginkorrak eta azkarrak edukitzea ahalbidetuko duten ekimenak sustatu nahi dira Euskadin informazioaren gizartea behar bezala garatzeko, ezarritako helburu estrategikoekin bat.

Helburuak

- ✓ Interneterako abiadura handiko sarbidea bermatzea euskal gizarte osoari, baldintza beretan, haien kokapen geografikoa edozein dela ere, horretarako belaunaldi berriko sareak EAEko lurralde osoan ezarrita
- ✓ Herritarren eta enpresen artean banda zabal ultrabizkorren erabilera bultzatzea, horretarako erabiltzaileentzat lehiakorrek izango diren prezioak ezarrita
- ✓ Administrazioaren eraginkortasuna hobetzea zerbitzu digitalak eskaintzeko orduan, horretarako egiturazko aldaketak eginda eta hardware birtualizaziora eta hodei konputaziora (*cloud computing*) bideratuta

Programak eta ekimenak

Ezarritako helburuak lortzeko asmoz, Agenda Digitalak honako programa hauek ezartzeko ahaleginean jarri du arreta:

- ✓ **Belaunaldi berriko sarbide-sareak zabaltzea eta hedatzea**

- **Banda Zabala+** proiektua

Eusko Jaurlaritzak azpiegituren arloan orain arte gauzaturiko ekintzek banda zabala EAEko ia udalerrri guztietan ezartzea ahalbidetu dute, eta estaldura hori duten eremuetan bizi diren biztanleen % 94 baino gehiagorengana iritsi da.

Hala ere, gizartean, haren gaitasun digitaletan eta premietan gertaturiko aurrerapenek nahiz teknologiaren beraren aurrerapenek orain arte nahikoa ziren konektibitate-bideak eta sarbide-aukerak nahikoa izateari uztea ekarri dute.

Hori dela-eta, daudenak baino gaitasun handiagoa duten banda zabaleko sarbideak eskatzen dira, belaunaldi berriko sarbide-sare gisa (NGA) ezagutzen direnak alegia, 30 MB/s-ko abiadura gainditzen duten sarbideak eskaintzen dituztenak.

Aldi berean, teknologia- eta konektibitate-aurrerapen horiekin loturiko beste premia bat banda zabal mugikorra da, ez bakarrik mugikortasun zerbitzu gisa, baizik eta gaurkoak baino gaitasun handiagoa duten banda zabaleko zerbitzuak kable bidezko konponbideak hain bideragarriak ez diren lekuetara eramateko. Zerbitzu mota hori ezartzeko ezinbestekoa da 3G eta 4G izeneko teknologia mugikorrek hedatzea.

NGAk eta 3G/4G teknologiak garatzeak, bere garaian banda zabal «tradizionalarekin» gertatu zen bezalaxe, berekin dakar sarbide ultrabizkor eta mugikortasuneko zerbitzu horiek dituzten eta horrelakorik ez duten edo haien garapenak luze joko duen lekuen arteko eten digital berri bat sortzeko arriskua, eta horrek, informazioaren eta komunikazioaren teknologien garapenari loturiko bultzada sozioekonomikoa oztopatuko luke.

Hori dela-eta, eta Europako Agenda Digitalarekin bat eginda, Banda Zabala+ proiektua abiarazi nahi da Euskadin.

Banda Zabala+ proiektuaren helburua belaunaldi berriko banda zabaleko sare ultrabizkorrek bultzatzea da, haiekiko sarbidea eta haien erabilpena errazteko, eta horrekin IKTek bilatzen duten EAEko garapen ekonomikoaren eta gizarte-garapenaren biderkatze efektua lortzeko.

Gaur egun EAEko biztanleen % 88 sare mota hori daukan udalerrietan eta zonaldeetan bizi dira.

Proiektuaren helburu nagusia Euskadi, banda zabal ultrabizkorrari dagokionez, Europar lider diren herrialdeen mailara iristea da.

Eta zehazkiago, Banda Zabala + proiektuak honako emaitza hauek lortu nahi ditu:

- Gutxienez 100 MB/s-ko abiadurako banda zabal finkoko zerbitzuak izatea eskuragarri 1.000 biztanletik gorako biztanle-nukleo guztietan, eta 1 GB/s-koa teknologia- eta negozio-guneetan
- Zerbitzu horien heldutasuna lortzea, alegia, % 20ko sarpena izatea sare ultrabizkorrek dituzten etxeetan
- Gutxienez 30 MB/s-ko azken belaunaldiko zerbitzu mugikorrek izatea biztanleen % 90entzat, 5.000 biztanletik behera dituzten herrietan eta garraio bide nagusietan

Adierazitakoa lortzeko, proiektuak hiru lerro estrategiko garatzea proposatzen du:

1. **Belaunaldi berriko sarbide-sareak** sortzea.

Horrekin lotuta, sare ultrabizkorren hedapenerako inestimenduentzat oztopoak murriztera bideraturiko ekintzak biltzen dira, horrela sare horiek erabili ezean sarbiderik izango ez luketen lekuetara eramateko edo sare horiek Euskadira iristeko unea aurreratzeko.

2. Teknologiaren aldetik aurreratuak diren **zerbitzuen eta edukien eskaera bultzatzea.**

Arlo horretatik gaitasun handiko telekomunikazio-sareak erabiltzea bultzatu nahi da, hori lortzeko zerbitzu eta eduki aurreratuak sortuta; horiek *driverak* izango dira herritarrei, enpresei eta administrazio publikoei emandako prestazioak direla-eta.

3. IKTak garatzea **erraztuko duten neurriak** sortzea.

Ildo horretan biltzen dira Eusko Jaurlaritzak, IKTak Euskadin zabaltzeko asmoz, proposa ditzakeen araudiekin edo erregulazioekin loturiko alderdiak.

✓ **Hodei konputaziora bideraturiko Euskadiko estrategia**

- **Euskadin enpresa-azpiegitura eta -ekosistema bultzatzea hodeiaren inguruan.**

Hodeiaren kontzeptua berria ez bada ere, egia da azken urteetan arrakasta komertzial handia izan duela eta IKTen alorrean ere zeresan handia izango duela hurrengo hamar urte luzeetan, kudeaketa-ahalmenak eta zerbitzu-hornikuntzakoak erabat ustiatuko direnean.

Hodeiaren interes komertziala eztabaida ezina da; izan ere, paradigma-aldaketa ekarri du IKTen erabileran eta, hemendik aurrera, «erabiltzeagatiko ordainketa»ren arabera funtzionatuko du, «azpiegituragatiko ordainketa»ren ordez.

Paradigma berri horrek ateak zabaltzen dizkio zerbitzuen azpikontratazio gero eta handiagoari eta,aldi berean, IKTen azpiegitura mugatuaren zabaltze handiari. Bestalde, asko txikitzen ditu zerbitzu-hornitzaile berriak sartzeko oztopoak. Hornitzaile horiek, merkatu zabalagoari eskaini diezazkiekete beren zerbitzuak, ezartze-kostu eta azpiegitura-eskakizun minimoekin. Berez, hodei azpiegituren gaitasun bereziek zerbitzu berriekin esperimendatzeko aukera ematen diete hornitzaileei,aldi berean, baliabideak alferrik galtzeko arriskua gutxiagotuta.

Teknologia horiek gero eta gehiago ari dira erabiltzen eta, aurreikuspenen arabera, hodeiaren bitartez eskainitako zerbitzuek 35 milioi euro inguruko diru-sarrerak eragingo dituzte Europan 2014rako.

Erabiltzaileen ikuspegitik, *Cloud Computing* izenekoak azpiegitura eta mantentze lanetako langileen kostuak nabarmen murrizten laguntzen du, eta enpresa txikiei orain arte handiek baino erabil ezin zitzaizkien teknologiak eskuratzeko aukera ematen die. Hodeiko birtualizazioak hainbat abantaila ditu, besteak beste:

- **Kostuak aurrezteak:** eraginkortasuna eta murrizketa ekipamenduaren erabileran, denbora-aurrezpena *cloud* ingurunearen erabilgarritasunak eskaintzen dituen abantaila eta erraztasunak esker.
- **Probatzeko inguruneak:** sistemen birtualizazioak beta bertsioekin probak egiteko eta egunero erabiltzen ez diren programak instalatzeko aukera ematen du.
- **Isolaturiko segurtasun-inguruneak:** hodeiak isolaturiko sistemak eskaintzen ditu; haietan, Interneterako konexio bakarrak ingurune seguruetan egiten dira eta nabigazioa askoz ere kontu handiagoarekin egingo da.
- **Programen bateragarritasuna:** bateragarritasuna hainbat sistema eragile erabiltzerakoan.

Potentzial handia duten arren, hodeiko modeloak eta teknologiak ez daude oraindik beren onenean. Gainera, hodeiarekin loturiko gaitasunetako asko ez daude haiei atera dakieken etekinik handiena ateratzeko adina ikertuta edo garatuta.

Horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu hodeian eta haren merkatuetan lehiakor izango den euskal industria bultzatzea, hodei konputazioko zerbitzu berritzaileak enpresen nahiz herritarren artean zabaltzea erraztuta.

Hodei konputazioa aukera paregabea da Euskadiko ekonomia-sarearentzat, honako arrazoi hauek direla-eta:

- ETEen eta enpresa handien arteko eten digitala txikitzen du, eta teknologiarako sarbidea demokratizatzen du.
- ETEei teknologian eginiko inbestimendua murrizten laguntzen die (hardwarean, softwarean eta TI kudeaketan).
- Askok hobetzen du eraginkortasuna sektore publikoko IKTen kudeaketan.

Euskal enpresek beren IKTak birtualizatzeko duten behar horri lotuta, zerbitzu horiek emango dituen sektore bat bultzatzeko aukera ere antzematen da, eta ez bakarrik euskal enpresei eta sektoreei, baita merkatu globalari ere. Ildo horretatik, ekonomian oro har duen eragina ikusita, egokitzen jotzen da hodei konputaziora bideraturiko Euskadiko Estrategia bat sortzea. Eusko Jaurlaritzak dinamizatzaile eta babesle lanak egingo lituzke, beste herrialdeetako gobernuek egin duten bezalaxe (AEB, Frantzia, eta beste batzuk).

Estrategia horrek zuzenean eragin beharko luke hodeiaren bitartez zerbitzuak garatzen dituzten enpresetan (Software as a Service edo SaaS) –merkatu globalari zuzendutako negozio berria–, nahiz beste enpresa/ETE batzuek zerbitzu horiek erabiltzeko aukeran; horrek guztiak kostuak murriztuko lituzke eta enpresei beren jarduera nagusian zentratzeko aukera emango lieke.

Hortaz, Estrategiaren helburu nagusia SaaS zerbitzuak eskaintzen dituzten euskal enpresak garatzea eta nazioartekotzea izango litzateke, baita gainerako euskal enpresen artean hodeiaren bitartez emandako zerbitzuen erabilera bultzatzea ere.

Adierazitako bi mailak –SaaS enpresen garapena eta ekoizpen-sistemako enpresek hodeia erabiltzea– zuzenean sustatzeak eta Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuen erabateko kokapenak edo kokapen partzialak eskaera nabarmen haztea eragingo du. Hazkunde hori aintzat hartuta, hodei konputaziora bideraturiko Euskadiko Estrategiaren barruan ezarritako helburuak lortzeko konponbiderik egokiena aztertu, zehaztu, garatu eta bultzatu beharko litzateke.

Konponbide horrek honako alderdi hauek ase beharko ditu:

- Plataforma bat sortu ahal izatea zerbitzu gisa (PaaS), eta zerbitzu hori hainbaten artean alokatu ahal izatea, horrela, Euskadiko hainbat enpresak hura erabil dezaten beren zerbitzuak garatzeko, baita lankidetzak bultzatzeko ere.
- Ekimen pribatuaren aldetik merkataritza-interesa piztea.
- Negozio horren bideragarritasuna aintzat hartuko duten enpresa baten edo batzuen trankzioa.

4.3 Segurtasuna eta sarearekiko konfiantza

Euskal ekonomia ingurune oso aldakorrean mugitzen da gaur egun, zeinetan merkatu gero eta globalagoak baitiren nagusi; testuinguru horretan, ekonomia digitala aukera bat da, baina aukera horrek arrisku berriak ere badakartza berekin.

Agertoki horretan ezinbestekoa da, alde batetik, arrisku horiek ezagutzea eta kudeatzea eta, modu paraleloan, gizartean haiekiko prebentzio-kultura sorraraztea.

Teknologia berriek gero eta abiadura handiagoak ematen dituzte Internet erabiltzerakoan, baina haixek dira, halaber, mehatxuak zabaltzen dituztenak.

Era berean, Euskadiko gero eta familia eta enpresa gehiagok dute Interneterako sarbidea, eta horrek, mehatxuen balizko biktimen kopurua areagotzen du; bestalde, erabiltzaileek eskatzen duten Interneten erabilera azkar, erraz eta erosoak ere ziber-delinkuentziarako aukera gehiago sortzen ditu.

Azken finean, komunikazio eta eragiketa elektronikoen segurtasun ezaren pertzepzioa eta dauden mehatxuen aurrean nola babestu ez jakitea oztopo handiak dira Euskadin informazioaren gizartea bultzatzeko garaian. Ezinbestekoa da oztopo hori kentzea.

Herritarrak hezte, prestatzea eta sentsibilizatzea ezinbesteko neurria da segurtasunaren kultura sortzeko, IKTen erabilerarekiko duten konfiantza hobetzeko eta informazioaren gizarteak eskaintzen dituen aukerak hobeto ezagutzea lortzeko.

Horrekin lotuta, Agenda Digitala 2015ek beharrezkotzat jotzen du segurtasunari buruzko jakintzak eskuratzeko eta konfiantza digitala sustatzeko neurriak eta zerbitzuak ematera bideraturiko ekimenak bultzatzea, baita sistemak eta ingurune seguruak sortzea ere, sarea eta zerbitzu digitalak segurtasunez erabili ahal izateko.

Neurri eta ekimen horiek herritarrei zein enpresei zuzendu behar zaizkie, baita administrazioari ere, eta arreta berezia eman behar zaie identifikaturiko arriskuak jasateko aukera gehiago dituzten taldeei, esaterako, adin txikikoei, helduei edo ezagutza digital gutxi duten erabiltzaileei.

Deskribapena

Arlo horretan, garatu beharreko ekimenak Internet erabiltzerakoan segurtasuna eta pribatutasuna bermatzera bideratzen dira, arrisku teknikoak nahiz delituzkoak minimizatzea, eta sarearen erabilera seguruaren kultura bultzatuko duten zerbitzuak garatzera.

Helburuak

- ✓ Parte-hartze publikoa eta pribatua izango duen Segurtasunaren Euskal Gunea sortzea sustatzea
- ✓ Segurtasunarekin loturiko gertakari teknikoaren kopurua minimizatzea
- ✓ Euskadin, identifikazio digitala garatzea ahalbidetzea
- ✓ Aplikazioen segurtasuna bermatuko duten sistemak ezartzea

Programak eta ekimenak

Arlo horretako planaren ekintzak jarraian zerrendatuko ditugun programak garatzera daude bideratuta:

✓ **Segurtasunaren Euskal Gunea sustatzea**


Gaur egun, sareetan gertatzen diren erasoak gero eta sofistikuagoak eta jarraitzeko zailagoak dira. Haien aurka egiteko eta prebentzio-sistema eraginkorrak izateko modu bakarra arlo horretako I+G+B prozesuak bizkortzea da.

Agenda Digitala 2015ek ezinbestekotzat jotzen du baliabide espezifikoak esleitzea Euskadin sarearen bitartez jazotzen diren gertakarien kontrola bermatzeko.


Egoera horren aurrean larrialdi digitalei erantzuteko zentro (CERT) gisa funtzionatuko duen adimen zentro bat sortzeko beharra ageri da; haren zeregina informazio-sistemen arriskua murriztuko duten neurriak ikertzea eta garatzea izango da, baita bestelako funtzio osagarri batzuk betetzea ere.

Proposatutako ereduak segurtasun digitalaren **arloan berrikuntza-polo** bat sortzea bilatzen du, arlo horretan erreferentziako eredu bilakatuko dena.

Segurtasun-zentro horrek partaidetza publikoa eta pribatua izango luke eta ezinbesteko pieza litzateke segurtasun-gertakariak ikertzeko, haiei aurrea hartzeko, haien aurrean adi egoteko eta haiei erantzuteko lanean, eta, bestalde, EAEko enpresen, herritarren eta erakunde publikoen informazio-sistemen segurtasun maila hobetu beharko luke.



Ereduak ondo funtzionatzeko oinarriko hiru elementu bildu behar ditu:



Hortaz, elementuetako bakoitzak honako funtzio nagusi hauek hartu behar ditu bere gain:

- *Segurtasuna Kudeatzeko Zentroa*
 - ✓ Administrazio publikoan, segurtasunaren jarraipena egitea eta hura kudeatzea 24 orduz eta asteko zazpi egunetan.
- *Adimen zentroa*
 - ✓ Zaintza digitala
 - ✓ Gizartean segurtasun digitala bultzatzea
 - ✓ EAeri eragiten dioten alertak eta gertakariak kudeatzea
 - ✓ Herritarrak, enpresak eta administrazioa sentibilizatzea
- *Segurtasunerako Ikerketa Zentroa*
 - ✓ Administrazioarentzat eta, oro har, gizartearentzat konponbideak, hobekuntzak eta segurtasun-planak garatzeko segurtasunerako bulego teknikoak.
 - ✓ Segurtasunaren arloko ikerketa proiektuak garatzea

✓ **Konfiantza digitala bultzatzeko zerbitzuak garatzea**

Informazioaren gizartea bultzatzeko neurri osagarri gisa, garrantzitsua da herritar erabiltzaileei Internet erabiltzerakoan beren konfiantza mailak eta segurtasun-pertzepzioa areagotuko dituzten zerbitzu digitalak eskaintzea.

Horregatik, honako ekimen honen tankerakoak garatzea proposatu da:

- **e-Konfiantzako zerbitzuak** izango dituen **on line** sistema **fede-emailea** bultzatzea, erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko
- **Identifikazio digitala** bultzatuko duten ekimenak sortzea: zerbitzu digitaletarako sarbide bakarra / sinadura elektronikoa
- **Adin txikikoak babestea** identifikazio digitalaren bitartez
- Gazteen eta helduen artean **gizarte-sareen erabileran pribatutasuna** bermatzeko ekimenak bultzatzea

4.4 Zerbitzuen mugikortasuna eta nonahiko sarbidea

Argi dago Internetek eta IKTek, oro har, nabarmen aldatu dutela gizartearen bizitzeko, lan egiteko, ikasteko edo aisialdiaz gozatzeko modua. Nolanahi ere, teknologia horien etengabeko bilakaerak erronka berriak dakartza urrats bakoitzean.

Duela gutxi IKTen arloko terminorik ezagunenak «elektroniko» hitzari egiten bazion erreferentzia, esaterako *e-administration*, *e-business*, *e-procurement*, *e-commerce*, *e-learning*, eta abar moldeetan, gaur egun **nonahikotasuna** protagonismo handia hartzen ari da, eta «u» hizkiarekin irudikatzen da (ingeleseko *ubiquitous* terminotik eratorria); hortik datoz *u-cities*, *u-learning*, eta abar.

Nonahikotasunaren definiziora jotzen badugu, alegia, aldi berean leku guztietan egoteko ezaugarria, informazioaren gizartearen esparruan, gaur egun IKTek informazioa eta zerbitzuak edozein unetan eta edozein lekutik eskuratzea ahalbidetzen dute, horretarako hainbat gailu erabilia; horrek aldaketa izugarria ekarri du orain arte onarturiko Interneten erabileraren paradigman.

Horrekin lotuta, hari gabeko sareetan eta azken belaunaldiko telefonia mugikorrean oinarrituriko teknologiek abantaila bereizgarriak eskaintzen dituzte malgutasunari, ekonomiari edo erosotasunari dagokionez; hori dela-eta, tresna egokiak dira sare finakoak jartzea zail gertatzen den lekuetan azpiegiturak zabaltzeko, edo, erosotasunagatik nahiz premia bereziengatik sare finakoak izateari egoki ez deritzoten erabiltzaileen premiak asetzeko.

Dena dela, Euskadiko administrazioa jabetuta dago konektibitatea eta mugikortasun zerbitzuak garatzeko aukerak ez daudela azpiegituren mende bakarrik; aldiz, garrantzi handiko bestelako ardatz edo motorrak daude eta haiek bultzada indibiduala behar badezakete ere, haien bilakaera sinkronizatua bermatu behar da:

- ✓ Erabiltzaileak
- ✓ Edukiak/zerbitzuak
- ✓ Sarbiderako gailuak
- ✓ Konektibitaterako azpiegiturak eta teknologiak

Jarduera-esparru horretan, Agenda Digital berriaren helburua Euskadin nonahikotasun handiagoa izango duen unibertso digital mugikorra lortzea da, erabiltzaileen premiei hobeto egokituko zaiena eta izaera sozialagoa edukiko duena.

Deskribapena

Jarduera-lerro horren barruan herritarrek eta enpresek, mugikortasunean oinarrituriko teknologien eta zerbitzuen bitartez, informazioaren gizarterako nonahiko sarbidea izatera bideraturiko ekimenak garatzea planteatu da.

Helburuak

- ✓ Lurralde osoan hari gabeko sareen hedapen masiboa bultzatzea
- ✓ Lurraldeen arteko oreka eta gaitasun handiko mugikor bidezko komunikazioen hedapena ahalbidetuko duten mugikortasun-zerbitzuak garatzea
- ✓ Mugikortasunaren arloan, teknologia-joera berriekin esperimendatzea: NFC, errealitate handitua, *broadcast* bidezko telebista, eta abar

Programak eta ekimenak

Ezarritako helburuak lortzeko, arlo horretako ekintzek jarraian aipatuko ditugun programen garapenean jarriko dute arreta:

- ✓ **Informazioaren gizartera mugikortasun bidezko sarbidea izatea bultzatzea.**
 - **Esperimentazioa bultzatzea mugikortasun-zerbitzuen arloan**
 - **Mugikortasun zerbitzuen garapenari laguntzea** (honako zerbitzu hauentzako aplikazio mugikorrak: errealitate handitua, mugikor bidezko ordainketa, parte-hartzea, beste batzuk)
 - **NFC teknologiak** bultzatzeko ekimenak
- ✓ **Mugikortasuneko konektibitatea bultzatzea**
 - **Hari gabeko sareak** zabaltzea (banda zabal mugikorreko teknologia)

II Zatia

Plana ekintza bihurtuta

5. Euskadiko agenda Digitala
2015en kudeaketa eta
sustapena

5. EUSKADIKO AGENDA DIGITALA 2015EN KUDEAKETA ETA SUSTAPENA

Lau ardatz estrategikotan egituratu nahi dira Agenda Digitalaren esparruan garatu beharreko jarduerak, eta dokumentu honetako aurreko puntu batzuetan aztertu dira haiek. Ardatz horiekin batera, izango da bosgarren bat ere, eta izaera operatiboago bat izango du.

Azalpena

Ardatz horrek «Agenda Digitala 2015en Kudeaketa eta Sustapena» du izena. Ekimen horren bitartez, izaera propio bat eman nahi zaie Planak behar dituen kudeaketa-, koordinazio-, hedapen- eta sustapen-jarduerei, haren hedapenean koherentzia, eraginkortasun, eta efikazia handiagoak iristeko.

Helburuak

Hala, haren helburu nagusiak hauetara zuzentzen dira:

- Planean aurreikusitako kudeaketa-ereduaren euskarri izatea, eredu horrek ezartzen baitu nola egiten den kudeaketa Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren barruan eta Euskal Administrazioaren gainerakorantz.
- Kudeaketa- eta koordinazio-lanak hobetzea indartzea, informazioaren gizarteko elementuek aipatu ardatzen artean duten zeharkakotasun-potentzialtasuna aprobetxatzeko.
- Tresna-laguntza eskaintzea, Planaren eta EAEko administrazioez kanpoko erakundeen arteko eta erakundeez kanpoko ingurunearekiko harremanak laguntzeko.
- Beharrezko laguntza ematea, ekimenen eta proiektuen, eta informazioaren gizarteak berekin ekar ditzakeen aukeren zabalkunde- eta komunikazio-ekintzak garatzeko, haien eragina handitzeko.

Kontuan izan beharreko alderdiak

Agenda Digitalaren kudeaketarekin lotuak

Agenda Digitalaren kudeaketaren eta sustapenaren arloan jasotako hirugarren helburuari dagokionez, azpimarratu behar da planaren dinamizazioak elkarrekintza iraunkor bat ekarri behar duela berekin, bai erakundeen artean, bai sailen artean.

Nahiz eta sailen arteko koordinazioa eta elkarlana dokumentu honen aurreko atalean deskribatutako kudeaketa-ereduaren bitartez gelditzen den egituratuta, erakundeen arteko mailan, berriz, elkarrekintza beste erakunde (europarrak, Estatukoak edo tokikoak) batzuekiko konexio-puntuak bilatzean oinarritzen da.

Jokaleku horretan, jarraian jasotzen dira Agenda Digitaletik sortzen diren erakunde-izaerako harremanak eta/edo koordinazio eta finantzaketa mailan diren aukerarik esanguratsuenak:

- Europako Agenda Digitalaren strategiaren babesean sor daitezkeen elkarlan- eta litezkeen fidantza-harremanak.
- Estatu mailan, informazioaren gizartearen esparruan Administrazio Zentralaren strategiaren babesean sor daitezkeen elkarlan- eta/edo finantzaketa-aukerak.
- Jadanik Planaren oinarriak definitzen parte hartu duten stakeholderrak edo kanpoko eragile garrantzitsuak eta Planaren osotasuna lerrokatzen saiatzea, jarduteko sinergiak bilatzeko eta inplementazio-prozesuan iristen diren emaitzak indartzeko.

- Tokiko agenda digitalen hedapenean Euskadin sor daitezkeen elkarlan- eta litezkeen finantzaketa-harremanak, Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) jadanik hasitako bidetik.
- Agenda Digitala 2015en hedapenean eta inplementazioan (foru-aldundiak, etab.) zehar identifika daitezkeen erakunde arteko beste harreman batzuk.

Agenda Digitalaren hedapenari eta sustapenari dagozkionak

Hedapenaren ikuspuntutik, Euskadiko Agenda Digitala 2015en Sustapenerako plan bat edukiko da. Plan horrek definitutako kudeaketa-ereduaren motor gisa aritu behar du, eta helburu zehatz bat dauka: informazioaren eta jakintzaren gizarte osoranzko bidean Euskadik marraztu behar duen estrategiaren ezagutza bultzatzea.

Ezarritako helburuak iristeko, beharrezkoa da definitutako strategiaren edukia eta garapena euskal gizarte osora hedatzea eta hurbiltzea, aurrerakada-prozesu honetan nahitaezko partaidetza izan behar duten taldeetan edo eragileengan arreta berezi bat jartzen dela.

Ilido horretan, honako hau da sustapen-plan horren izateko arrazoa: edozein pertsonari edo erakunderi ematea ezagutzera Agenda Digitalaren esparruan definitutako ardatzak, lerroak eta programak, hala nola informazioaren gizartetik bazterturik ez geratzeko eskura dauzkan baliabideak.


Dena dela, funtsezkoa izango da beste gauza bat ere: planaren garapen eta ezarpen maila ezagutaraztea hura gauzatu bitartean, egoki irizitako maiztasunarekin eta gardentasun maila handi batekin.

Agenda Digitalaren Idazkaritza Teknikoak hartuko ditu sustapen-plan horren zuzendaritza eta koordinazioa, Industria Saileko eta SPRIko komunikazio sailekin koordinatuta.

III Zatia

PLANAREN INPLEMENTAZIOA ETA FINANTZIALAZIOA

1. Kudeaketa-eredua: ezarpena, jarraipena eta ebaluazioa



III. ZATIA: PLANAREN INPLEMENTAZIOA ETA FINANTZIAZIOA

1. KUDEAKETA-EREDUA: EZARPENA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Kudeaketa-ereduaren egitura

Euskadi Informazioaren Gizartean 2015 Planak (Euskadiko Agenda Digitala deritzanak) bost urteko epemuga du. Uste da, izan ere, epe horretan diseina, gara eta inplementa daitezkeela martxan jartzea erabakitako proiektuak.

Plan horretako kudeaketa-ereduak aurreko EIGPn metatutako esperientzia jasotzen du, eta oso kontuan ditu, halaber, Lehendakaritza Saileko Koordinazio Zuzendaritzak alor horretan egindako proposamenak; bai egitura formalak arintzeko beharraz, kudeaketa errazagoa izateko; bai egiturak ez errepikatzeko eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko egitura organikoan jadanik diren egitura formalak aprobetxatzeko beharraz. Izan ere, sail horri dagokio gogozkion plana gidatzea.

Ildo horretan, 4/2009 Dekretuak, maiatzaren 8koak, Lehendakariarenak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, bere 11. artikuluan, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo (hasieran, Industria eta Berrikuntza) Sailaren gain uzten du eskumen hau: «euskal gizartean ezagutzaren eta informazioaren aroko gizartea garatzea eta sustatzea, betiere administrazio eta gobernu elektronikoaren arloko jarduerak kaltetu gabe».

Horren ondorioz, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari dagokio Planaren kudeaketaren aitzindaritza. Zehazkiago, 514/2009 Dekretuak, irailaren 22koak, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, hiru jarduera-esparru zedarrizten ditu:


- Bere 4. artikuluan, 2. puntuan, honako hau dio: Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburua, Sailaren organo gorena denez gero, Sailari esleitutako organo, arlo eta jardun guztien zuzendaritzaz, koordinazioaz eta kontrolaz arduratuko da.
- Bere 8. artikuluan, 1. puntuan, dio Berrikuntza eta Teknologia Sailburuordetzari dagokiola, zeina sailburuaren mendean baitago zuzenean eta hierarkikoki, Sailaren lau jardun-arlo zuzentzea eta koordinatzea. Haien artean, eta b atalean, «informazioaren eta jakintzaren gizartea» aipatzen da.
- Bere 9. artikuluan, adierazten du Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zuzendaritzari dagokiola informazioaren eta jakintzaren gizartea garatzera eta sustatzera zuzendutako jarduerak zuzentzea; hau da:
 - ✓ Euskal gizartean informazioaren eta jakintzaren gizartea garatzeko neurriak sustatzea, administrazio eta gobernu elektronikoaren esparruan Autonomia Erkidegoko Administrazio beste organo batzuei dagozkien eskumenei kalterik egin gabe.
 - ✓ Berrikuntzaren, kudeaketaren kalitatearen, pertsonen eta informazioaren eta jakintzaren gizartearen arloan jarduteko programak lantzea, gauzatzea eta ebaluatzea.

Esleitutako arduren arabera, Planaren kudeaketako, jarraipeneko eta ebaluazioko antolakuntza-ereduak bost konpromiso eta esku-hartze maila ezartzen ditu:

1. **Gobernu Kontseilua**, hau da, Plana onartzen duen organoa.
2. **Zuzendaritza Batzordea**, hau da, Planaren jarraipena egiten duen organoa.
3. **Batzorde Teknikoa**, hau da, Planaren gauzapena koordinatzeaz eta zaintzeaz arduratzen dena. Maila horretan biltzen da Planaren arrakastarako faktore kritikoek kudeaketa.
4. **Jarraipen-batzordeak**. Proiektuen koordinazioa eta sailen arteko jarraipen operatiboa egitea dute zeregina; horrela, Plan osoaren kudeaketa, jarraipen eta ebaluazio egoki batzuk egin ditzakete, Gobernuak ezarritako konpromisoaren arabera.
5. **Idazkaritza Teknikoa**. Planaren kudeaketa laguntzeko organo iraunkorra da, eta, horretarako, planaren garapen egokia bermatzeko beharrezko baliabideez hornituko da.

Jarraian, Agenda Digitala 2015 eratzeko kudeaketa-eredua jasotzen duen eskema grafikoa aurkezten da.

ONARTZEKO EREMUA



Zuzendaritza Batzordea

Zuzendaritza Batzordea Plana zuzenduko eta ikuskatuko duen organoa da.

Hainbat zeregin ditu esleituta kudeaketa-ereduan:

- Plana Gobernu Kontseiluari aurkeztea, onartua izan dadin
- Ebaluazio- eta jarraipen-txostenak onartzea
- Plana berrikustea eta aldaketak eta/edo zabaltzeak proposatzea

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburua da Batzordearen buru, eta Presidenteak izendatzen dituen sailburuordetza mailako Saileko arduradun politikoez egongo da osatuta.

Batzorde Teknikoa

Agenda Digitala 2015 maila operatiboan koordinatzen duen organoa da Batzorde Teknikoa.

Honako hauek dira Batzorde Teknikoaren funtzioak:

- Ebaluazio- eta jarraipen-txosten globalak aurkeztea Zuzendaritza Batzordeari, onartuak izan daitezen
- Jarraipen-batzordeek baliozkotutako proiektuen jarraipen-txostenak onartzea
- Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak kudeatutako proposamenetako eta proiektuen jarraipeneko txostenak onartzea
- Idazkaritza Teknikoak egindako lanak baliozkotzea lehen instantzian; baita hark bere funtzioak betetzean sortu dituen edukiak ere (jarraipen-txostenak, adierazleen panelak, etab.).
- Honako hau proposatzea beraren ekimenez edo Idazkaritza Teknikoaren eskariz: EIGPn jasotako jarduerak ingurune sozial, ekonomiko eta teknologikoaren bilakaerara egokitzeak eta Planari esleitutako aurrekontu-baliabideen aprobetxamendu egokia ziurtatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartzea.
- Aipatu diren eta informazioaren gizartearekin zuzenean lotuta dauden gainerako gobernu-planetikiko lotura-puntuak eta koordinazioa zaintzea.
- Planean tarteko diren stakeholderren elkarlan-harremanak eta lerrokatze-bilaketa zaintzea, emaitzak indartzeko.
- Erakundeekiko eta kanpoko eragileekiko elkarlan-harremanak zaintzea, Planean aurreikusitako helburuak iristea erraz baitezakete harremanok.

Berrikuntza eta Teknologia sailburua da Batzorde Teknikoaren buru, eta Presidenteak izendatzen dituen zuzendaritza mailako Saileko arduradun politikoez egongo da osaturik Batzordea.

Jarraipen-batzordeak

Agenda Digitala 2015ek hainbat proiektu garatzea aurreikusten du bere planteamenduan. Haien kudeaketa Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko sailei dagokie. Sailari esleitu zaio Planaren aitzindaritza; baita haren kudeaketa, jarraipen eta ebaluazio egokia egiteko ardura ere.

Sail guztiek hartu behar dute parte Planaren edukiaren idazketa ekarri behar duen hausnarketan, hitzartutako eta jadanik dokumentu honetan deskribatutako eskemaren arabera. Hori egin dutenean, harreman-formula propio bat egituratu behar da sail bakoitzean proiektuak kudeatzeko ardura duten pertsonen eta Planaren kudeaketaz eta zaintzaz arduratzen diren pertsonen artean. Horregatik, sailen arteko jarraipen-batzorde batzuk sortzea erabaki da.

Honako hau da batzordeon asmoa: proiektuen koordinazioa eta sailen arteko jarraipen operatiboa egitea, Plan osoaren kudeaketa, jarraipen eta ebaluazio egoki batzuk egiteko, Gobernuak ezarritako konpromisoaren arabera. Haien zeregina da:

- Planean, haren fase guztietan (urterokoak, nagusiki), barne diren proiektu-proposamenei buruzko txostenak baliozkotzea; kudeaketaz arduratzen den sailak aurkeztu behar ditu txostenok.
- Planean, haren fase guztietan (urterokoak, nagusiki), barne diren proiektuei buruzko jarduera-deskarguko eta emaitzen mailako txostenak baliozkotzea; kudeaketaz arduratzen den sailak aurkeztu behar ditu txostenok.

Baldin eta proiektuen zuzeneko kudeaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraz kanpoko erakunde edo elkarte bati esleitzen bazaio, aipatu txostenak aurkeztea esleituta daukan sailaren gain izango da haiek baliozkotzea.

Edozein sailekin edo sektore-esparru zehatzekin elkarrekintzan aritzeko inongo biderik baztertu gabe, maila horren abagune-papera indartzea bilatuko da; horretarako, protagonismo berezi bat hartzen duten eta Planaren trakzio-efektu bat egiten duten sailek osatuko dituzte jarraipen-batzordeak.

Berrikuntza eta Teknologia Zuzendaria da jarraipen-batzordeen buru, eta honako hauez daude osatuta haiek: kasu bakoitzean dagokion saileko sailburuak izendatzen dituen zuzendaritza mailako arduradunetz.

Batzorde Teknikoaren eta, formalkiago, Berrikuntza eta Teknologia sailburuordearen ordezkari gisa arituko da Berrikuntzaren eta Informazioaren Gizartearen Zuzendaria.

Hori, zeren 514/2009 Dekretuak, irailaren 22koak, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, honako hau esleitzen baitio aipatu sailburuordetzari, bere 8. artikuluan: «bere eskumenerako arloetan Sailaren eta gainerako sailen zein eremu material horri lotuta eratutako sailen arteko koordinazio-organoen arteko harremanetarako organoa izatea».

Idazkaritza Teknikoa

Idazkaritza Teknikoa da Planaren aurrerabide eraginkor eta homogeen bat bermatzeko behar diren lanak egiteko ardura daukan organoa. Idazkaritza Teknikoaren funtzioak Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zuzendaritzari dagozkio.

Honako hauek izango dira Idazkaritza Teknikoaren funtzioak:

- Planaren kudeaketa-ereduaren agente-koadroaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Informazioaren Gizarteari buruz Euskadin eta beste erreferentzia-esparru batzuetan (Estatua, Europa, herri aitzindariak) garrantzitsuenak jotzen diren adierazle estatistikoen jarraipen bat egitea.
- Planaren jarraipen-txosten globalak egitea.
- Aholkularitza teknikoa eskaintzea proiektuak garatzeko ardura duten pertsoneri, jarraipen-batzordeen txostenak egiteko orduan, abiapuntuko helburuen eta zehaztapenen arabera proiektuon kalitatea bermatzeko, eta proiektuok 2010eko EIGPren jarraibide orokorrekin bat etor daitezen lortzea.
- Teknologia-zaintzako lanak egitea, ezarritako helburuetan eta martxan diren proiektuetan eragina izan dezaketen joerak behatzeko xedez, eta aipatu joerek markatutako etorkizuneko jokaleku batera batzuk eta besteak egokitzeko jarraibideak eskaintzea.
- Harreman estu eta eraginkor bat atxikitzea IKTen esparruko agentziekin, erakundeekin eta zentroekin, lehen eskuko datuak trukatzeko, eta, haiek hartzen dituzten erabakietan, Planaren estrategia eta edukia kontuan eduki daitezen ahalegintzeko.
- Sustapen-plan bat prestatzea eta haren jarraipena egitea, beharrezkoak diren ekintza guztiak garatzen direla, inplikaturako eragileen partaidetza aktiboa sustatzen dela, eta edukien hedapenerako euskarri-tresnak (webgunea, buletinak, etab.) mantentzen direla.
- Zuzendaritza Batzordearen, Batzorde Teknikoaren eta jarraipen-batzordeen bilkurak proposatzea, antolatzea eta koordinatzea; baita idazkaritzari laguntzeko funtzioak egitea ere.
- EIGP 2015en jasotako proiektuekin lotuta jakintzen eta esperientzien trukerako lantaldeen eta foroen bideratzaile aritzea, Planak bere osotasunean dakarren jakintzari balioa ematen zaiola.

Jarraipena eta ebaluazioa

Plan berria ikuspegi batez ere praktikotik abiatzen da, eta ekimen eta proiektu «nabari», sinergiko eta eragin handiko batzuk jasotzen ditu, modu egituratu batean, ezarritako ekimenen eta programen bitartez, haiek gauzatzeko konpromisoarekin, herritarren bizi-kalitatearen hobekuntza iristeko eta/edo euskal enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzeko.

Bere inplementazio-prozesuan, Agenda Digitala 2015ek tarteko eta amaierako ebaluazio bana izango ditu, bai kudeaketa mailan eta bai emaitzei dagokienez. Helburu globalak dituzten adierazle batzuk edukiko ditu, eta proiektuen araberrako helburuak dituzten adierazle batzuk (baliabideen, jardueren, zerbitzuaren, eraginkortasunaren, emaitzen eta inpaktuaren adierazleak); adierazleon gainean egingo da azterketa eta balioespena, aipatu bi aldietan.

Helburuen jarraipeneko adierazleak

Planaren jarraipen-esparruan, adierazle global batzuk definitu dira, eta helburu zehatz bat dute: Agenda Digitalaren esparruan garatuz joango diren jardueren informazioaren gizartearen jarduera-esparruetan sortzen duten eragina neurtzea, eta definitutako lau ardatz estrategikoetan daude mamituta esparruok.

Adierazle bakoitzerako, 2015ean iritsi beharreko helburu bat ezartzen da; hala, erabakitzen den maiztasunarekin, aipatu helburuaren betetze gradualaren jarraipen bat egingo da.

Halaber, eta datua baden kasuetarako, adierazleek beste eremu geografiko batzuetan (27EB edo Espainia) duten egoeraren eta bilakaeraren azterketa konparatibo bat egingo da.

Agenda Digitalaren jarraipenerako erabili beharreko adierazleak hautatzeko, honako ideia hauek hartu dira kontuan Berrikuntzaren eta Informazioaren Gizartearen Zuzendaritzan:

- Adierazle adierazgarriak hautatzea, Euskadiko informazioaren gizartean Agenda Digitala hedatzeak dakarren eraginaren ikuspegi argi eta zehatz bat eskaini ahal izateko.
- Erreferentzia-iturri fidagarri batzuk (EUSTAT eta EUROSTAT) erabiltzea, zeren, horri esker, konparaketak egin baitaitezke, kasu askotan, intereseko beste eremu geografiko batzuetan den egoerarekin.

Halere, azterketa espezifiko bat behar duten informazioaren gizarteko jarduera-esparruetan pentsatzen da EUSTAT bezalako erakundeen adierazleak ez direla behar bezala egokitzen Agenda Digitalaren jarraipen-beharretara, eta, horregatik, sailletako (Justizia eta Herri Administrazioa, Hezkuntza, Osasuna, Kultura) edo kanpoko eragile garrantzitsuen adierazleak erabiliko dira.

- Beste gobernu-plan batzuetan erabilitako edota Agenda Digitalarekin bat datozen edo haren helburu berak dituzten sail-ekimenak kontuan izatea.

Panela taxutzeko, honako hauek ere berrikusi eta hartu dira aintzat: Lehiakortasun Planean, Berrikuntza Publikoaren Planean eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean jasotako adierazleak; ildo horretan, gobernu-plan bakoitzaren arduradunek haiei buruz egin beharreko dagozkion neurketetan eta azterketetan gainjartzeak edo bikoiztasunak saihesteko, erabaki da adierazle horietako bat ere ez sartzea Agenda Digitaleko panelean, izan litekeen osagarritasun maila handiagoa edo txikiagoa gorabehera.

Halere, ahalegin handi bat egingo da sailen arteko koordinazio eta informazio-truke on batzuk indartzeko, adierazle horien informazio eguneratua eskura izateko. Adierazleok, izan ere, ikuspegi zabalago bat eskainiko diote Agenda Digitalari, eta, horrela, hobetu egin daiteke Informazioaren Gizartea Euskadin gaiari buruz Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zuzendaritzak egiten duen azterketa.

Jarraian, definitutako ardatz estrategiko bakoitzean Euskadiko Agenda Digitala 2015ek duen eragina neurtzeko Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zuzendaritzak proposatutako adierazle-panela aurkezten da.

ARDATZA: ERKIDEGO DIGITALA

GAITASUN DIGITALAK		
Adierazleak	Gaur egungo balioa	2015erako helburua
• Internet erabiltzen duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak Guztira (%)	% 63,60	% 75
• Internet erabiltzen duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak Gizonezkoak (%)	% 66,6	% 77
• Internet erabiltzen duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak Emakumezkoak(%)	% 60,6	% 73
HEZIKETA ETA TREBAKUNTZA DIGITAL BERRITZAILEA		
Adierazleak	Gaur egungo balioa	2015erako helburua
• Ikastetxeetan ordenagailu bakoitzeko dagoen ikasle kopurua (unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko zentroak)	5	2
• Irakasleak eta ordenagailuen erabilera ikasgeletan (unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko zentroak)	% 66,20	% 75
e-PARTAIDETZA		
Adierazleak	Gaur egungo balioa	2015erako helburua
• Abian jarri diren parte-hartze ekimenak	-	10
ETXEBIZITZA DIGITALA		
Adierazleak	Gaur egungo balioa	2015erako helburua
• Etxetik Internetera sarbidea duten eta gutxienez 16 eta 74 urte bitarteko kide bat duten familiak (%)	% 65,8	% 75
KONFIANTZA DIGITALA		
Adierazleak	Gaur egungo balioa	2015erako helburua
• Azken hiru hilabeteetan Internet bitartez erosi duten erabiltzaileak (%)	% 30,40	% 40
• Segurtasunak kezkatzen dituelako Internet bitartez erosten ez duten 16 eta 74 urte bitarteko erabiltzaileak (%)	% 24,79	% 20
• Pribatasunak kezkatzen dituelako Internet bitartez erosten ez duten 16 eta 74 urte bitarteko erabiltzaileak (%)	% 14,52	% 10

ARDATZA: e-ENPRESA (1/2)

IKT-LAN		
Adierazleak	Gaur egungo balioa	2015erako helburua
Interneten sarpen maila		
• Internetera sarbidea duten 0-2 langile dituzten enpresak (%)	% 61,20	% 70
• Internetera sarbidea duten 3-9 langile dituzten enpresak (%)	% 83,40	% 90
Aplikazioa urreratuak erabiltzea		
• ERP - Aplikazio aurreratuak dituzten 10 langiletik gorako enpresak (%)	% 36,8	% 50
• CRM - Aplikazio aurreratuak dituzten 10 langiletik gorako enpresak (%)	% 32,3	% 50
• SCM - Aplikazio aurreratuak dituzten 10 langiletik gorako enpresak (%)	% 22,8	% 30
SAREKO NEGOZIOEN EREDU BERRITZAILEAK		
Adierazleak	Gaur egungo balioa	2015erako helburua
Webaren bitartez eskainitako zerbitzuak		
• Web orriaren bitartez erositako produktu edo zerbitzuak zuzenean ordaintzea eskaintzen duten enpresak (establezimendu guztien %)	% 11,40	% 15
• Web orriaren bitartez erosketaren egoera jarraitzea eskaintzen duten enpresak (establezimendu guztien %)	% 12,70	% 15
• Web orriaren bitartez transakzio seguruak egitea eskaintzen duten enpresak (establezimendu guztien %)	% 14,50	% 20
• Web orriaren bitartez lan-eskaintzak egiten edo lan-eskaerak jasotzen dituzten enpresak (establezimendu guztien %)	% 22,60	% 30
• Web orriaren bitartez ohiko erabiltzaileei edukiak pertsonalizatzea eskaintzen duten enpresak (establezimendu guztien %)	% 13,50	% 20
• Web orriaren bitartez ezintasunen bat duten pertsonentzako erabilerraztasuna eskaintzen duten enpresak (establezimendu guztien %)	% 13,70	% 16
Faktura elektronikoa erabiltzea		
• Faktura elektronikoa bidaltzen dituzten eta 10 langile baino gehiago dituzten enpresak (%)	% 19,3	% 80
• Faktura elektronikoa jasotzen dituzten eta 10 langile baino gehiago dituzten enpresak (%)	% 28,8	% 85
Merkataritza elektronikoa		
• Internet bitartez salmentak egiten dituzten establezimenduak (%)	% 3,90	% 5

ARDATZA: e-ENPRESA (2/2)

IKT-EN SEKTOREAREN LEHIAKORTASUNA GARATZEA		
Adierazleak	Gaur egungo balioa	2015erako helburua
• EAeko langile guztien artean IKTetan lan egiten duten langile kopurua (%)	% 2,3	% 3
• IKTen sektorearen ekarpena euskal ekonomiari (%)	% 3,1	% 4
• IKTen sektorearen esportazioen bolumenaren batez besteko urteko aldaketa (%)	% 15,80	% 10

IKT-AK ETA JASANGARRITASUNA		
Adierazleak	Gaur egungo balioa	2015erako helburua
• Komunikaziorako eta enpresa-lankidetzarako sistema birtualak dituzten 10 langiletik gorako enpresak (%)	-	% 35
• Hardwararen birtualizazio (hodei konputazioa) zerbitzuak erabiltzen dituzten 10 langiletik gorako enpresak (%)	-	% 20

NAZIOARTEKOTZEA		
Adierazleak	Gaur egungo balioa	2015erako helburua
• Web orrian ingelesa edota gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntzaren bat erabiltzen duten 10 langiletik gorako enpresak (%)	% 46,7	% 60

ARDATZA: ZERBITZU DIGITAL AURRERATUAK

GAUZAK ERRAZTEN DITUEN ADMINISTRAZIOA, HURBILEKOA ETA ERAGINKORRA

Adierazleak	Gaur egungo balioa	2015erako helburua
• Internet administrazioari informazioa kontsultatzeko erabiltzen duten 15 urte baino gehiagoko biztanleak (%)	% 53,7	% 65
• Internet administrazioari inprimakiak beheara kargatzeko erabiltzen duten 15 urte baino gehiagoko biztanleak (%)	% 37,40	% 50
• Internet administrazioari inprimakiak betetzeko eta bidaltzeko erabiltzen duten 15 urte baino gehiagoko biztanleak (%)	% 33,70	% 45
• Administrazioarekin <i>e-procurement</i> delako lizitazio elektronikoaren sistema batean proposamenak aurkezteko izapideak egin dituzten enpresak (%)	% 7,10	% 10

IKT-ETAN OINARRITUTAKO SISTEMA SOZIOSANITARIOAK

Adierazleak	Gaur egungo balioa	2015erako helburua
• Osasunari buruzko informazioa bilatzeko Internet erabiltzen duten 15 urtetik gorako biztanleak	% 29,5	% 50
• Erabiltzaileek O-sarean zentroaren bitartez egindako eragiketa telematikoen batez besteko urteko aldaketa	-	% 30
• Pazienteen Euskal Erkidegoan izena emana duten erabiltzaileen batez besteko urteko aldaketa	-	% 35
• Telelaguntza zerbitzuen erabiltzaileen batez besteko urteko aldaketa	-	% 20
• Konektatzeko 30 MB/s-tik gorako abiadura duten osasun zentroen ehunekoa	-	% 100
• EAEn Osasunarekin zerikusia duten IKTtan egiten den inbestimenduaren batez besteko urteko aldaketa	-	% 10

EUSKADI SAREAN

Adierazleak	Gaur egungo balioa	2015erako helburua
• Web orrian euskara erabiltzen duten establezimenduak (%)	% 36,70	% 40
• Interneten ibiltzeko euskara erabiltzen duten 15 urtetik gorako biztanleak (%)	% 21,20	% 25
• Euskaraz eskuragarri dauden erabilera unibertsaleko gizarte-aplikazio nagusiak (%)	-	% 100
• Euskadiko Turismo Atariak egunero jasotzen dituen bisiten urteko batez bestekoa	1.557	2.000
• Euskadiko Turismo Atariak jasotzen dituen nazioarteko bisitak	% 22,09	% 25

TOKIKO AGENDA DIGITALAK

Adierazleak	Gaur egungo balioa	2015erako helburua
• Tokiko Agenda Digitala duten erakundeak (%)	% 9,77	% 25

ARDATZA: AZPIEGITURAK

AZPIEGITURAK ETA SARE ULTRABIZKORRAK		
Adierazleak	Gaur egungo balioa	2015erako helburua
<ul style="list-style-type: none"> Gutxienez 30 MB/s-ko Interneteko zerbitzuak kontratatzeko aukera duten biztanleak (EAEko biztanleriaren %) 	% 88	% 98
<ul style="list-style-type: none"> Negozio zentroetan, industrialdeetan eta teknologia-zentroetan 1 GB/s-ko sarbidea izateko aukera 	-	% 98
SAREAN SEGURTASUNA ETA KONFIANTZA		
Adierazleak	Gaur egungo balioa	2015erako helburua
<ul style="list-style-type: none"> Sinadura digitala erabiltzen duten enpresak (%) 	% 38,10	% 50
MUGIKORTASUNA ETA ZERBITZUETARAKO NONAHIKO SARBIDEA		
Adierazleak	Gaur egungo balioa	2015erako helburua
<ul style="list-style-type: none"> Estalduaren ehunekoa biztanle kopuruan neurtua eta 30 Mb/s-tik gorako abiadurako zerbitzu mugikorren azalera 	-	% 98

III Zatia

PLANAREN INPLEMENTAZIOA ETA FINANTZIOAZIOA

2. Euskadiko agenda Digitala 2015en finantziazioa



2. EUSKADIKO AGENDA DIGITALA 2015EN FINANTZIAZIOA

Planaren finantziazioaren alderdi orokorrak

Jadanik amaitutako Euskadi Informazioaren Gizartean Planak osatzen zituzten proiektuen gauzapenak ahalegin finantzario bikoitza eskatu du: ohiko aurrekontu-esparrua gainditu du, eta ezohiko funts gehigarri batzuk hornitu behar izan dira. Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan finantza-baliabide berezi batzuk aurreikusi dira Planaren helburuak iristen laguntzeko; sektore-programa batzuetako kontu-sailetatik etorri dira baliabideok, eta aurrekontu-programa propio batean –5211 Euskadi Informazioaren Gizartean Plana aurrekontu-programa– jasotako kontu-sailetatik.

Agenda Digitala 2015en behar finantzarioak estaltzeko, eta egoera zailetan politika publikoek izan beharreko austeritatearekin bat, berrikusi egin dira finantziazio-jarraibideak, eta kostuak doitu. Horren ondorioz, aurreko planetan gertatzen zenaz bestera, eta jarduera huts-hutsik sektorialak aparte mugatzeko, funts espezifiko batzuk esleitu dira Plana indarrean den denbora osorako.

Finantziazio horren zenbatekoak helburu zehatz bat du: proiektu berrien sustapenarekin, aktibazioarekin edo abiaraztearekin lotutako ekintzak modu selektibo batean laguntzea; proiektuok, bidenabar esanda, gainditu egiten dute sektore-eskala, eta zeharkakotasun handiagoko bultzada dakarte informazioaren gizartearen esparruan. Honako irizpide hauei begiratuta hautatu dira, nagusiki, Euskadiko Agenda Digitala 2015en esparruan garatuko diren proiektuak: transzendentzia, zabalera, eragina eta sektore anitzeko sinergiak sortzeko gaitasuna.

Agendako proiektuetara zuzentzea aurreikusita dagoen finantziazio espezifikoa **72.733.000 euro** da, eta, arestian esan den bezala, 5211 Euskadi Informazioaren Gizartean Plana aurrekontu-programan dago esleitura, «Agenda Digitala 2015» izenaren pean. Finantziazio horrek biak batu nahi ditu: aurrekontu-zorroztasuna, eta aldaketa teknologikoak berekin dakarren etengabeko eguneratzearen tentsioa, erronkak abagune bihurtzea baita gakoa.

Alabaina, espezifikotasun horrek ez du galarazten Agenda Digitala jarduera ugarirekin osa dadin, eta jarduerok, lehenago esan den bezala, legegintza-plan ugaritan daude jasota: Berrikuntza Publikoaren Plana (BPP); Enpresa Lehiakortasuneko Plana; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (ZTBP), eta EkoEuskadi 2020. Hala, plan horietan esleitutako funts publikoak eta pribatuak oso lotuta daude Agenda Digitala 2015ekin, elkarren osagarri diren helburuei erantzuten baitiete, eta elkarrekin estu-estu lotutako –baina kudeaketa eta finantziazio independenteko– programak eta jarduerak jasotzen dituzte.

Arrazoi horregatik, Agenda Digitala 2015en inplementazio- eta kudeaketa-prozesu osoan zehar, Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zuzendaritzak, Planaren Idazkaritza Teknikoa den aldetik, oso kontuak izango ditu, jardueren jarraipenerako aurreikusitako prozesuan, ondoko hauek: Eusko Jaurlaritzako sailek gidatutako/bultzatutako jarduerak, eta beste erakunde batzuek nahiz aipatu gobernu-planetan parte hartuko duten eragileek bultzatutakoak. Horri esker, ahalik eta ikuspeirik osoena izango da, Agendaren azken ebaluazioan, hauetaz: helburuen betetze mailaz; azkenean erabili diren baliabideen bolumenaz, eta beste erakunde batzuekiko izan den inplikazio mailaz.

Planaren finantziazioaren banaketa, hura indarrean den aldira

Jarraian ageri den taulan, Euskadiko Agenda Digitala 2015en finantziazio espezifikoaren banaketa tenporala ageri da, eurotan emana, ardatz estrategikoka.

EUSKADIKO AGENDA DIGITALA 2015EN FINANTZIAZIOAREN BANAKETA (eurotan)

ARDATZ ESTRATEGIKOAK	2011	2012	2013	2014	2015	GUZTIRA
ERKIDEGO DIGITALA	6.060.000	4.000.000	3.504.000	3.079.800	3.165.100	19.808.900
e-ENPRESA	1.182.500	2.700.000	2.700.000	2.700.000	2.700.000	11.982.500
ZERBITZU DIGITAL AURRERATUAK	4.880.000	3.000.000	3.200.000	3.250.000	3.250.000	17.580.000
AZPIEGITURAK	100.000	3.391.600	4.170.000	5.200.000	5.800.000	18.661.600
AD15EN KUDEAKETA ETA SUSTAPENA	800.000	900.000	1.000.000	1.000.000	1.000.000	4.700.000
GUZTIRA	13.022.500	13.991.600	14.574.000	15.229.800	15.915.100	72.733.000

Informazioaren gizartearen eta Euskadiko Agenda Digitala 2015en bultzadaren eragin ekonomikoa

A. Sarrera

Frogatuta dago: informazioaren eta komunikazioaren teknologien garapenak eragin zuzen eta funtsezkoa du honako hauetan: produktibitatearen hazkundean, berrikuntzan, lehiakortasunean, hazkunde ekonomikoan eta enplegu kualifikatuaren sorkuntzan. Eta, horiei esker, hazkunde tasa positibo eta iraunkorrak irits daitezke.

Modu horretan, baldin eta dirua inbestitzen bada teknologiotan, haiek garatzeko azpiegituretan, giza baliabideen gaitasun digitalak hobetzeko trebakuntzan eta teknologion erabileran oinarritutako berrikuntzan, urrats garrantzitsuak egiten dira garapen ekonomiko eta sozialak aurrera egin dezan.

Soilik horren jakitun izan diren ekonomiek eta urrats horiek egin dituztenek iritsi dute hazkunde jasangarri eta iraunkor bat; baita munduko ekonomiak egun bizi duen makalaldian ere.

Nahiz eta Euskadi mailan oraingoz ez den lotura hori zehatz ebaluatzeko ikerketa sistematikorik, koherentea iruditzen zaigu antzeko ezaugarriak dituzten beste ekonomia batzuetan kuantifikatu diren onurak hona estrapolatzea. Ekonomia haietan, inbestimendua ez da zentratu soilik etxebizitzaren arloan, eta IKTek zati handi bat izan dute etxebizitzet kanpoko inbestimenduan.

Edonola ere, Euskadiko Agenda Digitala 2015en inplementazio-prozesuan, eta haren Idazkaritza Teknikoaren kudeaketa-zeregin ugarietan, ikerketa interesgarri horiek garatzen jarraitu nahi da. Beroriei esker, izan ere, lotura horren ebaluazio egokiago bat egin daiteke, eta, korrelazio horrek berezitasunak ageri dituen kasuetan, berriz, azterketa xeheago bat. Era berean, gurearen antzeko Europako eskualdeetan prozesu horiek duten bilakaera ikertzeari helduko zaio.

B. Alderdi orokorrak

IKTak eta hazkunde ekonomikoa


Hurbilketa metodologiko batzuek erakutsi dutenez, bistakoa da erlazio zuzen eta estua dagoela IKTen garapenaren eta herrialde baten hazkunde ekonomikoaren artean, eta halaxe gelditu da agerian «Measuring The Information Society» txostenean. Nazio Batuen Erakunde International Telecommunication Union (ITU) erakundeak urtero egiten du txosten hori.

Ikerketa horren bitartez, IKTen garapen-indizea (IDI) aztertzen da; haren bidez, gero, NBEko ia herrialde guztien garapen teknologikoa konparatzen, eta garapen horrek BPGrekin duen erlazioa.

Indize horrek adierazle batzuk jasotzen ditu, eta, haien bitartez, IKTak eskuratzeko erraztasuna, haien erabilera eta gaitasun digitalak neurtzen dira 152 herrialdeetan. 1etik 10erako eskalaren arabera egindako neurketa batean, ikus daiteke batez besteko indizea 3,62tik 4,08ra igaro dela 2008 eta 2010 bitartean.

2011ri dagokion txostenean, ITen garapenaren arabera ordenatutako ekonomien sailkapenean, argi eta garbi ikusten da IKTen garapen-indize handiak dituzten herrialdeek BPG per capita handia dutela. Bestela esanda, lotura sendo bat da bi aldagaien artean.

Biztanle bakoitzeko IKTen eta BPGaren garapeneren indizea. 2010



Iturria: ITU (International Telecommunication Union). Nazio Batuak

IKTak eta lehiakortasuna

Era berean, agerikoa da IKTek –eraginkortasuna hobetzen baitute, eta kostuak murrizten laguntzen– lehiakortasuna handitzen dutela nabarmen.

Ildo horretan, World Information Technology Alliance (WITSA) erakundeak egindako «Digital Planet» ikerketaren arabera, ikusten da IKTetan (haiek ezartzen, erabiltzen, berritzen eta herritarrak haietan trebatzen) gasturik handiena egin duten herrialdeak direla beren lehiakortasun ekonomikoa handitzen edo atxikitzen dutenak.

Hala, honako hauek dira munduko herrialderik lehiakorrenak ikerketa horren arabera: Suitza, Suedia, Singapur eta AEB. Espainia 42. tokian da, 139tik.


IKTak, produktibitatea eta enplegua

Europako Batzordearen datuen arabera, produktibitatearen hazkundearen erdia baino gehiago informazio eta komunikazio teknologietatik (IKT) dator, hiru esparru hauen bitartez:


- Zuzenean teknologia horietan egiten den inbestimenduengatik, horrek beste baliabide batzuen (kapitala edo lana) produktibitatea handitzen baitu.
- Aurrerapen teknologikoagatik
- Gainerako sektore ekonomikoetan dituzten ondorioengatik, haien eraginkortasuna hobetzen baitute, eta sareko kanpokotasunen presentziagatik.

Hala, IKTek *produktibitatea handitzeko ziklo bertutetsu bat* sortzen dute, teknologion berrikuntza-gaitasun handian oinarritzen baita hura.

Produktibitatearen zirkulu bertutetsua



Zirkulu bertutetsu horrek intentsitate desberdinak hartzen ditu fenomenoak aztertu den lekuetan, eta horrek erlazio zuzena du, jakina, bai haien ekonomiaren ezaugarriekin, bai produktibitate mailan azken urteetan iritsitako hobekuntzekin.



Iturria: Total Economy Database. TCB eta EU-KLEMS.

Bestalde, BPG erreferentziatzat hartuta IKTeK I+Gn egiten den inbestimenduari begiratu gero, ikusten da IKTeK gehien inbestitzen duten herrialdeek dutela produktibitate-hazkunderik handiena.

Herrialdeak	IKTeK I+G/2007 BPG	Produktibitatea (1995-2009).
Korea	% 1,30	% 59,55
Japonia	% 0,87	% 23,20
AEB	% 0,72	% 30,06
27 EB	% 0,33	% 24,49
Espainia	% 0,14	% 12,59

Iturria: ANBERD (OECD) eta TCB (The Conference Board)


Azkenik, honako hau ere esan behar da: EBri dagokionez, jotzen da informazioaren gizartean inbestitutako milioi euro bakoitzeko 33 lanpostu zuzen nahiz zeharkako sortzen direla.

C. Euskadin eta Agenda Digitala 2015ek duten eragin ekonomikoa

Lehenago azaldu denez, IKTetan eta I+G+Bn inbestitzea funtsezko elementu bat da, produktibitatea handitzen eta ekonomia hazten laguntzen baitu.

Jokaleku horretan, Eusko Jaurlaritzak asmo sendo bat du, eta, horretarako, Euskadiko Agenda Digitala 2015 jarri du martxan, informazioaren gizartean zentratutako beste gobernu-ekintza batzuekin koordinatuta. Honako hau da aipatu asmoa: produktibitatearen hazkundera eta, beraz, hazkunde ekonomikoa zein EAEko enplegu-sorkuntzan IKTek duten ekarpena handitzea.

Nola ez den oraindik ikerketa espezifikorik gaiaz, metodo zehatz bat aukeratu da Agenda Digitala 2015ek Euskadiko ekonomian daukan eragina ebaluatzeko, kontuan hartuta Euskadik Europako herrialdeen estrategiarekin bat egitea erabaki duela: hipotesia da IKTek eta I+G+Bk produktibitatean, lehiakortasunean eta hazkunde ekonomikoa daukaten eragina aipatu esparru geografikoetako enaren antzekoa dela Euskadin ere.



Hala, jokaleku probable horren arabera, Euskadiko Agendak helburu zehatz bat dauka, hots, bera garatuta eta inplementatuta Euskadi Europako herrialdeen mailara hurbiltzea, zirkulu bertutetsu horren onurarik handienak aprobetxatuta:

- **IKTek Euskadiko produktibitatea handitzeko egiten duten ekarpena:** EBko maila iristea 2015ean
- **IKTek EAEn aberastasuna handitzeko egiten duten ekarpena:** IKTetatik datorren BPGren hazkunderaren ehunekoa EBkoaren mailara iristea 2015ean
- **IKTek EAEko BPGn duten ekarpena:** % 4 (AD15en adierazle eta helburu)
- **IKTek Euskadin enpleguari egiten dioten ekarpena:** % 3 (AD15en adierazle eta helburu)

Bi hauetatik planteatzen da helburu horiek iristeko asmoa: lorpen horiek duten interes handitik, eta ikuspegi errealista baino baikor batetik: hau da, lorpen horiek errepikaezinak izan daitezke hurrengo urteetan, baina balio garrantzitsuak eduki ditzakete.

